

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-11-20
EGUBAKOITZA
661. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

25 urte euskararen alde jardunean

Herritarrekin
ospatuko dute
urteurrena | 9



Urteurreneko logoa. | AMAIA ZAITEGI

20 urte gizarte parekideago
baten alde, Ekin elkartarekin | 10



Aretxabaletan ere guztia gertu dute hondakinen
gaineko urtarileko herri galdeketerako | 20



Aldaketak datoz Antzuolako
oinezkoen planean | 23



Dantzariak Oñatz
Dantza Taldearen
urteurreneko ikuskizun
nagusian, joan den
zapatuan, Zubikoan.

Oñatz: 45 urte dantzan

Ehun lagun baino gehiago batuko dira
Oñatiko dantza taldearen bazkarian | 19

IMANOL SORIANO

Indarkeria matxista salatzeneko deiak

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira tailerrak, elkarretaratzeak eta beste egingo dira | 2 eta 'Herriak' saila

Simon Arrietaren gaineko erakusketa antologikoa | 30

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 |
HERRIAK 9 | KIROLA 26 | KULTURA 30
ZURE RAGARKIAK 34 | ZORION AGURRAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

SINADURAK

	IÑAKI ETXEBESTE 6
	6 JOKIN BEREZIARTUA
	JOSU ZUGASTI 10
	14 ANDRES OSA 'SAKONA'
	MIREN ZUBIA 19
	22 MARISOL ANDRADE
	MARLJO DEOGRACIAS 23
	40 MIKEL IRIZAR



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Droneak eta haien erabilera hizpide
- Kobateko aurkikuntza, Murelaga geologoarekin

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

Touran berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Das Auto

"Denok plazetara", indarkeria matxista salatzeke helburuarekin

Eguaztenean da Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Azaroaren 25ean, erasoia jasan eta erasotzailea salatzeke adorea atera duzuen emakumeekin batera aterako gara denok gure herrietako plazetara".

Mezu horrekin laburbiltzen dute Debagoieneko Emakumeen Mundu Martxako ordezkariak oraindik ia eguneroko ogia den emakumeen kontrako indarkeria salatzeke landu duten idatzia, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltan, egun horretarako deia egiteaz batera (ikus. 7. orria). Hain justu, egun hori aldarrikatzeko deiarekin bat egin dute eskualdeko herriek, elkarretarazeak edo protestarako bestelako bideak erabilia edo adierazpen instituzionalak baliatuta.

Gizartearen arazoa

Izan ere, udaletan onartutako adierazpen instituzionalaren irakurketa orokorra da emakumeen kontrako indarkeria "arazo estrukturala" dela eta gizartean bertan dagoela indarkeria mota horren abiapuntua, eta, hori horrela, gizartea bera dela aldatu beharrekoa: "Emakumeen aurkako indarkeria gizartearen egituraren bertan oinarritzen da; izan ere, oraindik ere aukera desberdinak eskaintzen zaizkie emakumezkoiei eta gizonezkoiei, eta oraindik ere jaiotza-sexuaren arabera pertsonen askatasuna mugatzen da. Saiatu behar dugu bestelako gizartea eraikitzen, non pertsona guztiek askatasuna izango duten nahi duten bezalakoak izateko, non aukera izango duten potentzialtasun osoz garatzeko, eta non giza eskubideei begira berdintasunezko eta begirunezko tratua jasoko duten".

Ekimenak herriz herri

Indarkeria matxista salatzeke ekimenei dagokienez, Arrasaten, esaterako, bihar (zapatua) hasiko dira gaia lantzen Emakume Txokoan egingo duten tailer batekin, indarkeria sinbolikoaren tailerrarekin. Eta bihar hasi eta abenduaren 2ra arte hainbat

hitzordu egin dituzte egun horren bueltan. Oñatin, bestelakoan artean, salaketa hori 100 zapata pare gorri margotuta plazaratuko dute, hain justu, Elina Chau-

vet artista mexikarrak Ciudad Juarez-en emakumeek jasaten duten errealitate bortitza salatzeke egindako protesta ekimenaren erreplikatik abiatuta.



Aurtengo irudia. | GOIENA

Bergaran, besteak beste, Zineforuma egingo dute, Beldur Barik ekimeneko filmak proiektatzeko. Eskoriatzan, Aramaion eta Antzuolan elkarretarazeak iragarri dituzte egunerako bertarako; eta Antzuolan aukera ematen dute nahi duenak balkoian jartzeko puntu lila duen zapia eskatu ahal izateko. Udaletxean bertan eskura dezake, bi eurotan, astelehenean edo martitzenean. Ekimenen gaineko informazio zehatza *Herriak* atalean eskura daiteke.

AMAIA ARRIETA | ARIZMENDI IKASTOLAKO HEZITZAILEA

"Pertsonak txikitatik desberdin tratatzen ditugu, inkontzienteki"

Adituen arabera, pertsonen arteko berdintasuna da emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko biderik eraginkorrena. Bat egin du baieztapen horrekin Amaia Arrietak, Arizmendi Ikastolako hezitzaileak.

Zein da, orokorrean, ume txikien artean ikusten den erretratu?

0-3 urte bitarteko etapan dihardutik lanean eta hori ikusten den erretratu da txikitatik desberdin gatzela; inkontzienteki desberdin tratatu izan ditugula eta tratatzen ditugula haurrak. Jaio aurretik badugu, adibidez, behar bat jakiteko neska edo mutila den, horrekin espektatiba batzuk egiten ditugu... Desberdintasun horren adibide batzuk honako hauek dira: janzkera, hurrekin hitz egiterakoan erabiltzen dugun tonua, hitzak —*printzesa* neskei, *txapeladun* mutikoei...—; haurren logelak —izaren koloreak, koadroak...—; egiten dizegion opariak... Adibide oso agerikoa da, esaterako, oinetakoena: neskenak dira finagoak eta poliki-poliki ibiltzekoak; mutilenak, berriz, bortitzagoak, putzuetan sartzekoak... Bi koloretako munduan bizi gara: maskulinoan eta femeninoan, eta estereotipo horiek oso zehatzak dira. Maskulinoak dakar indarra eta ausardia eta femeninoak, berriz, hauskortasuna eta zuhurtzia. Maskulinoa da autoritatea eta inteligentzia eta femeninoa da entzulea, errudun sentitzen dena, intuitiboa... eta horrela, aktiboa da bata eta pasiboa bestea, langilea da bata, zaintzailea da bestea, bortitza da bata, goxoa eta enpatikoa da bes-

tea... Gizartean bi genero daude *onartuta*, gizon eta emakume, eta horietako bakoitzak bere ezaugarriak, estereotipoak, arauak... ditu eta arau horiek apurtzen dituena gaizki ikusita dago.

Ume horiek adinez horren txikiak izanik, transmititzen duten gutzia etxetik jaso dutela esan daiteke, ala?

Haurrek txikitatik berdintasunean oinarritutako jarrerak ikusteko erakusleho gutxi dituzte; txikiengatik lehenengo erakuslehoia etxea eta eta bigarrena eskola. Beraz, eredu izan behar dugu bai gurasoak eta baita hezitzaileak ere. Lan handia dago esparru horretan. Hirugarren erakuslehoia, berriz, gizartea bera da, eta gizartea norbanako bakoitzak osatzen dugu; beraz, erantzukizun handia daukagu.

Gure hurrek zer ikusten eta entzuten dute? Tebistako iragarkiak, publizitatea, orokorrean, orain dela gutxira arte ikastetxeetan bertan erabili izan dugun eta oraindik ere erabiltzen dugun hainbat material... **Askok pentsa dezakete, baina, ume horiek oraindik oso txikiak direla halako kontuekin lotuta horrelako arreta jarri beharra izateko...**

Adituek diote 0-6 urte bitarteko etapa dela etaparik garrantzitsuenak, pertsonaren garapenerako eta zorientasunerako oinarriak adin-tarte horretan finkatzen dira eta.

Atera, bada, kontuak hortik: etapa horretan bizitakoak eta landutakoak etorkizuneko oinarria finkatzen du. Begirunean, errespetuan eta askatasunean hezitako haurrak oinarri sendoa izango du etorkizuneko edozein keinu matxistari aurre egiteko, eta baita keinu matxista zer den identifikatzeko ere. Hortxe dago indarkeriaren gakoetako bat, askotan ez dugula identifikatzen ikusi edo bizi dugun keinu edo jarreraren bat matxista denik eta are gutxiago indarkeria denik, hain justu ere, gizarte androzentrista honetan estereotipoak oso-oso markatuta daudelako eta larregi barneratuta ditugulako. Eta horrek eraginda, guk geuk ere estereotipo horiek bultzatu edo askotan biltzen ditugu, emakumeok zein gizonak. Adibidez, gizona, laburbilduz, ez da

"Askotan, ez ditugu jarrera matxistak identifikatzen"

"Gizartea osatzen dugunon arteko elkarlana da gakoa"

emakumea, ez da homosexuala eta ez da umea ere. Hori da barnertutako duguna, hori da *onartuta* dagoena. Eta eurak *kartzela* horretan bizi dira. Estereotipoak ere horretarako daude, bata bestearekin konpentsatzen direnez, heterosexualitate da onartzen den orientazio sexual bakarra. Azken batean, zer da gizarteak zigortzen duena? Genero disidentzia (dibertsitatea), bereziki, gizonen maskulinitasun hegemonikoa ez betetzea. Bestalde, indarkeria matxista desagertzeko bidean, ezer gutxi lortuko dugu erasotzailearen



UBANE MADERA

zigor hutsarekin. Hezkuntza komunitatearen, gizartearen —gurasoak, hezitzaileak, medikuak...—, lan bateratuarekin lortuko da indarkeria mota hori —eta beste edozein— desagerraraztea.

Zeintzuk dira hezitzaileek kontuan hartzen dituzuen lan-ildo nagusiak ikastetxeetan?

Gurera haur bat datorrenean, gure helburua finkoa da: bizitzako egoerei erantzuten dakiten eta erantzuten dieten pertsona euskaldun kooperatiboak garatzen laguntzea. Ezinbesteko lana, berriz, honako hau: berdintasunean oinarritutako jarrerak praktikatzeko gelan, gelako dibertsitatea zaindu, sustatu eta genero-araua malgutzeko eta inkontzienteki egiten ditugun gauzen kontzientzia hartzea eta zuzentzea.

Emango zeniguke gurasoei zuzendutako bost aholku oinarriko?

Gurasoentzako aholkurik? Ez. Elkarlana da gakoa. Familia bakoitzaren eta hezitzaile bakoitzaren abiapuntuak kontuan hartuta, bidea elkarrekin eraikitzea. Horretarako, etengabeko heziketa eta hainbat elkarrekin harreman zuzena izan beharra dago: talde feministekin, Berdinu eta Arremanitz modukoekin... Gure kasuan, Harremanitz kooperatibak laguntzen digu zeregin horretan, profesionali prestakuntza eskaintzen, eta gure lana hobeto egiten laguntzen.



EROSKI

ARRASATE



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Azaroak 21 Bazkideentzat bakarrik
100 €-tik gorako erosketetan

Guztia BEZ barik *



Zure **EROSKI Club** txartelean izuliko dizugu hurrengo erosketetarako.

* Kuxtatik igarotzean, erositako produktuen BEZari dagokion zenbatekoa zure EROSKI Club txartelean sartuko dizugu berehalakoan.
- Sustapenetik kanpo daude testu-liburuak, esperientzia-sortak, telefono-errekarguak, E-pay txartelak (aurreordainketak), errebelatze digitala eta Bidasaoko sustapeneko produktuak.
- Adibidez, % 21eko BEZa daukan 100 euroko erosketak batengatik 17,35 euro sartuko dizkizugu EROSKI Club txartelean.
- Sustapen baldioduna hipermerkatu honetan.
- Edozein EROSKI supermerkatutan eta hipermerkatutan truka daiteke, bitxi-dendak, optikak eta zerbitzuguneak barne (auto-ordainketa erreila izan ezik), baita Eroski Bidaietan ere.
- Gainerako baldintzak salmenta-puntuaren kontsultatu.

Debagoienak lortu du gaikako bilketa maila altuenetakoa

Greenpeace gobernuz kanpoko erakundeak goraipatu egin du eskualdea

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Zortzi herri, eta hondakinak batzeko lau sistema, bakoitza bere ezaugarri partikularrekin.

Badituzte halako bi, baina, guztiak partekatzen dutena: hondakin bilketa sistema guztiak direla zelanbaiteko kontrolean oinarritutakoak, edukiontzietako txipa dela edo atez ateko sistema dela. Eta guztiak ematen duten emaitza oso deigarria dela: azken urteotako garapena ikusita udalherri guztietan lortu diren gaikako bilketa tasa altuak; Debagoieneko Mankomunitatearen datuen arabera, batez beste, %77 pasakoa da.

Horixe da Debagoieneko udalherrien gaur egungo erretratua, hondakin bilketa dagokionan –Aramaio kontuan hartu barik, Debagoieneko Mankomunitateetik kanpo kokatzen delako–.

Atez ateko purua

Sistemak banan-banan aztertuta, atez ateko sistema purua darabilte Oñatin, Antzuolan, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Eta sistema horrekin utzitako emaitzak honako hauek dira: lehen hiru udalherrietan %82tik gorako tasak erdietsi dituzte –Antzuolan %85

ere gainditu dute. Eta Eskoriatzan, berriz, %78 inguruko tasa eskuratu dute –nabarmen baxuagoa abuztuaren %76 inguru–, eta, aldiz, irailean ia %80rainokoa izatera iritsi da.

Mistoa

Bergaran, berriz, atez ateko sistema mistoa dute ezarrita; hau da, organikoa eta errefusa atez atez batzen dute, eta gainontzekoa edukiontzietatik baliatuta. Bergarako kasuan ere, emaitza azpimarratzeko modukoa da: %81 gainditu dute irailean.

Txipa duten edukiontzia

Arrasateri eta Elgetari dagokionez, edukiontzietan oinarrituta egiten dute hondakin gaikako bilketa, txip bitartez kontrolatutako edukiontzietan, alegia. Arrasateri kasuan, %80 inguru batzen dute gaika eta Elgetan %78 pasakoa da tasa hori.

Azkenik, eskualdeko herririk txikienean ere, Leintz Gatzagan, gaika batzen dituzte hondakinak, edukiontzia baliatuta, eta organikoaren bilketaz –bereizita jasotzen dute– eurak arduratzen dira, auzokonposta eta autokonposta baliatuta. Gatzagaren kasuan,

%77 baino gehiago jasotzen dute bereizita.


Aramaiori dagokionez, edukiontzia sistema ohikoa erabiltzen segitzen dute; edozein modutan, konpostaje-gunea jarri berri dute, nahiz eta bertako parte-hartzea borondatezkoa den.

Garapen handia

Datu horiek guztiak ikusita, nabarmen aldatu da azken bost urteotako emaitza Debagoieneko gaikako bilketa dagokionez. Izan ere, 2011n hondakin %32 batzen gaika Debagoieneko; 2012an, %41,76; eta 2013an, %55era iritsi zen tasa hori; 2014an, %59 izan zen; eta 2015ean, esandako moduan, %77 pasakoa izan da.

Era berean, Gipuzkoako bestelako eskualde batzuekin konparatzen joanez gero, bertako foru aldundiaren datuetan oinarrituta, iaz Debagoiena zen lurral-

GARAPENA



LAU URTEKO GARAPENA

Azken lau urteetan jasotako datuek erakusten dute nabarmen hobetu dela hondakin gaikako bilketa dagokion tasa Debagoieneko. Bikoiztu baino gehiago egin da 2011tik 2015era tasa hori. Jauzirik kualitatiboa, gainera, azken urtean izan da, %59tik %77 pasara iritsi da eta.

dean gehien birziklatzen zuen bigarren eskualdea, Sasietaren ondoren. Tasa baxuena, berriz, Debabarrenari dagokio. 2013an, %34,7 zen tasa hori.

Eskualdea goraipatuta

Bada, datuok esku artean, oraingo astean Greenpeace gobernuz kanpoko erakundeak Julio Bareak

zoriondu egin du Debagoiena emaitza horientatik. "63.000 lagunek, euren konpromiso eta inplikazioarekin, Europako birziklatze-maila altuenetakoa lortu dute, hondakin ia %78 gaika batuta", azpimarratu dute. Debagoiena Zero Zabor taldetik artikulatu horrekin duten "adostasuna" erakutsi dute.

Bertakoak eta atzerritarrek batzeko, bazkariak domekan

MAITE TXINTXURRETA | DEBAGOIENA

SOS Arrazakeriak bultzatutako Bizilagunak programaren laugarren edizioa egingo dute etzi, domeka. Bertako familia eta jatorria atzerrian dutenak mahaian bueltan elkartuko dira bazkalorduan. Familia bietako baten etxean egingo dute otordua, gertutasun handiagoko lortzeko asmoz. Ezaugarri soziokultural desberdina duten pertsonen arteko hartu-emanak bultzatzea eta estereotipoak eta uste faltsuak apurtzea du helburu ekimenak.

Aurten, "Euskal Herria helmuga baino gehiago, harrera lurraldea dela" aldarrikatuko dute. Debagoieneko bost herritan egin dute bat ekimenarekin: Arrasaten, Bergaran, Antzuolan, Aretxaba-

letan eta Oñatin. Zazpi bazkari egingo dira, gehienak herritarren etxeetan, Aretxabaletako kasuan izan ezik; han, 50 herritarrek, bertakoek zein kanpotarrek, Murualde elkartearen egingo dute bazkaria. Debagoieneko 80 pertsonak baino gehiagok hartuko dute parte Bizilagunak egitasmoan. Hainbat jatorritako jendea izango da: euskaldunak, mexikarrak, pakistandarrak, nepaldarrak, sahararrak, nikaraguarrak, marokarrak eta senegaldarrak, hain zuzen. Bizilagunak gain, dinamizatzaileak ere izango dira hainbat etxetan. Horiak, antolaketa lanean aritzeaz gain, familiak aurkezteaz arduratuko dira, eta, beharrik balego, bazkarian zehar giroa gozatzeko lagunduko dute.

Ez da medikua, baina gure osasuna zaintzen du.

Ez da ingeniaria, baina gure paisaia zaintzen du.

Ez da irakaslea, baina gure kultura zaintzen du.

Hori da geurea

Horrelakoak dira gure ekoizleak

Profesional handiak, guretzat elikagai osasungarri, samur eta naturalak ekoizteaz gain, gure osasuna, paisaia eta kultura zaintzen dutenak.

Horregatik, elikagai hauek kontsumitzea ona da denontzat.

Goi mailako kalitatea eta jatorri deitua duten elikagaiak

Logos: IK, EUSKAL BASERRI, IDIAZABAL, Birkaiso Txakolina, EUSKAL JAUZILARITZA GOBERNO VASCO, etc.



Bizilagunak ekimenaren bueltan, bertako baten etxean bazkaltzen. | GOIENA



"Fagor birsortu" dela ospatzeko egun osoko jaia antolatu du CNA Group-ek

Bihar, zapatua, izango da, Arrasaten, adin guztietarako moduko ekintzekin, eta herritar guztiak deitu dituzte urteurren festan parte hartzera

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Fagor CNAk "langileak, beren familiarak eta herritarak" batu nahi ditu bihar, azaroak 21, elkarrekin ospatzeko "Fagor Etxetresnek ibilbide berria" hasi zutela urtebete pasa dela CNA Group-en eskutik, enpresa horrek Fagor Etxetresnak izan zena erosi zuenetik. Hortik dator biharko (zapatua) Fagor CNA Group Eguna izeneko jaieguna antolatu izana. Hain zuzen, honako hau ospatu nahi du CNA Groupek: "Fagor birsortu egin da, merkatura indarrez itzuli da eta helburuak betetzea lortu du". Horretarako, adin guztietarako ekintzak antolatu ditu Arrasaten ospatuko den egun horretarako.

Konfiantza "eskertu"

Kataluniako CNA Groupek 2014ko uztailearen 29an bereganatu zituen Fagor Etxetresnak izan zenaren aktiboak, eta aro berri bat hasi. CNA Groupen esanetan, lehen urteurren hau "oso garrantzitsua zein berezia da" proiektua osatzen duten guztientzako. "Are berezia goa oraindik, dedikazio eta gogo handiz lan egin duten eta proiektu berri honetan biziki inplikatu diren pertsona guztientzat".

Izan ere, enpresak gaineratzen duen moduan, "aipaturiko proiektu honetan, pertsonak -langileak, banatzaileak zein bezeroak- fun-



Zea Mays taldeak kontzertua egingo du. | IMANOL SORIANO

tsezkoak izan dira". Zapatuko festa egunean, "esfortzu eta konfiantza hori" eskertu nahi ditu Fagor CNA Groupek.

Ordezkarri politikoekin

Goizeko ekitaldiak langile eta senideentzat antolatu dituzte; horiek 10:30ean hasiko dira enpresaren aurkezpenarekin eta jarraian, fabrikara bisita gidatua egingo da. Bertan izango dira, besteak beste, Arrasateko alkate Maria Ubarretxena, Eusko Jaur-laritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun sailburu Arantxa Tapia eta Gipuzkoako ahal-dun nagusi Markel Olano.

Bisita amaitzean, 11:30ean, adierazpen publikoak egingo dituzte Fagor CNAko ordezkari Francisco Martinek eta ordezkari politikoei komunikabideen aurrean. Haurrentzat ere hainbat ekintza daude aurreikusita, hala nola ipuin kontalariak, magia eta gailera tailerra. Goizeko jarduerak amaitzeko, luntxa eskainiko zaie parte-hartzaile guztiei.

Antolatzaileek diotenez, "guztien gozamenarako ekintzak antolatu nahi izan" dituzte. Horretarako, arratsaldean, Arrasateko plazan, herritarrek hainbat postu izango dituzte bertako produktuak erosi eta dastatu ahal izateko eta aisialdiaz eta kirol ekintzez gozatzeko. Bukatzeko, Live! Fagor jaialdia antolatu dute; 18:00etan hasiko da eta Black Beauty, Galerna eta Zea Mays musika taldeen kontzertuak izango ditu.

EGUN OSOKO EGITARAUA

10:30 Aurkezpena eta Fagor CNA enpresan bisita gidatua, Arrasaten.

► Umeendako magia, ipuin kontaketa, gailera tailerra...

► Luntxa parte-hartzaile guztientzako.

17:00 Herriko Plazan, hainbat postu: dastatzea, salmenta, kirola...

18:00 Live! Fagor kontzertuak

► Black Beauty

► Galerna

► Zea Mays

Fagorrek herritar guztiak parte hartzera gonbidatu ditu, "ilusioz eta maitasunez antolatua izan den urteurren festan".

Bideoa egin dute, toberako epaia ez delako bete

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Iazko toberan On Prudentzio Piper Hauts epaileak emandako epaia ez du bete Aretxabaletak; hori dela eta, Eskoriatzak erabaki bat hartu du. Hala, aurtengo toberarako bideotxo egin dute Eskoriatzak eta Aretxabaletak, motorrak berotzen hasteko eta 2015eko toberarako jendea animatzen hasteko. Bideoa helbide honetan dago: www.youtube.com/user/dtobera.

Epaileak emandako epaia hau zen: "Herriko Araba ibilbideari izena aldatu eta Eskoriatzako ibilbidea jartzea. Horrez gain, 2015eko San Pedro egunean, ekitaldi ofizial bat antolatu, eta Eskoriatzako bandera jarri beharko dute Kurtzebarriko gurutze puntan". Hori osatzeko, aretxabaletarrek eta eskoriatzarrek giza katea egin behar zuten.

Italiako Valmex enpresaren %40 erosi du Orkli kooperatibak

Ordiziako Orkli kooperatibak, Mondragon Taldeko enpresa eta zuntz zeramikoko erregailu fabrikazioan espezializatuak, Italiako Valmex enpresaren %40 erosi du. Ur-trukagailuak egiten ditu horrek. Mondragon Korporazioaren esanetan, operazio horrekin, "Orklik bere posizioa finkatzen du eta ur-beroketako erreferente bihurtzen da".

Eskubideen aldeko mahai-futbol txapelketa izango da

Ino be Libre taldeak eskubide zibil eta politikoen aldeko mahai-futbol txapelketa antolatu du Irati tabernan bihar, zapatua. 17:00etan hasiko da txapelketa, bikoteka, bost euro taldeko, eta parte-hartzaileek tabernan egon beharko dute 16:45ean. Antolatzaileek sarria zein izango den ez dute aurreratu baina agindu dute "bikaina" izango dela.

Euskarazko webgunea duten enpresa gehien, Debagoienean

Eustat-en datuen arabera, bailara goiko postuetan dago IKTen erabilera

L.K. | DEBAGOIENA

Interneten erabilera, eta zehazki euskarazko erabilera, aurreneko postuetan jarraitzen du Debagoienak. Eustaten datuen arabera, salerosketak elektronikoki egiten dituzten enpresa gehien dituen eskualdea da Debagoiena: %38, Euskadiko batez

bestea (%28,8) baino nabarmen gorago. Bestalde, webgunea duten enpresen artean euskaraz dutenen portzentaje handiena du Debagoienak Euskadi osoan: %74,3; EAEn batez bestekoa %48,6 da. 10 langile edo gehiagoko enpresak zenbatu dira estatistika hori egiteko.

Salerosketetan ere, lehena

Salerosketak elektronikoki egiten dituzten enpresen batez bestekoa, Euskadin, 2014koa baino 1,03 handiagoa da, eta 2010ekoa baino 5,07 handiagoa. Beste muturrean dagoen eskualdea Enkarterriak da. Hango enpresen %5ek egiten dituzte salerosketak elektronikoki.

DATUA

%49

ENPRESA

EAEn, webgunea duten enpresen ia erdiek dute euskaraz; bailaran, %74k.



NISSAN PULSAR BERRIA

12.900 €* TIK HASITA

BEHAR DUZUN TEKNOLOGIA, BEHAR DUZUN UNEAN ZEHAZKI.



ESPANIAN EGINDAKOA

3 URTEKO MANTENTZE-LANAK, GARANTIA ETA LAGUNTZA

ARABAUTO
Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Álava - 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>

Kontsumo mistoa 5 l/100 km. CO₂ emisioak: 117 g/km.
*Penintsulan eta Balear uharteetan gomendatutako PSPa, honako hauek barne: FAP, garaioa, Nissan Assistance, sustapen-deskontua, PIVE 8 plana, BEZa eta ZGGZB Espainiako merkaturako (baliteke aplikagarria ez izatea zure komunitate autonomoan). 3 urteko mantentze-kontratua (kilometro kopuruaren mugarekin). Sartutako berriak: Bermeo, Liburuaren eta Mantentze Zurtagiriaren arabariko estandarak dira. Salbetsuta daude Flotak eta enpresak. Nissan PULSAR Visia 1.2 DIG-T 115 ZP (85 kW) eskuizko erosten duten banakoentzat eta autonomoentzat balio du eskaintzak. Hain izenean dagoen ibilgailu erabilia eraman behar dute eta RCI Banque SA bankuko Espainiako sukurtsalaren Magic Plan 3D erabilita finantzatu behar dute. Gutxiengo iraupenaldia 24 hilabetekoa izango da, gutxiengo sarerra %0koa, eta gehiengoak %40koa. Pack Auto oparia barne; (Auto TRCF 600 € asegurua urtebetez; frankia-asegurua 2 urtez; eta pneumatikoen asegurua 2 urtez/30.000 km-rako). Eskaintza hau ez da bateragarria izango beste kanpaina batzuekin eta hilabetearen amaierara edo PIVE 8 plana agortu arte egongo da indarrean (lehenago gertatzen dena). Informazio gehiagorako, joan gertuen duzun kontzesionariara. Bietaratuak modeloa: Nissan Pulsar Tekna berris.

'Bakea eta elkarbizitza' aldarrikatu dituzte

Parisko atentatuak gaitzesteko kale agerraldiak egin dituzte oraingo astean eskualdean; Arrasatekoan gerraren kontrako mezua partekatu gura izan dute

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Arrasateko udaletxe aurrean biribilean jarrita, hainbat hizkuntzatan *Bakea* hitza irakur zitekeen kartelak eta *Gerrarik ez* zioten beste batzuk erakutsi zituzten martitzeneko agerraldian. Baleikek eta Emakume Musulmanak Euskadin Integrazteko Elkarteak (IMME) dinamizatu zuten kontzentrazioa, eta deiarekin bat egin zuten Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak, ordezkari sozialistek, Elkarheitzien taldeak, Arrasateko zein eskualdeko beste hainbat eragilek eta askotariko gizon-emakumeek: bertakoek, marokoarrek, sahararrek



Ordezkaritza zabala, martitzeneko agerraldian, Arrasaten. | GOIATZ ARANA

eta pakistandarrek. Hala, Igor Urizar Baleikeko kideak zera azpimarratu zuen: "Arrasate herri anitza da eta hori aberastasun bezala eta gizartearentzat onura dela eta une hauetan denok bakearen eta elkarbizitzaren alde eta biolentzia guztien kontra gaudela erakustea da garrantzitsua".

"Gaizki bizi dugu gertatzen ari dena, ez dugulako nahi jendeak pentsatzea musulmanak horrelakoak garenik; guk estimatzen dugu bizitza eta baloratzen ditugu personak", adierazi zuen, berriz, Djamilia Zereiby, IMMEko kideak.

"Terrorismoa bukatu behar da, gauzak hitz eginez konpontzen dira, ez du balio astebetera gertatu dena ahazteak; astebete barru gogoratu beharko ginatke Parisen gertatu denaz, eta Sirian, Iraken, Somalian, Malin, Nigerren edo Mendebaldeko Saharan gertatzen ari denaz. Hori guztia bukatu behar da, izan talde terrorismoa, estatu terrorismoa edo dena delakoa. Nahi duguna da terrorismoa behin betiko bukatzea munduko leku guztietan", gaineratu zuen Saleh Salek, Debagoieneko Saharar Taldeko ordezkariak.

Postre lehiaketaren estreinaldia eta gozo dastatzea

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

"Lehen aldia izateko, ondo joan da izen-ematea; etxean eginda eraman behar da postrea; karpata bat izango dugu eta bertan aurkeztu beharko da postrea, eta epaimahaiak egingo du balorazioa. Badabilta eguraldiarengatik abisuak ematen, baina, hasieran, aurrera doa ekimena", esan du Ana Herizek, Mankomunitateko Turismo arloko arduradunak bihar, zapatua, eskualdean lehen aldiz egingo den postre lehiaketaren gainean. Arrasaten da hitzordua, Seber Altube plazan, eta egitaraua, honako hau: 11:00etan gozoen dastatzea, Debagoieneko Oinarrizko Lanbide Heziketa ikasleen eskutik; 11:30ean hasiko da lehiaketa eta 12:30ean banatuko dituzte sariak.

Mozambique iparraldeko bizilagunen arnasmunerako eta biziraupenerako Mundukidek duen garrantzia, bertatik bertara

- ▶ Mundukideko hainbat kolaboratzaile fundazioak Mozambiken garatzen diharduen proiektua ikusten egon dira hamabi egunez
- ▶ Erakunde horren lana ezagutarazteko eskualdean ere badira ekimenak; datorren egunean, Ulma Taldean, esaterako

KOMUNITATEA GOIENA | MUNDUKIDE FUNDAZIOA | DEBAGOIENA

Mundukidek Mozambiken lantzen eta garatzen diharduen programa bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute fundazioko patronatuko hainbat kidek, hainbat kooperatibatako ordezkariak, boluntariok eta Mundukideren zenbait bazkidek.

Izan ere, Mundukideren garapen-proiektu handi, luze eta sakonenetako bat da Mozambiquekoa, eta egun, erakunde horrek presentzia dauka iparraldeko Marrupa, Montepuez, Majune eta Balama distrituetan. Lurralde horietan, eta nekazaritzaren garapenaren bitartez, urte urte familia askoren bizitza-kalitatea nabarmen hobetzea lortzen ari da.

Mundukideko kideek emaitzak euren begiekin ikusteko parada izan zuten abuztuan hamabi egunez, eta handik ekarri zuten ondorioa garbia izan da: Mozambiqueko proiektua oso bide onetik doa eta merezi izan du azken urte haietan bertan inbertitutako lan eta ahalgin guztiak".

Ulma Taldean, egunean

Bada, Mundukideren lana ezagutarazteko argazki erakusketa antolatu du fundazioak kooperatibetan. Eta horri amaiera emateko, egunean, azaroaren 26an, Miren Amurritza bertsolaria izango da Ulma Taldean, Oñatin -17:30ean, Gara-galtzan-, bere saioa egiten: *Kapulana bat zintzilik*. Amurritza bera ere izan zen Mozambiken abuztuan.

CRISTINA ETXENAGUSIA
HARREMAN GKE



"Badute etorkizuna. Hori antzeman nuen bertako ortuak ikusi eta nekazariak ezagutu nituenean. Bizirauteko esperantza oinarritutako etorkizuna da, baina biziraupen sendoan oinarritutakoa. Proiektua dagoenetan ondo dagoela iruditzen zait. Nekazarietako subiranotasuna emateko proiektua da, eurak euren jabe izan daitezen pentsatutako proiektua".

JULEN MADARIAGA
MAIER KOOP.



"Prozesu honetan garrantzitsua da familia eta komunitate guztiak arrantza egiten ikasten ari direla. Gaur egun gurasoek ikasten dutena seme-alabek jasoko dute bihar, eta denboran zabalduaz joango da inguruko talde-lana. Guk geuk beste pertsona batzuek arrantza ikasi dugun bezala eta gure kooperatibak beste kooperatiba batzuen laguntzarekin indartu diren bezala, aukera ederra dugu Mundukide lankidetzan egiten ari den lanari babesa emateko".

AIORA PADILLA
HIRUATX GKE



"Beharrak identifikatu dira, eta horien arabera diseinatu da urte hauetan zehar programaren kreditu sistema. Hobekuntza teknologikoa bultzatzen ari da ekoizpenean. Esaterako, grabitate bidezko ureztapen sistemak, ongarrrien erabilera edo fruta-arbolentzako txertaketa. Honek, ordea, inbertsio bat eskatzen du baseritarren aldetik. Haziak erosi egin behar dira, ongarririk, motoponpak...".

IÑAKI ELKANO
MAPSA KOOP.



"Haurrek ez dute ia jatekorik, ez jantzirik... Bizirauteko nekazaritza bakarrik dute, eta ez da nahikoa ondo elikatzeke. Ez dago benetako osasun sistemarik, ezta irakaskuntza serioerik ere. Mundukideren laguntzari esker, laborari ugari ekoizpena hirukoiztu egin dute. Baina ez da nahikoa. Gure laguntza beharrezkoa da eta mendebaldeko duen ardura ere oso handia da, baina gobernuak lan egiten jarraitu behar du, kanpoko laguntzek ezin dute dena ordezkatu".

IKER CARRASCO
BOLUNTARIOA



"Proiektu oso interesgarria eta alde zuzeneko uste onua baino asmo handiagoak aurkitu ditut. Oso argi dago zein den helburua, eta helburu horretara heltzeko egin behar den kudeaketa. Ikusitakoaren arabera, proiektua oso ondo bideratuta dagoela esango nuke, eta dudarik ez daukat, zorteak pixka bat laguntzen badu, lortutako emaitzak oso nabarmenak izango direla".

AINARA ANSA
ORKLI KOOP.



"Mundukidek kudeatutako baratzeetan emakume asko ikusi ditugu lanean, bai gazte, bai eta adinekoak ere, eta poza eman dit; izan ere, eurentzat diru-erori garrantzitsua da. Eta leku gehienetan bezala, ekonomikoki zenbat eta independenteago izan, orduan eta aukera gehiago ditu emakumeak benetako berdintasuna lortzeko. Hala ere, alor horretan zeregin handia dago egiteko. Emakumeak gizonezkoak baino okerrago daude".

IBON ANTERO
MUNDUKIDEKO KIDEA



"Enpresa transnazional eta finantza-kapitalak lur erosketara masibo eta nekazaritza industrialera bultzatu nahian ari dira, nekazari bako nekazaritza. Mundukidek sustatzen ari den nekazaritza ereduak nekazarien lana du zutabe. Zenbat eta gehiago zabaldu eredu hori, orduan eta atxikiago egongo dira nekazariak lurra eta gaitasun handiagoa izango dute kanpoko mehatxuei aurre egiteko".

ANABEL IBEAS
MUNDUKIDEKO BAZKIDEA



"Umeak negarrez ez ikusteak arreta eman dit. Seguru aski, gertu daude urte gutxi barru aurre egin beharreko bizi baldintza gogorrei aurre egiteko. Lehen Mundua nagusiz betetako mundua da, hori bai, erosotasunez inguratutako mundua. Eta Hirugarren Mundua umez beteta dago, pozez, barrez, energiarekin, indarrez, espontaneotasunez, freskuraz eta xalotasunez gainezka dauden umez beteta. Hori bai aberastasuna".

ZABALIK



IÑAKI ETXEBESTE
goiena.eus/komunitatea/

Nahiko zintuzket, urruti

Etxelagun batek eman zigun abisua ostegun batez. Hiruzpalau urteko hartza gure auzunera gerturatu zen, udazkeneko azken bazken edo negurako aterpe bila, batek daki.

Etxean bi sentimentu azaleratu dira: batetik, basapizti ikoniko bat etxe aldamenen izateak zirrara piztu digu; bestetik, gure ongizatea baldintzatu ahalko lituzkeen beldurrak azalerazi dira. Paseoan gaudela erasoko gaitu? Funtsik badu beldur honek?

Agintariek hartu dute erabakia, Uppsalan jada ez da hartzik. *Desagerrarazi* egin dute. Aurrez, alferrik erabili dituzte gomazko pilotak eta droneak hura beldurtzeko.

Ipar hemisferioko leku askotan elkartzen dira hartza eta gizakia, baina ez da beti emaitza berarekin amaitzen. New Jersey 467 biztanle daude kilometro karratuko, Uppsalan (Suedia) 95 eta Euskal Herrian 143. Lehen eremuak 0,13 hartz ditu kilometro karratuko, azkeneko biek bat ere ez. Nafarroan 1978an erditu zen hartz bat azkenekoz, eta *Camille* zaharraz ez dakigu ezer 2010a ezker.

Suediako hartzaren oihartzun mediatikoa itzaltzen doala, gure basoetako harrapari handiei buruzko galderaz bete zait burua. Inguruan nahi ditugu? Nola? Zenbat? Zein baldintzatan? Prest da gizartea? Historia hurbilak emana du erantzuna Europan: "Nahiko zintuzketegu, baina urruti". Urruti ez bada, hesiz inguraturik edo gizakirik bizi ez den ingurune baten. Hauen kudeaketa e hizara bideratuta delarik, edo, bestela, turistak erakartzeko.

Otsoek aspaldi hasi zuten euskal basoen birkonkista; hartzak, aldiz, nabarmen ari dira ugaltzen mendebaldean. Orain arteko eztabaidek ez dute aurreko galderak erantzuten lagundu, behar bada, gizartearen sektore txiki batzuetan kokatu direlako. Baina aurreko astekoak nabarmen erakutsi dit eztabaida gure ongizatean dagoela, ea prest gauden hori beste harrapariekin elkarbanatzeko.

Hesiz inguraturik edo gizakirik bizi ez den ingurune baten...

USTEAK USTE

JOKIN BEREZIARTUA | jbereziartua@goiena.eus

Herri barik geratu da Zaldibar

Argi Ibili, Fosforos, Irati STS, Zuloak, Sokoakoak, Koka Juniors, Txeyenex, Potrosorri... Eta horrela 80 talde izateraino, hogeina taldeko lau multzotan banatuta. Hori zen 1994-1995 denboraldiko Zaldibarko Areto Futbol Txapelketak bizi zuen egoera. Gutxi izango ziren garai hartan Zaldibarren edo Iturripen -40 partidu astebururo!- jokatu ez zuten futbolzale arrasatearrak. Ez dut uste futbolarekiko zaletasunak nabarmen behera egin duenik, baina 54. edizioa hasi berri da eta hamar talde daude, hori bada alde nabarmena. Eta eskerrak batzuk oraindik antolatzeaz arduratzen direla. Herria zen Zaldibarren oinarria, baina herri barik geratu da, eta baliteke azkena izatea. Hala bada, lastima.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Boluntarioak 200 eurotan

Lierni Gabilondo Ugarte
Bergara

Joan zen ostiralean GOIENAN irakurri nuen: *Hondakinen gaineko kontsultan boluntario izateko dei egin dute*. Orduetegiak, epea egun berebetean bukatzen zela, non izena eman, eta abar. Eta zenbat diru ordaindu behar dutenari buruz, ezer ere ez.

Hurrengo egunean, entzun nuen Udalak 200 euro ordaindu behar zituela hondakinei buruzko kontsultan mahaikide aritzeagatik, eta hiru gauza pentsa nituen: askoz ere interesanteago zela boluntario izatea, diru gehiegi zela egun batean mahaikide aritzeagatik eta ez dutela ondo informatu.

Udaletxean esan didate web orrian, prentsan eta iragarki tauletan ipini dutela informazioa, baina nik web orrian bakarrik ikusi dut. Kalean galdetu dut eta jendeak badaki udaletxea boluntario bila dabilela, baina inork ez daki ezer diruari buruz, hedabideetan ez baita horretaz ezer esan edo

ezer esan nahi. Bakoitzak nahi duena pentsatzeko.

Norbaitek apuntatu nahi badu, ahaztu. Bost eguneko epea egon da eta bukatu da.

Atzo erabili nuen lehenengo aldiz Bergarako Udalaren postontzia kexa bat ipintzeko: informazio falta egon dela eta diru gehiegi iruditzen zaidala ordaintzen dutena. Gaur, berriz, lehenengo aldiz idazten dut GOIENARA, haserre nagoelako eta zuekin konpartitu nahi dudalako.

Kilometroak, herritarrek

Ekaitz Aranberri
(Kilometroak 2016ko koordinatzailea)
Bergara

Kilometroak 2016 abian da. Bergarako Aranzadi Ikastolan uda aurretik dihardugu lanean: logotipoa, leloa eta arropak aukeratzen; horiek aurkezteko ekitaldia prestatzen; batzordeak abian jartzen: Irteerak, Denda, Komunikazioa, Ekonomia, Zirkuitua, Muntaiak...

Aurkeztu genuenean esan

genuen herriarekin antolatu nahi dugula Bergarako Kilometroak. Herritarrek eurek antola dezatela nahi dugula, eta horretan ari gara. Horregatik, Usurbilgo Udarregi ikastolako eskutik jaso genuen lekukoa herri ordezkariari, alkateari, eman zion Aranzadi Ikastolako lehendakariak, herriaren etxean, udaletxean gordetzeko.

Laster jarriko gara harremanetan herriko talde, elkarte, eta abarrekin, Kilometroak antolatzeko gonbita egiteko. Dena den, herritar orori dei egin nahi diot antolaketan modu batera edo bestera parte hartu nahi badu, gurekin harremanetan jartzeko, telefono honetara deituta: 943 76 90 71. Ikastolako (www.aranzadiikastola.org) edo Kilometroetako (www.kilometroak.eus) webgunetako baten izena eman.

Eskerrak eman nahi dizkiet azaroaren 6an ikastolako jolastokian egin genuen jaialdi arrakastatsuan modu batera edo bestera parte hartu zuten guztiei; baita bertaratu ziren herritarrei ere. Demasekoak zaretelako, zuei esker, zuekin, egingo dugu Kilometroak 2016.

Karakterreak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkarte
Otarora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ubane Madera

Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Leire Kortabarría
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martín, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziabar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otarora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-88/2004
ISSN: 2174-369X
Tirada: 4.050 ale
Difusioa: 3.893 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiako Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Mila esker, Aramaio!

Maitane Gomez de Segura
Aramaio

Bada jada hilabete bat Saharako errefuxiatu guneetan inoizko uholderik handienak izan direla. 25.000 saharar etxerik, eskolarik eta ospitalerik gabe gelditu dira. Gertaera gogorra izan arren, egoera katastrofikoa izan arren, gure komunikabideetan oihartzun gutxi izan du albistekak.

Orain dela 20 egun, Aramaion, Jubilatuen Eguna ospatu zen. Saharan gertatutakoa azaltzeko postutxo bat jarri genuen, eta, bide batez, deialdi bat egiteko aprobetxatu: arropak, medikamentuak, jostailuak, mantak, lapikoak... jasotzeko deialdi bat. Jendetza pasatu zen postutxotik interes handia azalduz eta poltsikotik txanponak ateraz Saharako banderaz apainduta zeuden itsulapikoak betez.

Deialdi eguna ere iritsi zen eta Saharako uholdeak elkartasun uholde bihurtu ziren Aramaioko udaletxeako arkupeetan. Hainbat buelta eman behar izan genituen udaletxeak utzitako lokalera, furgoneta behin eta berriz betetzen zitzaigulako.

Ikaragarria izan da Aramaioko herriak emandako laguntza: eskerrak eman nahi dizkiogu Udalari, batez ere, Cristinari eta Lierniri, hasiera-hasieratik erraztasunak eman dizkigutelako gure nahiak aurrera eramateko; eskerrak baita San Martin eskolari, farmaziako Maiteri, Gazte Asanbladari, kuadrillako bazkaria izan eta sobratutako dirua Saharara bidaltzea erabaki duen kuadrillari, Mireni, Nuriari, Gorkari, Edurneri, Naiarari... eta sahararrak laguntzeko borondatea izan duzuen guztioi. Mila esker, Aramaio!

Zeintzuk dira aukerak?

Aitor Zubizarreta
(Eskoriatzako EH Bilduren izenean)
Eskoriatza

Ondo dakigun moduan, azaroaren 29an galdeketa bat dugu Eskoriatzan. Baina zeintzuk dira eskaintzen zaizkigun aukerak? Norberak aukeraketa egokiena egin dezan, benetako informazioa zabaltzea beharrezkoa da, eta hori da egin ez dena. Lerro hauek idazteko orduan, galdeketarako 11 egun falta direnean, oraindik ez dakigu zer dagoen aukeran ditugun proposamenen atzean.

Zertan datzan garbi daukagun aukera bakarra egun martxan dagoena da, banakako edukiontzien bidezko bilketa, atez atekoa. Birziklatze tasa bikainak ahalbidetu dituena, %80 inguruko bilketa tasekin,

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

gure eskualdea Europan praktika onen adibide bezala jarri duena, Greenpeace bezalako erakunde ekologista ezagunak txalotzen duena eta, nor bere etxean egiten duen bereizte lan onaren ondorioz, biltzen den gaikako hondakinen kalitaterik onena lortzen duena, honek dakartzan diru sarrerekin.

Baina, beste bi aukerak? Ezartzekotan nola garatuko litzateke gure herrian?

Edukiontzi kolektibo eta banakoen –sistema mistoa deritzona– bidezko bilketa sistema nola ezarriko lukete gure herrian? Bergaran bezala, atez ate organiko eta errefusa bilduz eta edukiontzi kolektiboen bidez papera, ontzi arinak, beira eta arropa? Edo, Ormaiztegin bezala, atez ate errefusa, organiko gehiena konpostaren bidez eta 4 edukiontzitan beira, papera, ontzi arinak eta organikoak? Bi eredu hauetan gertatzen den bezala, jarraipen egokia eginez, lortu daitezkeen bilketa tasak onak izan daitezke, arazoa sailkaturiko hondakinen kalitatean egon liteke.

Eta edukiontzi kolektiboen –5. edukiontzia deritzona– bidezko sistemaren atzean? Zer jarriko dira, kontrolik gabeko 5 edukiontzi? Edo, Arrasaten dagoen bezala, errefusa eta organikoak biltzeko edukiontziak txip batekin kontrolatuko dira? Jarraipena egingo da edukiontzi horietara zer botatzen den aztertzeko? Honek esan nahi du nor bere etxean, bai ala bai, orain arteko bereizketa egiten jarraitu behar duela?

Galdera gehiegi eta erantzun gutxiegi!

Omenaldia

Yon Sarasketa
Elgeta

Beti gustatu izen jata musikia; dirijitzia, batez ere!

Elgetan jaio nintzen –orain ez naiz Elgetan bizi, Hondarribiko Zubieta zentroan baizik–; txaranga etortzen ziren bakoitzian, han egoten nintzen ni, nere batutarekin, eta oso ondo dirijitzen neban; bai, horixe!

2015eko urriaren 31n oso esperientzia polita bizi izan naban; Alexek, nere lagunak, beste batzukin batera, omenaldi bat prestatu zosten. Herrixan hainbat aktibitatean parte hartu izanagatik, omenaldia.

Futbolian, pelotan, herriko jaixetan, tanborrada eta txarangen zuzendaria, monagiloa, elizako abesbatzaren partaide, poteatzaile, berriketalar... Eta guzti hori, elgetarrek, beraiekin batera, beste parte hartzaile bat bezala, onartu nabelako beti, neri gustatzen jatazen gauzetan.

Orain, bizitzaren beste etapa bat bizitzen ari naiz, adinak ez du barkatzen, baina larunbat horretan, omenaldi egunian, oso pozik sentitu nintzen dultzaineruen musika entzuteaz plazan, betiko Yon sentitu nintzen, ha zen poza! Musika notak, tonoa... guzti hori botikarrik onena izan zan.

Nere profesionaltasuna atera naban, ete musika neri gustatzen jatan bezala zuzendu naban, *como un hombre hecho y derecho* –nik asko erabiltzen doten esaldi bat–.

Opariak jaso nittuan. Batuta berrixak, herriko festetan hainbat momentu konpartitu nittuen pertsonengandik... kamisetak, txapelak...

Nere omenaldia zela eta denak laga notzen jazten, nahiz eta neri ez gustatu arropa probatzen ibiltzea.

Serixo bai, baina errespetuzko eta profesionala, hola egon nintzan.

Eskerririk asko, Alex, eta zure laguntzaile guztioi, nitaz gogoratu zaretelako eta horrelako momentu berezia bizi izanarazi dostazuelako.

Nik *a tope* disfrutatu naban –nere beste ohiko esaldi bat–.

Gainera, suerte handia izan ginun eguraldixakin, neri ez jata-eta gustatzen eurixa.

Azkenian, ez ginun euki txarangarik –azkenengo ezbeharrak beti egoten dira–, baina egunaren argitasuna, omenaldiaren xumetasuna, nere naturaltasuna eta han zegoen jendetzaren estimazioa sentituz, horrek egin zuen ekitaldi hunkigarri bat.

Mila esker.

Deabruaren mirariak

Jon Otero Urizarren
Arrasate

Ez naiz giristino, baina balio du adibidetzat jartzeko. Josu (Jesus) egon omen zen 40 egun basamortuan. Han zegoela, hitz egin omen zion deabruak; hots, mirari ahots bat azaldu zen. Deabruarena. Esan zion mirari

ahots horrek Josuri: "Jarraitzen banauzu eta gurtzen, nire erreinu handi hauek emango dizkizut". Erreinuean irudi bat ikusi omen zuen Josuk. Josuk deabruari erantzun zion ezetz, eta hor geratu zen gauza.

Deabruaren mirarien beste froga bat: juduek zeharkatzeko zabaldu omen zen ibaia. Eta gero egiptoarrak hasi ziren gurutzatzen. Orduan, itxi egin ziren ibaiaren urak, eta egiptoarrak akabatu. Zergatik itxi zituen urak, egiptoarrak barruan zeudela? Ez zituen egiptoarrak barkatu, hil egin zituen. Deabruaren beste mirari bat. Ez naiz kristau, baina adibide bezala balio dute.

Berdin gaur egun. Telebista, irratia, disko trinkoa eta MP4 deabruaren mirariak dira. Eta ordulari digitala, mugikorra, ordenagailua, kutxa automatikoa-eta Jainkoaren alde onaren mirari dira.

Azaroaren 25ean denok plazara!

Amaia Azepeitia eta Rebeka Maestro
(Debagoieneko Emakumeen Mundu Martxaren izenean)
Debagoiena

Paradoxikoki, bakean bizi garen gizarte honetan, gure eguneroko jardunean indarkeria bizitzera ohituta gaude, eta *normaltasuna* deritzogun horretan indarkeriaren punta ezberdinak ezkutatzen dira.

Indarkeria, desberdintasunen sistema osatzen duen alderdi bezala, ikusezin mantentzen da –forma gehienetan– gaur egun ere. Indarkeria gauzatzeko orduan eragina duten alderdi pertsonalei gehiegizko garrantzia ematen zaie; hau da, indarkeriazko egintzen kausak, bereziki, pertsonalak direla sinestarazi digute, eta ez sozialak.

Indarkeria matxistaren aurrean, biktimak erasotzailea salatze eskubidea daukala, edota eraso baten berri daukagunean ez isiltzeko eskatzen diguten mezuak hainbat esparrutatik jaso izan ditugu. Baina berau salatzeak hamaika traba dakartzkigu.

Oraindik ere, sinistu/ez sinistu jokoan murgildurik gabilta, eta sinesgarritasunak hainbat ezaugarri eta topikoren menpe jarraitzen du. Emakumea hilik aurkitu behar da (edo ia), birjina izan behar du (edo ia)

edota erasotzailearekiko inongo keinu positiborik erakutsi ez zuela frogatu behar du. Ez al da nahikoa ezezko bati entzungor egitea pertsona baten askatasuna urratzen gabiltzala konturatzeko?

Ez da kasualitatea emakumeon sinesgarritasuna, bizimodua eta erabakia etengabe zalantzan jartzen duten jarrerak nagusitzea. Sistema oso batean makineriaren beste emaitza bat baino ez baita hau. Eta interesgarria, komentario eta erresistentzia hauek gure inguru hurbilean edo lagunartean nola sortzen diren aztertzea.

Autodefentsa feminista dugu estrategia eta tresna pertsonal zein kolektibotzat, elkartasuna oinarritzko urratsa: bereziki, Bergaran gizon berberarekiko salaketa jarria duten lau emakumeei gure elkartasuna adierazten diegu Debagoieneko Emakumeen Mundu Martxatik. Eta azaroaren 25ean, erasoa jasan eta erasotzailea salatze adorea atera duzuen emakumeekin batera aterako gara denok gure herrietako plazetara.

'Bakea eta elkarbizitza' kontzentrazioaz

Eneko Barberena Mondragon
(Arrasateko Udaleko EH Bilduko zinegotzi taldearen izenean)
Arrasate

Inprobisazioa ederra da Charlie Parkerren saxofoiaz edota Joseba Irazokiren gitarraz lagundurik. Baina politikan eta gai serioekin komeni da planifikazioa eta aurrelana.

Astearte goizean ez ginen egon Herriko Plazan *Bakea eta elkarbizitza* lelopean egin zen kontzentrazioan, inork ez zigulako abisurik pasa. Hedabideetatik jakin dugunez, Udaleko Gizarte Zerbitzuen batzordeburuaren Baleike alderdiak egin zuen deialdia, zenbait mugimendu sozialekin batera. Udalean ordezkatutako beste alderdi batzuk ere gonbidatu zituen, baita alkatea ere, baina zazpi zinegotzi dituen EH Bildu oposizioko lehen indarra, ez. Larria eta tristea iruditu zaigu hau, ekitaldi partidista bat udal ekitaldi bihurtu zelako. Edo alderantziz?

EH Bilduk parte hartu zuen astelehenean alkateak deituriko kontzentrazioan, Parisko sarraski larriaren aurrean gure aurkakotasuna adierazteko. Iragan astean Memoriaren Egunaren harira esan genuen moduan, gu hor egongo gara, planteamenduetan errespetu eta seriotasun minimoak bermatzen badira. Asteartean ez zen hau egon, zoritxarrez; ez, horixe. Eta optimistak garenez, eta eraikitzaileak, ez dugu deialdia egiteko moduan fede txarrik ikusten.

DUELA 10 URTE

2000-12-22

XX. mendeko azken osoko bilkura

Abenduaren 28an, Inuzente egunean, XX. mendeko azkenengo osoko bilkura egin zuten Eskoriatzan. Ez zen gai serioegiak lantzeko egunik aproposena izan, baina 2001erako aurrekontuak onartzea izan zuten eztabaidagai.

Aurrekontuak onartu baziren ere, desadostasunak izan ziren: alde batetik, Axtroki elkarteari eta *Ze barri?* hilabetekariari laguntzak; eta bestetik, Almeni ematekoa.



Euskal txokoa inauguratu zuten egunekoa. | GOIENA

2001-01-26

Euskal txokoa inauguratu zuten

Euskal txokoak atek ireki zituen Intxaurtxuetako egoitzan, eta hainbat lagun batu ziren bertan.

Hiru hitzaldi egin zituzten: Oñatiko Zelai Zabaleko Alberto Elortzak gastronomia eta komunikabideak izan zituen mintzagai, Juan Martin Elexpuru idazleak Badihardugu ekimenaz egin zuen berba eta Mikel Irizarrek Goiena landu zuen.

DUELA 5 URTE

2010-11-25

Zaharren egoitzako auzia

Zaharren egoitzaren auziaren harira, administratzaile izandako Aitor Urrutia erruduna dela esan zuen sententziak. Aitor Urrutiak erruduna zela zioen sententzia "onartzen" zuela esan bazuen ere, horrekin "ados ez" zegoela aipatu zuen. "Zuzenen" iruditzen zitzaion moduan jokatu zuela adierazi zuen.

ESKORIATZA

HERRITARRAK

Juan Migel Pagaldai 69 urte ditu eskoriatzarrak eta erretiratu zela hamar urte beteko dira San Tomas egunean; hainbat zaletasun ditu: baratze lanak egitea, bidaiatzea eta ingelesa ikastea. | IMANOL BELOKI

"Gazteak ginenean ez genuen baratzerako zaletasunik; orain bai"

Juan Migel Pagaldai (Eskoriatza, 1946) eskoriatzarra erretiratu zela hamar urte beteko dira San Tomas egunean, baina ez da denbora galtzen duen horietakoa. Hainbat zaletasun ditu, eta gauza berriak ikastea atsegin du. Mendia eta txirringularitza ditu pasio, baina, batez ere, baratzean ibiltzea gustatzen zaio, eta ahal duenean Erañan duen baratzerara joaten da.

Beti izan duzu baratzerako zaletasuna?

Libre dudan guztietan joaten naiz *Epertoki*-ra, etxean beste zereginik ez badago, behintzat. *Epertoki* nire leku kuttunena da, bertan baratzea eta txabola dugu. Gure baserria Olabe da, eta haren ondoan dago, Erañara bidean. Beti lana dagoen tokia da *Epertoki*, oso gustura egiten dudana, gainera, entretenitzeko bide bikaina izaten dut bertan.

Zein elikagai landatzen dituzu baratzean?

Patatak, kipulak, piperrak, berakatzak, azaloreak, kalabazak, kalabazinak... betiko produktuak. Bestalde, zuhaitzak landatzea ere asko gustatzen zait: kakiak, intxaurrak, sagarrak, mispilak, gerizak... Kanpora bidaiari joan izan garenean ere ekarri ditugu produktu bitxiak, beste klima batekoak, eta bertan landatu, eta ea iriteten diren ikustea gustatzen zait. Esaterako, Perura egindako bidaiaren batean patata morea ekarri genuen, eta iriten zen, baina apaingarria da, probetxurako baino gehiago.

Produktu berriak, ezberdinak, landatuz ikasten ibiliko zara orduan? Egia esan, bai; ikasten eta irakasten. Izan ere, 7 urteko eta 4 urteko nire bi ilobak askotan etortzen dira laguntzera, eta asko gustatzen zaie baratzean aritzea. Orain dela gutxi, iloba nagusiak baratze zati bat eskatu zidan,



Juan Migel Pagaldai, atzean, baratzean. | LB

"Beste klima bateko produktuak ekarri, eta ea iriteten diren ikusten dut"

"Erretiratu nintzenean ordenagailu bat oparitu zidaten"

bere tokitxo nahi duelako. Sekulako poza ematen dit horrek. **Zure ilobez gain, orokorrean, jende gazteari gustatzen zaizkio baratze lanak?**

Uste dut gazteek ez dutela denbora luzerik hartzen baratze kontuetarako. Gaur egun, beste hainbat gauzarekin entretenitzen dira: telebista dela... Gu ere gazteak ginenean ez ginen asko izan baratzean, gero hartu dugu zaletasuna. Baserritik herrira jaisteko deseatzten egoten ginen gu, baina gero kaletik baserri aldera begiratzen genuen, faltan igartzen genuen. Zaletasuna izanez gero, aberatsa da. Lau anai-arreba gara gu, eta denok gara baratze-zaleak. Produktuak trukatzen ditugu, eta sobran ditugun elikagaiak, berriz, Bergarako elikagai bankura eramaten ditugu.

Elikagai ekologikoen aldeko apustua egiten duzu?

Ez, baina landatzen duguna jaten dugunez, kontuz ibiltzen naiz. Ahal den eta botika gutxien erabiltzen saiatzen naiz. Barea eta karakolen kontrakoa eta toma-teen gorrina kentzeko bakarrik erabiltzen dut. Momentu honetan, fitosanitario maneiatazailerik ikastaroa egiten ari naiz Arrasaten. Baratzean bota daitezkeen botiken gaineko ikastaroa da, eta prospektuak ondo irakurri behar direla ikasten ari gara orain.

Ikastaro horrez gain, beste zaletasunik? Batzuk bai; bidaiak egitea gustuko dut. Urtero bidaiari luze bat egiten dugu, eta aste bukaera pasatxoak ere egiten ditut emaztearekin. Mendira joatea ere asko gustatzen zait, eta txirringularitza ere bai. Kasu horretan, zorte handia dut, emazteak ere zaletasun berberak dituelako; hark ere gustuko ditu mendia eta txirringularitza. Frantziako

Tourreko etaparen bat edo beste ikustera urtero joaten gara Pirinioetara. Espainiako Vuel-tako etaparen bat edo beste, eta Donostia klasikora ere ahal badugu saiatzen gara bertaraten. Mendira, berriz, hanke aguantatzen duten bitartean joaten jarraituko dugu; hemendik aurrera, ez dakit nik ahal izango dugun, adina dela eta...

Beste zerbait egiten ari zara? Erretiratu nintzenean, ordenagailu bat oparitu zidaten etxekoek [Barre]. Bestalde, ingelesa ikasten ere ibili naiz erretiratu nintzenetik, zortzi urtez. Nire lehen erronka hori izan zen, baina adin honekin buruak ez du asko ematen... Hitz solteak badakizkit, baina esaldiak lotzea asko kostatzen zait. Ingalaterrara joanez gero, galderak egiten jakingo nuke, baina ingelesak esandakoa ulertzea ez litzaidake hain erraza egingo...

NIRE HERRIAN

GAUR EGUNGO GAZTERIA

Gu gazteak ginenean beldurra genuen gauza bat esan edo kritikatzeko. Gaur egungo gazteek, aldiz, ez dute beldurrik. Oso zuzenak dira edozer gauza esateko. Pertsona nagusi bati zerbait esateko beldurra genuen, zer erantzun zigiten... eta positiboa iruditzen zait gaur egungo gazteek beldur hori galdu izana.

HONDAKINEN GAIA

Herri mailan daukagun arazoetako bat hondakinen gaineko gaia da. Ez da batere ona herriarentzat. Gogor dago kontua, eta tirabira ugari daude, ez da berehala konponduko. Konposta, esaterako, urte askoan nire modura egin dut, ez gaur egungo kaxa horiekin, lur azpian sartu eta denetarik iriteten zen. Orain ikasi dut.

HERRIAK

BERGARA

25 urte euskararen alde jardunean Bergara euskaldundu nahian

Herritarrekin ospatuko du Jardunek urteurrena, herri bazkaria, mosaikoa eta erromeria eginda pilotalekuan

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Ez dira egunero betetzen 25 urte, ez horixe, eta urteurrena, merezi duen legez, ospatuko du bihar, azaroak 21, Jardun euskara elkarteak. Elkartearen sorreran izandakoak, ibilbidean elkartutako lagunak, egun batean bai eta hurrengoan ere bai hurbiltzen direnak, eta ahal dutenean laguntzera doazenak elkartu gura dituzte biharko ospakizunean. Baina horiek bakarrik ez, bergarar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldiotara, jai handia izan dadin.

Ospakizun herrikoia

"Garbi genuen ospatzeko egun bat dela. Horregatik, ondo pasatzea beste helbururik ez duen jai handi bat izango da", jakinarazi du Nerea Madariagak, Jardunen urteurreneko koordinatzaileak. Bazkariak elkartuko ditu guztiak pilotalekuan, herritarrek herritarrendako egindako bazkariak. Izan ere, paella lehiaketa deitu dute, eta hamar talde ibiliko dira nor baino nor gehiago. "Hala, saltsa apur bat sortuko da gertatu bitartean, eta horren ondoren paella goxo horiek jango ditugu".

Bazkalostea girotzeko bertso doinuak izango dituzte pilotalekuan elkartutakoek. Jarduneko Kopla Barik helduen bertso eskolako kideak izango dira bertsoan: "Jardunek egitura herrikoia dauka eta herritar asko elkartzen dira haren bueltan, ume, gazte



Hainbat bergarar gogoeta saio bateko ekitaldi batean. | JARDUN EUSKARA ELKARTEA

zein nagusi. Horregatik, ospakizuna ere herrikoia izatea gura genuen, eta guk uste dugu lortzen gabiltzala", dio Madariagak. Helduek bakarrik ez, umeek ere izango dute ondo pasatzeko aukera bazkalostean, ludoteka zerbitzua izango dute eta.

Arratsaldean, oster, mosaikoa egingo dute. "100 bat lagun elkartu gura genituzke, eta horiekin klaketa bat irudikatuko dugu. Izan ere, horixe izan da urteurrenean erabili dugun irudia aro aldaketa adierazteko", dio Madariagak.

Ospakizuna borobiltzeko, Tolosa aldetik etorriko den Zesuma taldeak doinu dantzagarriekin beteko du pilotalekua.

ZAPATUKO EGITARAUA

12:00 Paella lehiaketa.

13:00 Trikiti-kantu jira, pilotalekuan hasita.

14:30 Bazkaria pilotalekuan (ondoren, ludoteka zerbitzua).

Bazkalostean, bertso musikatuak.

17:30 Mosaikoa.

Jarraian, Zesuma taldearekin erromeria.

Urteurrenaren doinua

Ospakizunak badu doinua ere, doinu dantzagarria, gainera: *Larre zaharretan*. Aritz Alustiza trikitalariak egin du eta Bergarako beste hainbat musikari izan ditu lagun. Musika bideoa ere egin dute, eta Jardunen bueltan dabilzan askok hartu dute parte hor, umeek eta helduek: langileak, laguntzaileak, zuzendaritzako kideak... Youtuben dago hori ikusteko.

Gaztelekuko kideek ere bat egingo dute Jardunen ospakizunarekin. Hala, gaztelekua itxi egingo dute zapatuan, eta horren orde hiru saskibaloitxapelketa jokatu Seminarioko patioan, 18:00etan hasita. Izena aurrez eman beharko da; gaur gaztelekuan edo bihar txapelketa hasi baino ordubete lehenago. Musika lagun giro polita izango dela iragarri dute antolatzaileek.

25 urteotako ibilbidea

Euskalgintzaren inguruan zebiltzan herritar batzuen ekimenetik sortu zen Jardun orain dela 25 urte. "Kulturaren inguruan, hedabideekin eta gazteekin hasi ziren batez ere lanean orduan. Baina Jardun gero eta eremu gehiagotara zabaltzen joan da", azaldu du Madariagak. Hala, umeen aisialdian dihardute ludotekaren eta Txapliguren gidaritzaren hartuta; gazteendako, antzerkia eta beste hainbat ekimen dituzte; eta helduen artean ere lan egiten dute Auzoko dela, Berriketan dela... "Egun, sentsibilizazioak hartu du pisu handia. Izan ere, euskararen beharrek aldatzen joan dira azken urteotan. Eta erabilera bultzatzen dihardugu, Mintzapraktika ekimenarekin, errefortzuekin...". Ildo horretatik doaz azken hilabeteotan antolatutako Idazlaguna ekimena eta liburu truke azoka.

Atzera begiratu bai, baina beti aurrera egiteko. Hala, gogoeta saioak hasi zituzten iaz, herritarrekin batera, etorkizunera begirako ibilbidea zehazten joateko: "Parte-hartze saio horietatik lantaldeak sortu ziren eta orain talde horiekin jarraituko dugu". Hain zuzen, hurrengo zapatuan, azaroaren 28an, egitekoak ziren hurrengo saioa, antolamenduaren gainekoa, baina atzeratu egin dute; data berria zein den laster jakinaraziko dute.

PEIO ANDRINUA | JARDUNeko PRESIDENTEA

"Bizi-bizirik gaude; egindakoak ospatu nahi ditugu, baina, aldi berean, aurrera begira gaude"

Martxotik da Jardun elkartearen presidentea Peio Andri- nua, baina aurretik ere urte asko egin ditu elkartearen: "Hamarretik gertuago bostetik baino".

Biharko ekitaldiekin urteurrena behar bezala ospatu gura duzue, ezta?

25 urte behin bakarrik betetzen dira eta Jardun bezalako elkarte batentzat garrantzitsua ikusten genuen denon artean ospatzea. Bergarako herritarrek parte hartzea ere gogokoa ikusi genuen.

Zergatik herri bazkari bat?

Herritar guztiekin ospatu nahi genuen urteurrena. Izan ere, banakako bakoitzari esker egin du elkarteak aurrera 25 urte hauetan. Ia gehienek izan dute noizbait harremana Jardunekin, eta

hori guztion artean ospatzeko modukoa dela uste dugu. Gainera, ohitura da mahai baten inguruan ospakizunak egitea. Eta Jardunek ere horrela izatea nahi du.

Eta zein da eman gura duzuen mezua?

Jardun bergararra dela eta denok parte hartu beharko genukeela, elkarte bultzatuz, Bergaran euskara bultzatzen. Bizi-bizirik gaudela, egindakoak ospatu nahi ditugula, baina, aldi berean, aurrera begira gaudela.

Mosaikoarekin zer irudikatuko duzue?

Mosaikoaren bidez elkartearen etorkizuna irudikatuko nahiko genuke. Bertan ospatuko dugun irudiak klak moduko bat adieraziko du. Klak horrek



JULEN IRIONDO

orain arteko ibilbidean aldaketa bat irudikatzen du. Eta aldaketa da Bergarako euskarak gaur egun dituen beharretara egokitutako Jardun osatuko dugula.

Azken urtean gogoeta saioak egin dituzue; zenbat lagun elkartu zarete?

Berrogei lagun baino gehiago batu ginen. Aurretik egindako aurreikuspenak gainditu genituen.

Eta zeintzuk izan dira ondorioak?

Elkarte parte-hartzaile baten beharra sumatu

genuen, herritarrekin harreman estua izango duena. Hori dela eta, bertara gerturatutako artean, lantalde desberdinak sortu genituen. Lau ataletan lan egitea erabaki genuen (Diskurtsoa, Komunikazioa, Aisialdia eta Sentsibilizazioa). Lan-taldeok martxan jartzen dihardugu orain, eta hauek definituko dute Jardunen etorkizuna.

Zelako osasuna du Jardunek egun?

Osasun ona duela esango nuke. Baina lan asko egin beharra dago, eta indar berriak beharko ditu aurrera jarraitu nahi badu. Eta indar berri hori, jende berriarekin eta horiek ekarri ditzaketen ideia berriekin lotu nahiko genuke.

Nondik joko du orduan, etorkizunera?

Galdera horren erantzuna ez da erraza. Gogoe- tetatik atera genituen lau lan esparruak izango dira ardatza. Baina hortik norantz joan gaitezken, oraindik aztertzen gaude.

Oraindik beharrezkoa da Jardun Bergaran?

Jardunek badu bere egin beharra: Bergaran euskara sustatzen. Baina, beharbada, orain arte egin izan dituen ekintza batzuk alde batera utzi eta euskararen dinamizazio lanean gehiago zentratu beharko luke.

Gizarte parekideago baten alde 20 urte, euskaratik

Bi hamarkada bete ditu Ekin-ek, eta ekitaldia antolatu dute, bereziki, elkarteko parte izan zirenendako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
20 urte bete ditu Ekin Emakumeak Elkarteak, 20 urte emakumeendako aisialdirako guneak euskalduntzen, boteretzerako bideak errazten eta aukera eta eskubide berdintasunaren alde lan egiten. 1995ean sortu zen elkarte moduan, baina, sorrera ulertzeko, atzera-ego egin beharra dago. Izan ere, 1985ean Ekin AEDko lantalde moduan eratu zen emakumeendako aisialdirako gune euskaldunak sortzeko. "Orduan emakumeen interesekoak izan zitezkeen euskarazko hitzaldi eta ikastaroak antolatzen hasi ziren", ekarri du gogora Ekin elkarteko eragile Leire Estevezek.



Ekin elkarteko sortzaileak omendu zituzten 2010ean, 15. urteurrenean. | GOIENA

Oraindik ere helburu horri eusten diote, baina azken urteetan "beharrezko" ikusi dute jatorri askotariko emakumeen beharretan eta interesetan arreta jartzea. Horregatik, kultura aniztasuna da Ekinen jardunaren oinarritzko zutabeetako bat: "Euskaratik aniztasunean bizi den gizarte parekideagoa eraikitzeke lan egiten duen elkarte da Ekin". Gaur egungo proiektuen artean dago, esaterako, *Arrasatek mundura* egitasmoa -ikus 12. orria-. Bestalde, Auzoko ekimenaren bidez euskarara hurbildu gura dutenak eta euskaraz bizi direnak elkarrekintzan jartzen dira astean ordubetez. Aur-

ten, gainera, oso harrera ona izan zuen *Artean, hamaika emakume artista* erakusketa antolatu zuten. Eta Azaroaren 25ari begira, gazteekin kontzientiaziorako saioak egingo dituzte eta lelo lehiaketa antolatuko dute.

ESANAK

"Euskaratik, aniztasuna eta parekidetasuna ditugu helburu"

LEIRE ESTEVEZ | EKIN ELKARTEA

Belaunaldi berriei begira
Ekin "hausnarketa fasean" dago orain: "Elkartearen identitateari dagokion lanketa egin dugu, eta hurrengo hilabeteetan horretan sakontzea da asmoa", iragarri du Estevezek. Helburuei eusteko lanean jarraitzeaz gain, belaunaldi berrietara iristea da elkartearen erronketako bat. 20. urteurrena ospatzeko, ekitaldi xume bat egingo dute gaur Herriko Plazan, 18:30ean. Elkarteko parte izan direnak gonbidatu dituzte, bereziki. Bertsolariak, pintxoak eta edariak -euro baten salgai-, Ibai-Arteren dendetan gastatzeko txartelen zozketa eta Lide Pagaldai eta Eneritz Urrutiaren eskutik erromeria izango dituzte.



JOKIN BEREZIARTUA

Kulturete lepo beteta Garibai ezagutzeko

Arrasate Zientzia Elkartearen *Iragana astintzen* zikloaren hirugarren saioan, Jose Angel Achonek Esteban Garibai izan zuen hizpide; haren alde ezezaguna ere kontatu zuen. Kulturete goraino bete zuen AZEk, beste behin.

arbolapeta

arrasate

bsink9

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa Laguntza eskolarrak
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak Estimulazio goiztiarra
Arreta psikologikoa genero indarkerian Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

NIRE USTEZ

JOSU ZUGASTI

'Je suis la manipulation'

Zorabiatu egiten gaituzte komunikabideek eta politikariek euren mezu errepikakor eta sinplistekin Pariskoa bezalako zerbait gertatzen: *Euro-para erasotzea askatasunari erasotzea da; III. Mundu Gerran murgilduta gaude; Arriskuan gaude nonahi; Gure gehiegizko askatasuna baliatzen dute terroristek...*

Zorabiatu egingo gaituzte pakistandarrek kebaba egiteko erabiltzen duten labanarekin burua moztuko digutela sinetsi arte eta kontrolak, kamerek, espioitza digitalak nahiz entzuketek askatasuna dakartela irentsi arte.

Horregatik, inportantea da burua hotz mantentzea eta historia erreparatzea: 1917an Siria Frantziaren kolonia bihurtu zen -fusilamenduak, bonbardaketak...-; 1948tik Frantziak Israel babesten du militariki eta politikoki, arabiarren aurka; 2001ean Frantzia Afganistanen sartu zen; 2011n Libian sartu zen Gaddafi presidente laiko eta antisoinista botatzeko; 2012an Siriako islamistak armatzen eta finantzatzen hasi zen Al-Assad presidente laiko eta antisoinista botatzeko; 2014tik Estatu Islamikoa bonbardatzen du Iraken -Sirian ez, Al-Assad izorratzeko-; aste honetan Al Raqqa hiriri eraso dio...

Beharbada, diot nik, Frantzia bere kabuz sartu da gudan eta, orain, europar zuriok jainko ukiezinak ez garela ohartu gara. Beharbada, arazoaren zuztarretara jotzeko ordua iritsi da.

"Beharbada, diot nik, arazoaren zuztarretara jotzeko ordua da"

JOAN ZAIGU

Jose Mari Astigarraga

Parrokoa 1984tik 2002ra

Azaroaren 14an hil zen, 77 urterekin, Jose Maria Astigarraga, 1984tik 2002ra Arrasateko parrokoa izan zena. Horrenbeste urtez parroko izanda, oso pertsona ezaguna izan zen herrian. San Juan Bataiatzailearen parrokia zaharberitu zen Astigarraga parroko zela, 1994tik 1999ra. 1989an *Arrasate Press* aldizkarian egindako elkarriketa baten adierazi zuenez, herriak "oso ondo" hartu zuen 1984an heldu zenean, baina gaineratzen zuen orduko Arrasaten integratzea oso zaila zela, erdaldunendako zein beste herri batzuetatik zetozen euskaldunendako: "Maila horretan Arrasatek badu primitibismo zentzu bat. Edozelan ere, integratzen zaituenean, oso-osorik integratzen zaitu".



Astigarraga, 1989an. | ARRASATE PRESS

Inoiz baino gozoagoa izango da biharko baserritarren azoka

17 postu izango ditu biharko baserritarren azokak (Seber Altube, 09:00-14:00). Gainera, Jardunaldi Gastronomikoen barruan antolatutako postre lehiaketa izango da protagonista; izena eman duten 11 kideek 11:30ean aurkeztuko dituzte postreak, eta epaimahaia 12:30 aldera jakinaraziko ditu hiru onenak.

Jostailuak jasoko dituzte datozen asteetan, truke azokara begira

Jostailu Truke Azokarako jostailuak entregatzeko bederatzia egun eta gune zehaztu ditu Txatxilipurdik, azaroaren 23tik abenduaren 11ra arte; jostailuak 17:30etik 19:00etara jasoko dituzte. Trukearako eguna abenduaren 12a izango da, Azoka Plazan (11:00-13:00). Informazio gehiagorako: 943 79 54 46.

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Itsaso Pagoaga | Olgeta jostailu dendako jabea

"Gozatzea, hezte eta maitatzea dut helburu"

Jostailu denda berria da Olgeta Arrasaten, eta, aurrez aurreko aholkularitzaz gain, kanpo zerbitzuak ere eskaintzen ditu; hiru hitzaldi mota eta 'tuppertoys' eta mailegutza zerbitzuak, besteak beste

Zer da Olgeta?
Olgeta jostailu denda bat baino gehiago da. Jostailuak saldu eta mahai jolasak mailegutuzan eskaintzeaz gain, jostailu, jolas eta jolaserako espazioen gaineko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dut. Olgetaren helburua da pertsona bakoitzarentzat jolaserako baliabide egokiena eskaintzea.

Zein dago Olgetaren atzean?
Ba, ni neu, Itsaso Pagoaga Zaloña [Arrasate, 1985]. Irakasle ikasketak egin nituen arren, jolas egitea eta jolasari buruzko edukiak landu, aztertu eta horiek zabaltzea da gehien gustatzen zaidana. Eta Olgeta proiektua zaletasun horretatik sortu da.

Zein baliabide eskaintzen dituzu?
Olgetak gozatzeko, hezteko eta maitatzeko baliabideak eskaintzen ditu Arrasateko dendan zein webgunean. Konfiantzan eta etengabeko komunikazioan oinarritutako negozio txikia da eta hura egonkortzeko lanean dihardut. Proiektu hau haur, gazte zein helduentzako jolaserako baliabideen eskaintzan dago espezializatuta.

Zer lantzen duzu bereziki?
Jolaserako baliabideak aukeratzeko orduan arreta berezia eskaini diet materialei, hizkuntzari, jolasean landu daitezkeen edukiei eta produkzio moduei. Jolasa askatasunez eta modu naturalean egiten dugun hori dela diote adituek, baina, nire ustez, jolasa jarrera bat ere bada. Bizitza era ludikoan bizitzeko modua da, eta horren aldeko apustua egiten dut.

Zer eskaintzen duzu?
Panpinak, jostailuak, eskulanetarako materiala eta mahai jolasak aurkituko dituzue, batik bat. Jolaserako baliabide gehienak Europan ekoiztuak dira. Olgetak garrantzia ematen dio jostailuen balio hezi-



Itsaso Pagoaga, Olgeta jostailu dendan.

tzaileari, materialari eta ekoizpen prozesuari. Horretaz gain, jolaserako baliabideak denontzako eskuragarri egon daitezen euskarazko eta gaztelarazko argibideak eskaintzen dira. Jolaserako zenbait baliabide ingurune naturalarekin jasan-

"Jostailu nobedadeak ezagutzeko, 'tuppertoys'-ak"

garriak izan daitezen saiakera egiten dut. Hori dela eta, jostailu eta panpina batzuk material natural edo birziklatuz egindakoak dira. Jolaserako baliabide hauek Arrasateko dendan eta *on line* dendan [abenduetatik aurrera] daude eskura.

Horiez gain, beste zerbitzuren bat?
Aurrez aurreko aholkularitza zerbitzua ere eskaintzen da. Jolasarekin lotutako edozein zalantza edo galdera izanez gero, gerturatu dendara eta gustura lagunduko dizut. Aurrez aurreko aholkularitza gain, kanpo zerbitzuak ere eskaintzen ditut, Arrasateko Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkartearekin elkarlanean.

Nolakoak dira kanpo zerbitzu horiek?
Hainbat ditut kanpo zerbitzuetan: batetik, hitzaldiak; bestetik, *tuppertoys*-ak, eta baita jolaserako espazioei buruzko aholkularitza. Hiru motatako hitzaldiak eskaintzen ditut: *Nola aukeratu jostailu egokia?*; *Jolasaren garrantzia pertsonaren garapenerako*; eta *Jolaserako barne eta kanpo espazioak*.

Tuppertoys-ak aipatu dituzu; zer dira?
Jostailu nobedadeak ezagutzeko saio praktikoak dira. Batez ere, hezitzaileei zuzenduta dago, bai-

na familia taldeei moldatzeko aukera dago. Zure herrira joango naiz ikasturteko jostailu nobedadeak erakutsi eta probatzeko aukera eskainiz. Adin, hizkuntza eta gai ezberdinen arabera moldatzeko aukera dago. Bi orduko saioa da, baina beharren arabera egokitzeko prest nago.

Bestalde, aholkularitza zerbitzuan zer egiten duzu?

Jolagunea prestatzeko laguntza eskaintzen dut. Herri edo jolagunearen diagnostikoa egiten dut, bai eta egon daitezkeen aukerak aztertu. Partaidetza saioak diseinatu, aholkularitza eskaini eta diseinu proposamena egin. Beharren arabera zerbitzua moldatzeko aukera dago.

Beste aukerarik?

Mahai jolasen mailegutza zerbitzua ere eskaintzen da Arrasateko Olgeta dendan. Etorri bertara, ikusi eta probatu dendan ditudan jostailuak, eta aukeratu lagunekin edo etxekoekin partekatzen. Jostailua mailegutuzan hartzeko, izen-emate fitxa eta 20 euroko fidantza ipini behar da eta mailegutza egun bakoitzeko bi euro ordaintzen da. Jostailua egoera onean itzuliz gero, fidantza %100 itzuliko da.



Ezkerretik eskumara: Olgeta kanpoan haurrak jolasean, liburua irakurtzen poz-ozik eta haurra argazkilari lanetan. | EKAITZ FILARMENDI





OLGETA

GOZATU - HEZI - MAITATU

JOLAS ETA JOSTAILUEN AHOALKULARITZA,
MAILEGUTZA ETA SALMENTA ZERBITZUA

Zerkaosteta 4 behea • Tel.: 628 67 35 50 • www.olgeta.eus • olgeta@olgeta.eus

ZABALDU
BERRIA



Bibliotekako, Gizarte Zerbitzuetako eta Ekineko kideak ekimena iragartzen. | A.E.

Elkar ezagutzea, kultura aniztasunari balioa emateko

'Mundutik Arrasatera' ekimenaren barruan, ipuin kontaketa saioak egingo dituzte bi hilean behin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Iaz sortu zuten *Mundutik Arrasatera*, *Arrasatetik mundura* egitasmoa. Helburua nagusiak dira kultura aniztasuna aberasgarria dela erakustea eta herriarren elkar ezagutza sustatzea. Arrasate "mundura irekita" dagoela adierazi zuen, besteak

beste, Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu Igor Urizarrek martitzeneko agerraldian: "Munduko hainbat bizilagunek osatzen dugu Arrasate. Kultura anitzeko gizarte honetan, kulturak trukatzea oso garrantzitsua da gizarte hobe lortzeko eta bizikidetzaz errazteko. Horrek dakar pertso-

naren ikuspegi zabalagoa izatea eta, aldi berean, beste balio batzuk indartzea, hala nola besteei errespetua eta norberaren identitatea".

Baleikeko zinegotziak gogora ekarri zuen egitasmoaren barruan etorri berriei zuzendutako harreara, orientazio eta informazio zerbitzua eskaintzen duela Udalak, eta, bestetik, Auzoko programa ere martxan dagoela, euskaraz bizi direnen eta euskaratik urrunduenen bilgunea dena.

Saio berezia hilaren 26rako

Ekimenaren bueltan, Gizarte Zerbitzuek, Udal Bibliotekak eta Ekin Emakumeak Elkartek ipuin kontaketa saioak antolatuko dituzte bi hilean behin. Saio bakoitzean herrialde bat izango da gonbidatua; lehen saioan, hilaren 26an, Saharako tradiziozko ipuinak kontatuko dituzte, arabieraz, euskaraz eta keinu hizkuntzan.

Lehen ipuin kontaketa saio hori Kulturateko Jokin Zaitegi gelan izango da (18:00), eta 5 urtetik gorako umeak eta familiak daude gonbidatuta. Fadila Hamudi Deddi eta Aisha Nadif arabieraz arituko dira, Hirune Iribecampos euskaraz eta Mercedes Iñarra keinu hizkuntzan.

Eva Abuin | Baleikeko zinegotzia, Euskadiko Podemosen zuzendaritzan

"Logikoa da Uriartek utzi izana, desadostasunak sakonak zirelako"

J.B. | ARRASATE

Podemos "erlidaketa sozialerako giltza" dela uste du Eva Abuinek (Arrasate, 1993), eta, Baleikeko zinegotzi izateaz gain, Euskadiko Podemosen behin-behineko zuzendaritzan dago. Abenduaren 20rako kanpaina prestatzen ariko da, parte-hartzearen arloa koordinatzen.

Nola baloratzen duzu Euskadiko Podemosen gertatu dena?

Logikoa da, desadostasunak sakonak izanik, orain arte idazkari nagusi izan den Roberto Uriartek zuzendaritza utzi izana. Une txarrean heldu da, baina ilusio handiko momentuak datoz eta gogor ekingo diogu.

Krisiak nola eragingo du botoetan?

Gizartea gogotsu dago hauteskundeetarako eta ez dut uste eragin negatibo handirik izango duenik. Aldaketarekiko grinak berdin jarraitzen du. Zuzendaritza berriaren lana kanpainara mugatuko da; nik parte-hartzea koordinatuko dut.



Eva Abuin. | J.B.

Gizarte Zerbitzuen ardura duzue. Zeintzuk dira lehentasunak?

Ardura eta zentzu handiarekin ari gara jokatzeko. Lehentasunak dira gutxien duten horiei diru laguntzak bermatzea, menpekotasun egoeran daudenei baliabideak erraztea eta zailtasunak dituzten adingabeak zaintzea. Gainera, parte-hartzea sustatzeko formulak lortzea ezinbestekoa da, hainbat arazoren irtenbidea bertan aurkitu dezakegu eta.

Indarkeria matxistari aurre egiteko, egitarau zabala gertu

J.B. | ARRASATE

Udalak, Emakume Txokoak eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformak egitarau zabala antolatu dute indarkeria matxista salatzeko. Bihar, zapatua, indarkeria sinboliko tailerra egingo dute Emakume Txokoan, 10:00etatik 13:00etara. Hilaren 24an, *Gure genealogia feministak*, *Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika* liburua aurkeztuko dute Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (19:00). Azaroaren 25ean elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan (19:00). Eta amaitzeko, abenduaren 2an, *La máquina del dueño* antzezlan taularatuko du Plataforma Tirante taldeak Amaia antzokian, 19:30ean. Ekintzen gaineko informazio gehiago: 943 79 41 39 (Emakume Txokoa).



TXATXILIPURDI

Zuhaitzak artelanekin alaitzen

Txatxilipurdiren eskutik eta Garaion elkartekoekin batera, asteburuetan gaztegunean ibiltzen diren gaztetxoek *Auzolanartean* ekintza egin zuten zapatuan. "Arrasate biziago eta alaiago" bihurtzeko asmoz, irribarreak egin zizkieten Monterron parkeko zuhaitzei, betiere, naturak eskaintzen dituen materialekin. Hala, eroritako hosto, adaska eta lastoekin bihotz erraldoi bat irudikatu zuten parkean.

Salgai dago 'Berdean hezi' liburua, natura umeen heziketara hurbiltzeko asmoz

J.B. | ARRASATE

Umeak naturatik hurbil egonda, euren garapen prozesua "alderdi guztietan askoz emankorragoa eta sakonagoa" izateko laguntza ematera datorren *Berdean hezi* liburua aurkeztu du Txatxilipurdik. Psikologian eta filosofian lizentziadun Heike Freireren *Educar en verde* obra euskaratu du Diego Martiartuk, eta dagoeneko salgai

dago, 12 eurotan, Txatxilipurdiren egoitzan; laster egongo da salgai liburu dendetan.

Freirek berak aurkezpenean azaldu zuenez, "ezinbestekoa" da natura umeen heziketan eta garapenean, eta bereziki gustatu zitzaion Maddi Urizar ilustratzaile arrasatearraren portada: "Gaztelaniazkoa baino hobe da, oso ondo islatzen du liburuaren muina".



Berdean hezi liburuaren aurkezpeneko talde argazkia. | JOKIN BEREZIARTUA



basquestay

www.basquestay.com

Apartamentu baten jabe bazara, alokatu eta diru iturri bilakatu

606 74 77 56
info@basquestay.com

ZALDIBAR

EMAITZAK

Aldatz - Betraye	4-2
Abokajarro - Dribling	0-4
Lasagabaster - Sonografos	4-3
Monte Taberna - Rayo Makabro	7-3

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Monte Taberna	3	1
2 Dribling	3	1
3 Aldatz	3	1
4 Lasagabaster	3	1
5 Sonografos	0	1
6 Betraye	0	1
7 Abokajarro	0	1
8 Rayo Makabro	0	1
9 Elorra JMA	0	0
10 Olympiakojos FC	0	0

PARTIDUAK

AZAROAK 21. ZAPATUA
10:30 Betraye - Sonografos / Dribling
11:30 Aldatz - Dribling / Sonografos
12:30 Lasagabaster - Elorra JMA / Aldatz

AZAROAK 22. DOMEKA
11:00 Monte Taberna - Olympiakojos FC / Rayo Makabro
12:00 Abokajarro - Rayo Makabro / Monte Taberna

Hamar talde, azkenean

Olympiakojos FC taldeak azken orduan izena eman ostean, hamar talde arituko dira aurretan. Datorren asterako talde guztiek kuota ordaindu beharko dutela adierazi du antolakuntzak. Monte Taberna da denboraldi berriko lehen liderra.



Hilaren 13ko irekieran egon ziren erakusketa parte hartu duten artista gehienak; irudian, talde argazkia. | JOKIN BEREZIARTUA

Arrakastaz inauguratu dute 'Begitik' erakusketa

Jende asko batu zen Kulturateko klaustroan irekiera egunean; abenduaren 19ra arte egongo da zabalik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Margolanez eta eskulturaz osatutako goi mailako erakusketa kolektiboa da *Begitik*. Ez dira bat, bi, hiru edo lau artista; gutzira, Debagoieneko, Debabarreneko eta inguruetakoko 19 artista-aren lanak daude ikusgai Kulturateko klaustroan. Hilaren 13an inauguratu zuten, eta egun hartan jende asko hurbildu zen klaustroaren bueltan dauden margolanekin zein erdigunean dauden eskulturekin gozatzeko: "Sartu eta berehala nabari da artelan hauen atzean oso maila

altua dagoela. Obra ederrak dira; bai, horixe", zioen ikusle batek.

Obra bakoitza, mundu bat

Aspalditik elkar ezagutzen duten artistak bosgarren aldiz elkartu dira batera erakusteko: "Urtero bat antolatzen dugu, baina aurretan aukera suertatu zen eta Bergaran erakutsi genuen opor aurretik. Orain, Arrasateren txanda da", dio erakusketa Juan Luis Goikolearekin batera komisario lanak egin dituen Iñigo Arregi artista arrasatearrak. Lan hori zertan datzan azaldu du: "Dena presta-

tzeko ardura izan dugu Goikoleak eta biok. Erakusketa baten atzetik lan handia dago, eta kasu honetan, gainera, klaustroa horren handia izanik, artista bakoitzaren formatu handiko obrak ekartzen saiatu gara, horrek dakartzan zailtasunekin".

Klaustroaren bueltan "denetarik" ikusi ahalko da. Gainera, erakusketa ez dio ildo jakin bati jarraitzen; hau da, artista baten lanak ez dauka zerikusirik beste artista baten obrarekin. "Nork bere ibilbidea dauka, nahiko luzea dena, gehienok urte asko daramatzagu-eta artearen munduan. Aukera ona da, bide batez, artista bakoitza ibilbidearen zein puntutan dagoen ikusteko", zehaztu du Arregik. *Begitik*-erako propio obra berria ekarri dute. Abenduaren 19ra arte bisitatu ahalko da erakusketa berezia, astelehenezik zapatuta, 17:30etik 20:30era.

Jon Basaguren eta Kasernarat taldearen kontzertuak Jai Zalen

Azaroko egitarauaren barruan, zuzeneko musika izango da protagonista, aste bukaeran, Euskal Herrian Euskaraz-ek kudeatzen duen Jai Zale tabernan. Gaur, Izaki Gardenak taldeko abeslari Jon Basaguren igoko da agertoki gainera (23:30); Basagurenek ez du inor axolagabe utziko. Bihar, Irungo eta Oreretako Kasernarat taldeak joko du; folk eta rock doinuak eskainiko ditu hiru-koteak. Bi proposamenak dira interesgarriak, eskarmentu handiko musikarien eskutik.

'Kursaal eskura'-ren denboraldi berria hilaren 26an hasiko da

Kursaal Eszenaren kultura eskaintza Debagoienara ere hurbiltzeko, *Kursaal eskura* ekimenaren bigarren denboraldia hasiko da azaroaren 26an, *Carmen* izeneko dantza ikuskizunarekin. Autobusak doan irtengo dira Donostiara: Arrasatetik (18:00), Bergaratik (18:20) eta Antzuolatik (18:35); erreserba egiteko azken eguna hilaren 23a da. Izena eman nahi duten arrasatearrek 943 25 20 00 telefonora deitu edo kultura@arrasate.eus helbidera idatzi beharko dute.

AZKENEKO ERAIKINA
ARRASATE / GIBARRI

Baldintza berriak
943 31 68 68
www.sukia.com

2x
3x



Logelak



Garaje itxiak



Espazio osagarri
batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak



Udal Gobernuko (EAJ eta PSE-EE) eta Bergarako Uri Buru Batzarreko kideak, alkatea erdian dutela. | AMAIA TXINTXURRETA

Alkatetza utziko du Alberdik urte amaieran, "sentimendu handiz"

Ibilbide profesionalarekin jarraitzeko utziko ditu alkate eta zinegotzi karguak: "Talde profesional, langile eta ekintzaile hau bezalakorik ez da egon"

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA
"Herritarrek alkate izendatu nindutenetik bi lanetan ibili naiz. Alde batetik, ibilbide profesionalarekin, enpresa kudeaketan, eta bestetik, alkatetzan. Ohore bat izan da, baina orain, nahiz eta arlo bietan gauzak ondo joan, behartu naute erabaki bat hartzera. Erabakiak izan behar du edo jarraitzea Bergarako alkate, politikagintzan, edo nire ibilbide profesionalarekin jarraitzea. Nire erabakia, familiaren iritzia kontuan hartuta eta etorkizunari begira, izan da nire ibilbide profesionalarekin jarraitzea. Sentimendu handiz, baina urte bukaeran alkatetza utziko dut". Hitz horiekin eman zuen aditzera Juanje Alberdik alkatetza eta Udala utziko dituela. Azaldu zuenez, "zurrunburuak irten aurretik" eman zuen erabakiaren berri Alberdik.

Izan ere, Ulma Architectural Solutions enpresako zuzendari

nagusi da egun, baina urte berriarekin beste kargu bat hartuko du: Ulma Handling Systems-eko zuzendari nagusi izendatuko dute.

"Erabaki gogorra"

Astelehenean egindako agerraldian Juanje Alberdik adierazi zuenez, politika eta gizartegintza "betidanik" izan dira "erakargarriak" harentzat eta "erabaki gogorra" izan dela aitortu zuen. Udal Gobernuko (EAJ-PSE-EE) eta Bergarako EAJren Uri Buru Batzarreko kidez lagunduta, gaineratu zuen harentzat "ohore bat" izan dela Bergarako alkate izatea.

Ordezkoa izendatzeko prozesua

Urte bukaerara arte alkate jarraituko du Alberdik, 2016ko aurrekontuak eta orain arte esku artean izan dituzten proiektuak martxan uzteko. Bitarte horretan, Alberdi ordezkatuko duen pertsona aukeratzeko prozesua jarriko dute

martxan; alkate eta zinegotzi karguak ordezkatuko dituen pertsona, hain justu. Prozesu hori "abendua bukaeran edo urtarril hasieran" gauzatzea espero dute: "Hurrengo 40 egunetan joango gara azalpenak ematen".

Ondoa duen taldearengan "konfiantza osoa" du Alberdik: "Talde profesional, langile eta ekintzaile hau bezalakorik inoiz ez da egon Bergarako historian". Era berean, asteleheneko agerraldian gogora ekarri zuten agintaldi hasieratik liberatuta dagoen Maite Agirrerekin batera Lander Arregi liberatu dutela lanaldi erdirako. Amaieran, esker on hitzak izan zituen Alberdik: "Eske-rrak eman nahi nizkieke EAJri, lanean aritu direnei eta ari diren guztiei, afiliatuei, bozkatu ninduten guztiei, eta baita bergarar guztiei ere emandako konfiantzagatik. Ohore bat izan da. Benetan sentitzen dut erabakia, eta espero dut jendeak ulertuko duela".

Bigarren alkatea jarraian

Bergaran agintaldia bukatzen ez duen bigarren alkatea da Alberdi, jarraian. Izan ere, aurreko agintaldian, 2013an, hain justu, Jesus Elorzak alkate kargua utzi zuen, osasun kontuak argudiatuta, bi urtez alkate egon ostean. Jaione Isazelaiari pasatu zion orduan erreleboa.

Ezusterik ez oposizioarentzat

EH Bilduko Agurte Barrusok zera adierazi du alkatearen dimisioaren harira: "Lehen ere salatu genuen gobernu barik geundela, eta honek hori erakusten du. Gainera, badirudi orain urtarriera arte bere dimisioa iragarri duen alkate batekin egongo garela, eta ez dakigu zeinek hartuko duen alkatetza urtarrietik aurrera. Uste dugu legegintzaldiaren lehen zatia gobernu barik joango dela".

Erabakia ez da ezusteko handia izan alderdiarentzat: "Guk alkateari adierazi genion herrian zurrunburuak bazirela".

Alkate aldaketak gobernuaren eta oposizioaren harremanean aldaketarik ekarriko duen galdetuta, zera dio Barrusok: "Pentsatu nahi dut daukagun harremanen arrazoia ez dela pertsona bera, gobernuaren planteamendua baizik. Baina egia da horrelako aldaketa bat aprobetxatu daitekeela egoerari buelta emateko eta benetan elkarlanean hasteko".

Irabaziko zinegotzi Aiert Lizarralde dio Alberdirengandik "asko espero" zuela: "Baina azken hilabeteak oso gestio txarrarekin joan dira bere partetik, eta orain bat-batean alkatetza uzteak guztiz nahasten du Udaleko panorama". Gaineratu du Irabazik harremanik handiena EH Bildurekin duela, baina "zabalik" daudela EAJrengana eta PSErengana ere gerturatzeko.

Hilaren 25aren harira hainbat ekimen egingo dituzte herrian

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna da azaroaren 25a. Bada, eguaztean, 19:00etan, suaren bueltan akelarrea egingo dute, Martxanterak taldeak antolatuta. Musikarekin eta janariarekin lagunduta, indarkeria sexistarekin lotutako esaldi edo objektuak erreko dituzte.

Eguenean, berriz, hilak 26, Zineforuma egingo dute Zabalotegi aretoan, 18:30ean. Beldur Barik ekimeneko filmak proiektatuko dituzte, eta ondoren solasaldia izango da.

Udalaren adierazpena

Urriaren 26ko bilkuran, EH Bilduk proposatutako adierazpen instituzionala onartu zuen Udalak, erakunde publikoak "borroka honetan lehentasunezko eragile" direla berretsiz.

Batzoki Eguna egingo dute domeka honetan, Joseba Egibarrekin

Batzoki Egunaren harira, domekan, hilaren 22an, meza egingo dute Sierbetan, goizeko hamarretan hasita. Ondoren, eguerdiko hamabietan, ekitaldi politikoa izango da batzokian. Bertan, Joseba Egibarrek, Maria Eugenia Iparagirrek eta Joseba Agirretxeak hartuko dute parte.

PEUGEOTEKO TAILER OFIZIALA BERGARAN

**ESKAINZA BEREZIA
PEUGEOTEKO BEZEROENDAKO**



OLIOA ETA OLIOAREN FILTROA ALDATZEA

69€ + 30 euroko
deskontu-bonua

(BEZa bame) (BIGARRREN ERREBISIOAN TRUKATZEKO)

Bonuaren irautgite-data: fakturaren datatik 13 hilabetera.



**PEUGEOT
ETORMOBIL**

30€ko
BALIOA DU

Fakturaren datatik 13
hilabete baino lehenago
kontsumitzeko.

SALMENTA OSTEKO ZERBITZUAK

- Zerbitzu ofizial integrala ordezkatuta dauden marka guztiendako.
- Mekanikari kualifikatuak prestakuntza espezializatu eta eguneratuarekin.
- Harreman eta bezeroen arretan ordutegi zabala partikularrendako eta enpresendako.
- Ordezkatze-autoen flota propioa daukagu.
- Auto-garbitoki automatikoa doan.
- Karrozeria-zerbitzuak.
- Multimarka zerbitzu azkarra.
- Lehentasunezko arreta profesionalendako eta enpresendako.
- Autoak jasotzea eta entregatzea.

OLABERRENA Z/G
20570 BERGARA
T.: 943 76 33 44
www.etormobil.com

NIRE USTEZ

**ANDRES OSA
'SAKONA'**



Zabor bilketa selektiboa

Gipuzkoa izan da lurrak, ibaiak, itsasoak, atmosferak eta, ondorioz, bertako bizitzak duten arazo larri bati irtenbidea emateko urrats garrantzitsua eman duen lehen eskualdea.

Europatik txaloak. Hemen, ostera, irainak eta desinformazioa alderdi batzuen aldetik. Bilduk pasa den legealdian arazoari atea ireki zion, demokratikoki ireki ere, besterik esan badute ere, hauteskunde programan argi plazaratu baitzuen. Emandako hitza bete besterik ez. Hala ere, zigortua izan da. Bizitzan, batez ere politikan, ona izatea ez da aski, ongi plazaratzen asmatzea ere garrantzitsua da. Orain, atez ateko tramankuluak kentzen eta

biltokietan pilatzen ari dira, edo, beharbada, fundizioan urtzen, nork daki! Makurrak gaituk!

Atez ateko bilketa izan da burrundara gehien atera duen metodoa. Beste bitarteko batzuk ere erabil daitezke. Malgutasunez jokatzeko ongi dago, baina seriotasunak agindu dezala. Igaro den legealdian eginiko lanak aldekoen eta kontrakoentzientziak astintzeko balio izan du. Lurra landua dago. Bilketa selektiboaren arrastoan sartzea beste biderik ez dago. Ez atzera, ezta egingandakoarekin konformatu ere. Birziklatzea, konposta, hor dago abantaila. Lorpen handia izan da. Orain, langa gorenean jarri behar da. Errauskailuak, zabor-tegiak eta antzekoak aitzakia ustelak edo interesatuak dira. Debagoienak eredugarri izaten jarrai dezala.

"Debagoienak eredugarri izaten jarrai dezala"

Guztia gertu hondakinen gaineko galdeketarako

Azaroaren 29ko herri kontsultari buruzko argibideak emateko saioa egin zuten eguaztenean udaletxean

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Azaroaren 29an Bergaran egingo den hondakinen bilketa sistemari buruzko herri galdeketa gaineko informazio saioa egin zuten egubakoitzean udaletxe osoko bilkuren aretoan. Juanje Alberdi alkateak prozedurari buruzko argibideak eman zituen. Kontsultan, herritarrek bozkatuko dute oraingo sistema mistoarekin jarraitu nahi duten edo bost edukiontzien sistema ezartzea nahia go duten. Kasu horretan, organikoaren edukiontzia txipa duen txartelarekin zabaldu ahal izango da.

Uztailean, abuztuan eta iraillean herrian izandako birziklapen tasa erakutsi zuen alkateak. Bertan ikusten da %80ren bueltan ibili zela Bergara.

Datu ekonomikoei dagokienaz, Alberdik adierazi zuen sistemaz aldatzeak guztira 147.000 eurotik gorako kostua ekarriko lukeela Udalarentzat. Edukiontzi berriak erosi beharko lirarteke, hauek muntatu eta kokapen puntuetara

eraman. Bestalde, organikoaren eta errefusaren esekitokiak kendu beharko lirarteke, eta ibilgailu berriak erosi edo alokatu. Kostuen amortizazioa zazpi hilabete eta erditan egingo litzatekeela azaldu du Alberdik.

Bi paper izango dira: laranja kolorekoa oraingo sistemaren aldekoa izango da; eta bestea, zuria, bosgarren edukiontzia aldekoa. Galdera, berriz: *Bergarako udalerrian, zein kontsideratzen duzu hondakinak gaika bilzteko erarik egokiena?*

DATUA

%80

-TIK GORA BIRZIKLATZEA

lortu dute Bergaran aurtengo uztailean, abuztuan eta iraillean

Aurrez bozkatzeko

Hilaren 29an bozkatu ezingo dutenek gaur eta bihar izango dute botoa emateko aukera, udaletxe idazkaritzan. Nortasun agiria, pasaporte edo gidabaimen originala aurkeztu beharko dira.

Gaur goizean, bederatzietatik ordu bi arte egongo da bozkatzeko aukera, eta arratsalde, berriz, lauretatik zortziak bitartean. Bihar, berriz, 09:00etatik 15:00ak arte izango da zabalik.

Parte hartzeko deia

Alkateak herritar guztiei dei egin zien hurrengo domekako kontsultan parte har dezaten: "Atera dadila atera beharreko emaitza, eta parte hartzea ahalik eta handiena izan dadila". Gaineratu zuen galdeketa horrek erakutsiko duela parte-hartze prozesuek nolako erantzuna jasotzen duten herritarren partetik. Alberdik esan zuenez, horrek erakutsiko du "ea parte hartze prozesuak benetan erabakigarriak diren".



Astlehenean egin zuten prentsaurrekoa bi koalizioek. | GOIATZ ARANA

Egungo sistemaren aldeko botoa eskatu dute EH Bildu eta Irabazi koalizioek

Paperetan 'atez ateko sistema' terminoa erabiltzea "herritarrek nahasteko" dela diote

G.A./M.T. | BERGARA

Martitzenean elkarrekin agerraldia egin zuten EH Bilduko eta Irabaziko ordezkariak. Bertan, azaroaren 29rako deitutako hondakinen bilketa sistemari buruzko herri kontsultan parte hartzera animatu dituzte bergararrak, bozka ematea "egungo sistema mantentzeko aukera bakarra" dela esanez.

EH Bilduko Agurte Berruso eta Irabaziko Aiert Lizarralde aritu ziren bozeramaile lanetan. Salatu zuten Udal Gobernuak "inolako kasurik egin gabe eta euren kasa" diseinatu duela kontsulta. Haien iritziz, Bergara Garbia taldea izan da galdeketa diseinatu duena.

Galderarekin ados ez

Paperak izendatzerakoan erabiltako formulazioaren aurka azaldu ziren agerraldian, "herritarrek nahasteko asmoarekin" egindakoa omen dena: "Gaur egun sistema mistoa izenez ezagutzen den bilketa sistema atez ateko izenarekin kamuflatu" dutela salatu zuten.

Gainera, osoko bilkuran onartutako araudiari gerora dekretuz aldatetako egin zaizkiola salatu

dute ezkerreko alderdien ordezkariak, eta kampainarekin lotuta Bergara Garbiak eurek baino lehenago ezagutu zituela Udalak erabiliko zituen datuak, eta horiek, gainera, Mankomunitateko teknikarien txostenean jasotakoekin "kontraesanean" daudela salatu dute.

Gaur egungoaren alde


Oraingo sistemak "ondo" funtzionatzen duela adierazi zuten EH Bilduk eta Irabazik. Egungo sistemak %82ko birziklatze tasa ematen duela diote, bosgarren edukiontzia aldearen %77ren aurrean. Hala, aurreapauso ikaragarritzat dute Debagoienean %34tik %80 birziklatzera eginiko jauzia.

Azkenik, sistemaren aldaketa defendatzeko erabiltzen den 177.884,47 euroko aurrezpenaren argudioaren aurrean, bozeramaileek esan zuten diru hori baino gehiago gastatutako dela errauskailua ordaintzen. Gaineratu zuten azken agintaldian 38 lanpostu sortu direla bilketa sistema mistoari esker, eta, bosgarren edukiontzia jarriz gero, 8 pertsonak lana galduko luketeela.



Hogei herritar inguru bildu ziren eguazteneko informazio saioan. | M.T.

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
ARAZTEGIA - ALTZARIK

ARAZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Felix Leturiaren eta Luis Maria Olalderen hitzaldia egunean

La educación como vehículo para la transformación social izenburua duen hitzaldia izango da datorren egunean, hilak 26, udaletxe areto nagusian. Bi hizlariak curriculum akademiko luzeak dituzte eta hitzaldian euren ibilbide profesionala azalduko dute, eta hezkuntza arloan garatu dituzten jarduerak. Era honetan, erakutsiko dute hezkuntzak gizartea eralda deza keela.

SOS Sahara jaialdia egingo dute domekan gaztetxean

M.T. | BERGARA

Saharari laguntzeko jaialdia egingo dute domekan gaztetxean. 17:30ean hasita, hainbat kontzertu akustiko izango dira kartzela zaharreko taula gainean. Iker Lauroba eta Itsasargiak izango da lehen taldea; haien ostean, Beñat Igarabide arituko da; eta ondoren, Sahara Libre, saharar musikariek osatutako taldea; gero, Folkiak; eta bukatzeko, Emon taldeak emango du kontzertua.

Sarrerak bost euroko prezioa izango du, eta egunean bertan gaztetxean edota aurrez Arrano eta Pol-pol tabernetan izango dira eskuragarri. Batutako dirua sahararrei laguntzeko izango da.

Urriaren amaieran uholde handiak jasan zituzten mendebaldeko Saharan, eta Tindufeko errefuxiatuen gunetan kalte larriak eragin zituzten. 2.500 errefuxiatu baino gehiagok etxeak eta baliabideak galdu dituzte, eta zenbait toki inkomunikatuta gelditu dira. Etxeaz gain, eskolak eta ospitaleak ere hondatu ziren uholdeen ondorioz.

'Euskal Harriaren ABDak', kartzela zaharrean ikusgai

M.T. | BERGARA

Euskal Harriaren ABDak filma izango da gaur, 22:30ean, gaztetxean. 26 film laburrez osatutako pelikula da, bakoitza lantalde desberdin batek eginga. Istorio guztiak beldurrezkoak, zientzia-fikziozkoak edo fantasiakoak dira.

Zinemagile profesionalak, amateurak eta lehen aldiz labor bat grabatu dutenak batzen ditu proiektuak. Labor guztiak euskaraz dira, eta Euskal Herrian eginak.

Bergararrak tartean

Lanen artean, Ander Bolibar bergararraren *Tzalaparta* film laburra dago. Bertan, Miren Ormazabalek ere hartu du parte. Informazio gehiago gaurko PUNTUAN.

Helduendako ipuin kontaketa saioa izango da martitzenean

Oihulari Klown taldeko kide Beatriz Egizabal ipuin kontalariak helduendako saioa eskainiko du martitzenean, hilak 24, Udal Liburutegian. 19:30ean hasiko da ipuin kontaketa, eta ordubete inguru iraungo du.



MIREN LABORDA

Gaztaina erre eguna

Danbolinaren inguruan ospatu genuen gaztaina erre eguna egubakoitzean San Martin Agirre eskolan. Arratsaldean gaztainak jan eta abestu egin genuen. Domekan, berriz, euskal kanta eta jolasen ikastaroa izan zen.

KOMUNITATEA GOIENA
SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLA |

Helduendako eta umeendako antzerkiak asteburuan Zabalotegin

M.T. | BERGARA

Gaur 22:00etan, Glu-Glu antzerki konpainiak *Caperucita feroz* helduendako antzezlan eskainiko du Zabalotegin. Sarrerak 8 eurotan izango dira salgai leihatilan.

Komedia musikala horretan, Txanogorritxuren ipuina gaur egunera ekarri eta irauli egin dute. Benidormeko El Bosque hotelean kokatzen da istorioa, eta Los Caperuza eta Los Lobo familiak ditu protagonistatzat.

Bihar, umeentzat

Zapatuan, berriz, ipuin berean oinarritutako beste antzezlan bat

eskainiko dute Glu-Glukoek, kasu horretan 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat, 18:00etan hasita eta lau euroren truke. *Txanogorritxo* taularatuko dute. Mari Cruz Melgosa produktore eragilearen hitzetan, "oso ikuskizun ikusgarria da", dekorazioarekin eta argiekin jokatzeko dute eta.

Kasu horretan ere, istorio tradizionalari moldaketaren bat edo beste egin diote, "kutsu pedagogikoa" emateko asmoz. Umeen parte hartzea da antzezlanaren oinarria. Hala, abesti ezagunak tartekatuko dituzte, ikusleek kantatu ditzaten.

Muguruzak buruz buruko finalerdia jokatu du

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Gipuzkoako Txapelketaren barruan, partidu garrantzitsua izango du Eneko Muguruza pilotariak gaur iluntzean. Buruz buruko finalerdia jokatu du bergararrak Hernaniren aurka; lehia Munizipalean izango da, pala partiduaren ondoren.

Beste finalerdia Zegamako Udal Pilotalekuan jokatu dute Tartaloetxe 2 eta Beloki elkarteek. Aipatutako bi lehietan garaile ateratzen direnek finala jokatu dute.

Gaur, egubakoitza, hiru partidu jokatu dituzte Bergarako Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita. Lehenengo lehia emakumeen pala txapelketakoa izango da. Bergarako Maider Guridi eta Idoia Agirrezabal bikoteak Intxurre 1 bikotearen aurka jokatu du. Hurrengo lehia Muguruzarena izango da, eta azkena hirugarren mailakoa.

Hirugarren mailako lehia

Nagusietan, hirugarren mailako partiduak jokatu dute Aristik eta Rezustak Lagunak 1 taldearen aurka. Txapelketaren 10. jardunaldia izango da; hurrengo azkena izango da, eta Antigua 2ren aurka jokatu beharko dute bergararrak.



Eneko Muguruza. | GOIENA

Binakako finalerdia

Aste bukaerak beste partidu garrantzitsu bat ere utziko du bergarrendako. Nagusien bigarren mailan, binakako finalerdia jokatu du Bergarak. Etxekoan aldetik Gallastegi eta Iñarra lehiatuko dira. Partidua Azkoitian izango da, bihar, zapatua, 15:30ean. Bergararrak Azkoitiko bikotearen aurka lehiatu beharko dute; azkoitiarren frontoian jokatzeko bergararren kalterako ez izatea espero du Reyes Azkoitiak.

Bergarako entrenatzailea pozik dago Bergarak bi finalerdi jokatu dituelako Gipuzkoako Txapelketan: "Ea ondo jokatzeko eta zortea dugun finala jokatzeko, bai banakakoan eta baita binakakoan ere".

LABEGARAIETA

EMAITZAK

Arrano Zabalik - Birgerias	5-7
River City - Sanpe United	6-6
Errefuxa - HIS	5-0
Vodka Juniors - SVC	7-5
America - Estrella Coja	5-6
Komando Piperrak - Poteo Izarrak	5-10

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Estrella Coja	15	5
2 Errefuxa	15	5
3 Komando Piperrak	12	5
4 River City	10	5
5 America	7	4
6 Vodka Juniors	6	5
7 Poteo Izarrak	4	4
8 Sanpe United	4	5
9 H.I.S.	3	5
10 SVC	3	5
11 Arrano Zabalik	3	5
12 Birgerias	3	5

PARTIDUAK

Azaroak 20, Egubakoitza
22:15 Poteo Izarrak-Vodka/Estrella Coja
23:15 Komando Piperrak-Estrella Coja/
Poteo Izarrak

Azaroak 22, Domeka
16:00 Birgerias-SVC/Arrano Zabalik
17:00 Arrano Zabalik-Errefuxa/SVC
18:00 HIS-Sanpe United/River City
19:00 River City-America/HIS

Seigarren jardunaldia izango da

Jardunaldiko bigarren partiduak txapelketako bi talde indartsuenera neurtuko dituzte indarrak.

Euskadiko ehiza txapelduna

Azaroaren 8an, domeka, Euskadiko ehiza txikiko txapelketa jokatu zuten, Zanbranan. Beterano mailan, Juan Cruz Mendizabal Lizarralde bergararra izan zen onena, *Lagun* txakurrarekin. Mendizabalek bi eper eta bi faisai ehizatu zituen. 27 ehiztarik parte hartu zuten lehia.



NEREA MENDIZABAL

Eskubaloitza taldeak Donibanera egingo du bisita bihar, zapatua

Gipuzkoako lurraldeko txapelketa jokatzeko dabiren taldeak Pasai Donibanen izango du 7. jardunaldiko lehia. Donibaneraren aurka lehiatuko dira bihar, zapatua, 18:00etan. Joan zen astean 25-28 galdu zuten etxean Urolaren aurka Edu Orgazen mutilek.

Sailkapenean aurrean duena hartuko du Bergarak etxean

Sailkapenari begira garrantzi handia duen lehia izango du Soralue Bergarak bihar, zapatua. Etxekoak sailkapeneko azkeneko tokian daude; bada, sailkapeneko azken aurrekoa -DKS- izango dute bisitan, bihar, zapatua, 16:30ean, Labegarietan.

OHARRAK

HITZALDIA HILAREN 29AN

Datorren asteko domekan, azaroak 29, berbaldia izango da, 19:30ean hasita, kultura etxean. Bertan, honako gai hauek jorratuko dituzte: erradiazio elektromagnetikoak, Fiareren eta halako banku etikoaren jarduerak, kooperatiba energetikoak eta *Oparitu* zuhaitz bat egitasmoa.

MIZPIRUALDEKO ASTEA

Hainbat ekintza egiten ari dira asteen Mizpirualdeko egoitzan, Hirugarren Adineko Astea dela eta. Gaur, 17:00etan, Camden Town akademiako eskutik dantza ikuskizuna izango dute, eta 18:15ean, berriz, Moises Azpiazu dantza taldekoena. Bihar, 11:45ean, meza izango dute, eta 13:00etan bazkaria, Alai taldearen emanaldia eta dantza.

Santa Zezilia egunaren bueltan, kontzertuak bihar eta etzi

Gaur, egubakoitza, Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du, 20:00etan, Mariaren Lagundiko elizan. Bihar, berriz, Udal Bandak 10:30ean kalejira egingo du eta 12:30ean kontzertua Udal Pilotalekuan.

Leire Zumalde | Berdintasun zinegotzia

"Norberaren egoera hausnartu eta kontzientzia hartu behar da"

- ▶ Udalak badu protokoloa indarkeria jasan duten emakumeei laguntzeko
- ▶ "Gizarte egiturako arazo moduan" jorratu beharreko gaia da, Zumalderen ustez

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna da azaroaren 25ean. "Salaketa eta kontzientziario eguna, ez dago zer ospaturik, emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da", Leire Zumalde Berdintasun zinegotziaren ustez. Oñatin ere izaten dira horrelakoak? Baduzue herrian gertatutako kasuen berri?

Bai, Oñatin ere gertatzen dira horrelako kasuak.

Ze protokolo du Udalak horrelako gertaeren aurrean?

Udalak genero indarkeria kasuarentako barne arreta protokolo bat dauka. Beldurra duen edo biktima den emakumeak Gizarte Zerbitzuetara edo Udaltzaingoarengana jo dezake laguntza eske. Gizarte Zerbitzuetan horrelako gaiak lantzeko gizarte langile bat izendatuta dago eta horrelako egoera baten aurrean lehenetara eta konfidentzialtasuna bermatuta daude. Larrialdi kasuetan 900 84 01 11 telefonora ere dei dezake, bertan 24 orduz eskaintzen dute laguntza. Indarkeria jasaten duten emakumeek ez ezik, inguruan horrelako egoeraren bat ezagutzen dutenek ere eska dezakete. Eta edozein kezka duen emakumeak ere lasai dei dezake.

Indarkeria eta heriotza muturreko gertaerak dira, baina badira salatu beharreko beste gertaera batzuk?



Leire Zumalde, Foruen plazan, puntu morearen banderarekin. | O.E.

Mota askotako diskriminazio egoerak jasan behar izaten ditugu emakumeok. Hasi indarkeria fisiko zuzenetik, indarkeria psikologikotik, sexu-indarkeriatik

eta antzemateko zailagoak diren mikro-matxismoak izeneko indarkeria sotilagoetara. Horien guztien jabe egin eta aurre egin behar da.

Zapata gorriak eta puntu morea

Azaroaren 25era arte instalazio publiko bat egingo dute Foruen plazan. Elina Chauvet artista mexikarrak Ciudad Juarez en emakumeek sufritzen dutena salatzen egindako lanaren erreplika izango da. Ehun zapata pare behar dituzte horretarako, eta udaletxeko sarreran jarri dute kutxa bat, herritarrek zapatak hara eramateko. Astelehenean tailerra egingo dute Andraitzen lokalean, oinetako horiek gorritz margotzeko. Bestalde, aurrean ere etxer etxer banatuko ditu Udalak puntu moreak, indarkeria matxista salatzen.

Zer egin daiteke hori konpontzeko? Norberaren egoera zein den hausnartu. Emakume izateagatik diskriminazioak nola eragiten duen jabetzea, kontzientzia hartzea. Gizonen kasuan, ez onartzea jarrera diskriminatzaileak eta norberak modu inkonziientean egiten ditugun mikro-matxismo horiek zeintzuk diren identifikatzea, horiek aldatu ahal izateko.

Kontseilu feminista sortu gura du Berdintasun Sailak. Norekin? Zertarako?

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunari aurre hartzeko, helburua duten elkarten eta herritar erakundeen berri emate, proposamen eta partaidetzarako gunea izan nahi du. Hori sortu bitartean ere mugimendu feministarekin elkarlanetik lan egiten dugu, eta gaiarekiko interesa duen oro gonbidatzen dugu gugana jotzera.

Berdintasun teknikaria ere badago orain udaletxean. Ze zerbiztu eman-gio herritarri? Zertan lagunduko dio?

Udal berdintasun politika ezarri behar du, Oñatiko Berdintasun Planaren garapenez arduratu eta Berdintasun Legea betearaztea bideratu. Baita Udaleko politika sail eta departamentu guztietan berdintasuna zehar-lerro bezala ezartzen lagundu. Herritarri begira, gaiarekiko informazio eta aholkularitza eskaintzea.

Azaroaren 25a. Zein mezu zabaldu gura duzue?

Gizarte egiturako arazoa denez, modu batera edo bestera guztioi eragiten digun gai da; horrenbestez, arazoa amaitu nahi bada, gizarte eraldatu behar da. Eta, nola ez, bitartean, indarkeria jasaten dutenei beharrezko arreta eta laguntza ematea egoeratik ateratzeko.

Truke azokarako jostailuak batzen hasiko da Txaloka

O.E. | OÑATI

Abenduaren 12an egingo du Txaloka ludotekak aurtengo jostailu truke azoka eta datorren astean hasiko dira jostailuak batzen. Hiru eguazteten batuko dituzte: azaroaren 25ean, abenduaren 2an eta abenduaren 9an. Ludoteka zabalik dagoen bitartean jasoko dituzte jostailuak, 16:45etik 19:45era.

Umeek ludotekara eraman beharko dituzte trukatu gura dituzten jostailuak. Txalokako begiraleek datuak jasoko dizkiete. Eta ondoren, entregatutako jostailu bakoitzeko, txartel bat jasoko du haurrak. Azoka egunean, ludotekan jasoko dituzten jostailu guztiak egongo dira aukeran eta txartelak eramanda, edozein jostailu hartu ahal izango dute. Trukatu gura diren jostailuak egoera onean egotea eskatzen du Txalokak, pieza guztiekien eta funtzionamenduan.



Udaletxeko balkoian. | O.E.

Udaletxeko balkoia garbitzen dihardute

O.E. | OÑATI

Udaletxeko balkoia hondatuta daude hezetanagatik, eta konpontzen dihardute. Garabi baten laguntzarekin bi langile ibili dira astean beheko balkoia garbitzen eta kalteak konpontzen. Goiko balkoian gauza bera egingo dute. Euriteen ondorioz balkoietako harrietan sartzen joan den urak eragindako hezetan sortu ditu kalteak.



Badatoz Gabonak

Dendetan salgai jartzen dituzten turroiak eta polborioak lehenengo eta kaleetako argiak gero. Gabonak laster datozen bi adierazle. Foruen plazako magnolietan aste honetan jarri dituzte argiak, argi txiki pila batez osatutako sare bana zuhaitz bakoitzean. Abenduan piztuko dituzte.

Janari bilketa egingo dute datorren aste bukaeran

Elikagaien bankurako ez ezik, herriko Acesma elkartearendako diru bilketa ere egingo dute Oñatin

O.E. | OÑATI

Gipuzkoako elikagaien bankura janari bilketa egingo da datorren astean. Oñatiko bilketa, baina, zabalagoa izango da eta elikagaiak herrian banatzeaz arduratzen den Acesma elkartearendako dirua ere batuko da.

Acesmako Ibis Rodriguezen esanetan, eskaera handiena izaten dituzten produktuak jaso gura dituzte Oñatin. "Denda handietan ez ezik, txikietan ere egingo da produktu bilketa eta ondo adierazita egongo da zer jaso gura dugun. Bestalde, aurrerantzean ere elikagaien banaketa Oñatin egiten jarraitzeko diru laguntza jasoko dugu, horretarako egongo diren txartelen bitartez", dio Rodriguezek.

Datorren eguaztenean, hilak 25, bilera egingo dute 27ko eta

28ko bilketa antolatzen. Eltzian izango da, 17:30ean. Lagundu gura duten herritar guztiei zabalduko bilera izango da.

ZELAI

LIKIDAZIOA

- Altzariak
- Bainugeletarako osagarriak
- Argiztapenak
- Opariak

DESKONTUAK % 70

Euskadi Etorbidea 3 • Oñati • Tel.: 943 78 04 04 / 943 78 20 08

Txirrindularitza sailak 50 urte beteko ditu laster

Orain arteko ibilbidea jasoko duen liburu bat prestatzen hasi dira eta argazki zaharren bila dabilta

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak 50 urte beteko ditu datorren urtean eta dagoeneko hasi da urrezko ezteiak ospatzeko egitaraua prestatzen.

Lasterketak

Orain arteko ibilbidea liburu baten jaso gura dute txirrindularitza saileko zuzendaritza daudenek, eta hasi dira lan hori egiten. "Hasi gara lehengo argazkiak biltzen, orain arteko txirrindularien fitxak betetzen eta lasterketako eta bestelako ekin-

tzetako dokumentazioa, informazioa, batzen. Material guztia batutakoan hasiko gara forma ematen. Batutako material guztiak gure artxiboa elikatze balioko digu, eta liburuan 50 urte hauen laburpen osoa jasotzea da asmoa, argazkiekin, testuarekin eta elkarrizketekin", azaldu du txirrindularitza saileko zuzendaritzako kide Kepa Umerezek. "Lehen orain baino argazki gutxiago ateratzen ziren eta ari gara han eta hemen bilatzen, baina herritarrei esan gura diegu etxean argazki edo dokumentu zaharrak



Txirrindularitza lasterketa baten hasiera 1967an. | ARLANZON FUNTSA. GIPUZKOA.NET

izanez gero ekartzeko Aloña Mendiko bulegoetara, lagungarriak izango dira eta liburua egiteko", gaineratu du Umerezek.

Sailaren mende erdia ospatzeko, urteko lasterketa jakin batzuk Oñatin izango dira datorren urtean, Aloña Mendik hala eskatuta. Esaterako, Gipuzkoako Klasika eta Gipuzkoako eskola

arteko errepideko txapelketa. Udaberriari izango dira biak.

Bestalde, hitzaldiak ere egongo dira ospakizunen barruan, eta baita bazkari bat ere. "50 urte hauetan 300 txirrindulari baino gehiago pasa dira Aloña Menditik eta bazkari erraldoia izango da", dio Umerezek. Izen-ematea zabalduko dute laster.

Santa Zezilia eguna ospatuko dute

Kalejirak, txokolatea eta kontzertua izango dira gaur eta domekan

O.E. | OÑATI

Domekan, hilak 22, da Santa Zezilia eguna, eta euren zaindariaren eguna ospatuko dute herriko txistulariek eta Udal Musika Bandako kideek. Baita Jose de Azpiazu musika eskolakoek ere.

Domekan, herriko kaleetan zehar musika egiten ibiliko dira, 10:00etatik aurrera, herriko txis-

tulariak eta Udaleko Musika Banda. Foruen plazatik abiatuko dira eta kalez kale ibiliko dira gero. Eguerdian Santa Zeziliako kontzertua egingo dute bandak eta parrokiako abesbatzek. Santa Ana aretoa izango da hori, 12:45ean, eta herritar guztiendako izango da. Sarrera irekia izango da.

Txokolatea

Musika eskolakoek berriz, gaur, egubakoitza, ospatuko dute musikarien zaindariaren eguna. 17:00etan kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar eta 17:30ean musika emanaldia eskainiko dute berdura azokan. Pieza herrikoiak izango dira joko dituzten gehienak; adibidez: *Begiak parrez parre*

eta *Egia da*. Kepa Junkeraren *Gaztelugatxeko martxa* eta Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoan *Xu, xu, xuabe* kantak ere joko eta abestuko dituzte. Musika eskolako 150 ume inguruk parte hartuko dute ekitaldi horietan.

Musika emanaldiaren ondoren, urtero egin ohi duten moduan, txokolate beroa eskainiko zaie ume guztiei. Musika eskolako umeekin batera herritar guztiak daude gonbidatuta kalejiran parte hartzera eta kontzertua zuzenean entzutera.



Oñatiko komertzio bat Gabonetako apaindurekin. | GOIENA

Gabonetako erakusleihen txantxia sarituko dute

Abenduaren 3a aurretik eman behar da izena

O.E. | OÑATI

Oñatiko Udalak eta Txanda dendari elkarteak VIII. aldiz antolatuko dute Gabonetako erakusleihen lehiaketa. Herriko edozein denda edo komertzio parte hartzailek eta aurtun 500 txantxiko sari berezia egingo da. Sari bere-

zi hori txantxiaren presentzia ongien nabarmentzen duen establezimenduentzat izango da; hau da, ohiko produktu-zerbitzu propioak eta Oñatiko moneta era originalenean aurkezten duenentzat. Horrez gain, beste sei sari emango dituzte: bost epai-

mahaiak emango ditu eta seigarrena herritarren botoek erabakiko dute. Herritarren botoa jasotzeko azken eguna abenduaren 17a izango da. Bozketa horretan parte hartzen dutenen artean, gainera, 200 txantxi zozkatuko dituzte. Beste sari guztiak ere txantxitan emango dituzte.

Sari banaketa

Lehiaketan parte hartzeko, eskaera orria bete beharko dute interesatuek. Udaletxeko harrera bulegoan, Turismo Bulegoan edo sozio-ekonomia sailean dituzte apuntatzeko orriak, eta abenduaren 3a da horretarako azken eguna. Abenduaren 7rako muntaia eginda izan beharko dute denda eta komertzioek, eta horrela mantendu beharko dituzte, gutxienez, abenduaren 31ra arte.

Epaimahaiak erakusleihen diseinua, originaltasuna, argiztapena, gaia, irudimena eta berrikuntza epaituko ditu. Abenduaren 19an emango ditu aditzera irabazleak eta sari banaketa egun berean egingo da, 13:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Berriz botako dute gaur 'Urzulo' filma

O.E. | OÑATI

Joan den astean estreinatu zuten Aloña Mendiko espeleologia taldearen *Urzulo* filma. Lepo bete zen zinema aretoa eta jendea kanpoan gelditu zelako, berriz botako dute filma. Gaur, egubakoitza, izango da, 19:00etan, zinema aretoan. Bilboko mendi film jaialdiaren barruan, abenduaren 18an botako dute Bilboko BBK aretoan.



Xanti Ugarte, egilea. | JOSU BILBAO

Easo hirukotearen emanaldia izango da domekan Santa Anan

Musika Egunak ekimenaren barruan, Miren Urbieta, Erlantz Fernandez eta Arkaitz Mendoza hirukoteak barroko garaitik musika garaikideraino sortzen diren musika estiloak aurkeztuko ditu domekan, 19:00etan, Santa Anan. Cacciniren, Purcellen eta Vivaldiren lanak eskainiko dituzte, besteak beste. Azaroaren 28an Benito Lertxundi etorriko da.

Hiru taldek disko bana aurkeztuko dute bihar gaztetxean

Sumision City Blues taldeak eta Pelax eta Cowboy's Orchestra taldeak joko dute gaur, egubakoitza, Antixena gaztetxean, 22:00etan. Bihar, 21:00etan, disko bana aurkeztuko dute Antihumano, Gela Berezia eta Murdock's Murders taldeek. Hilaren 28an, Uemak antolatuta, euskararen arnaguneen gaineko hausnarketa tailerra egingo dute.

Produktu fitosanitarioen txartela izango dute hizpide

Produktu fitosanitarioen aplikatzaile txartelaren inguruko informazio bilera egingo dute eguaztenean, azaroaren 25ean. Derrigorrezkoa den, zertarako behar den eta nork atera behar duen galderei erantzuteko bilera izango da. Aldundiko bi teknikari izango dira hizlariak. Bailara mailako bilera izango da, irekia, kultura etxean, 11:30ean.

Tomax pailazoa 'Festara' jaialdiarekin dator Urgainera

Errekaldeko guraso elkarteak antolatuta, Tomax pailazoa Urgainera etorriko da abenduaren 12an eta sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko. *Festara* ikuskizunaren bi emanaldi egingo ditu eta bietarako sarrerak jarriko dituzte salgai. Gaur, egubakoitza, txartelak saltzen egongo dira. 16:30etik aurrera, Errekaldeko jolaslekuan.

Mendiko federatu txartelak tramitatzen ari da Aloña Mendi

2016ko federatu kanpaina zabaldu du Aloña Mendiko mendi sailak. Azaroaren 24an eta 26an Aloña Mendiko egoitzan egingo dira, 19:00etatik 21:00etara, tramiteak egiteko. Internet bidez azaroaren 25a baino lehen egin behar da. Helbidea da: alona.federatuak@gmail.com. Estaldura motak eta prezioak Euskal Mendi Federazioaren web atarian ikus daitezke.

150 bat lagun batuko dira Oñatzen bazkarian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Hasitako moduan bukatuko dituzte Oñatz dantza taldeko lagunak 45. urteurreneko ospakizunak: herritarrez inguratuta. Azken ekitaldia herri bazkaria izango da: 150 bat herritar batuko dira kiroldegiko pilotalekuan. Ekital-

diak, baina, 11:00etan hasiko dituzte. Ogitartekoa jan ostean, poteoa egingo dute txistulariekin eta txarangarekin. Bazkaldu ostean, festarekin jarraituko dute: bertso musikatuak, gitarra, akordeoi eta dultzaina doinuak, txistulariak eta trikitilariak egongo

dira. Dantza taldearen iraganak, orainaldiak eta etorkizunak bat egingo dute mahaiaren bueltan, aurreko zapatuan, leku berean, egindako jaialdian bezala. "Hunkigarria", "polita", "ederra", "landua"... eta beste hainbat adjektibo entzun ziren frontoiko har-

mailetan, eta antolatzaileak "gustura" geratu ziren saioarekin eta herritarren erantzunarekin.

Astean zehar egindako bi hitzaldietan ere lagun dezente batu dira Ane Albisuren eta Iñigo Murgiondoren azalpenak entzuteko.



Arrantzale jantzita.



Oñatzeko kideak espata-dantza egiteko gertu.



Bikotea dantzan.



Helduak eta umeak dantzan Foru plazan.



Ane Albisuren hitzaldiko uneetako bat.



Hamabiko Itai-dantza.



Oñatzeko kideak buruhandiekin eta txorimaloekin. | ARGAZKILARIAK: IMANOL SORIANO, MIREIA BIKUÑA ETA OÑATZ DANTZA TALDEA

2016ko udal egutegirako irudiak aukeratuta

Herritarrek bidalitako 66 argazkien eta ilustrazioen artean aukeratu dituzte 2016ko egutegirako hamabiak. Bestalde, portadan Asier Egañaren erretratua joango da – ondoko argazkia-. Guztira, 700 egutegi egingo dituzte eta udal zerbitzu, ikastetxe, denda eta bestelako lekuetan banatuko dute.



ASIER EGAÑA

NIRE USTEZ

MIREN ZUBIA



"Nik? 100 buruz, 200 barruz..."

90, 60, 90; hori esan eta guk men egin, leloak bagina bezala. Neuririk gabeko gizakia nahi nuke izan. Itxurak itsututa darabilgu pausoa. Itxurak zikinduta bidea. Itxuraz kutsatuta barrua. Ispiluetan bihotzak islatuko balira sikiera...

Dirua sortzen duen makina bihurtu dugu mundua, ongietorriak dira, beraz, gezur, berekoikeria eta, nola ez, pertsonen sentimenduekin malabareak egitea helburu duten jolasak.

Itxura eta pertsonengan eragiteko gaitasuna, horixe dute giza arma hiltzaile. Garratza du zaporea baztertuta sentitzeak. Lekuz kanpo zure izter, sabel, bular zein atzealdearen tamaina "egokia" ez izateagatik. Horrekin jolastea nahi izan dute, eta baita irabazi ere!

Eror zaitetz, utzi zure burua erortzen. Horixe baita bide erraza. Zergatik ez jarri, bada, gustatzen zaizkidan bularrak? Zergatik ez perfektua den sudurra? Zergatik ez argaldu kirurgia txiki batez? Zergatik ez utzi milaka euro edertzen?

Amildu zu ere galdera hauen erantzunera, tira, gal zaitetz hain tentagarria den perfekzio horretan eta gero ohartu zergatik botatzen dituzun opariak biltzen dituzten paper dotore horiek barruko gozatu ahal izateko.

"Nik 90,60,90" esaten dizueten egunean, erantzun ezazue harrotasunez: "Nik? 100 buruz, 200 barruz eta 1.000 bihotzez".

"Dirua sortzen duen makina bihurtu dugu mundua"

OHARRAK

SARRERAK

Iparragirre Oñatin antzerkia egingo du Olaiturri Kultura Elkarteak abenduaren 5ean. Bada, sarrerak salgai daude Txokolateixan eta kultura etxean. Emanaldirako sarre- eta liburua, bost euro.

ERRETIRATUAK

Lagun Lekun gaztaina erre- eta sagardoa izango dituzte bihar, zapatua, 18:00etan.

Edukiontzia txiparekin edo atez atekoa aukeran

Aho batez onartu du galdeketa egitea udalbatzak; urtarrilaren 24an izango da, eta aurrez bozka daiteke

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egin zuen astelehenean Aretxabaletako udalbatzak, eta Osakidetza gainekeko protokoloa onartu zuten. EH Bilduk mozio bidez eskatu zuen Debagoieneko ospitalean egin ahal izatea erresonantzia magnetikoak, eta ez ospitaleko atarian dagoen kamioi batean. Bat etorri ziren udalbatzako kide guztiak.

Bi aukera, helburu bakarra

Hondakinen bilketa sistemaren gaineke galdeketa egitea ere aho batez onartu zuen udalbatzak. Unai Elkoro alkateak orain dela aste batzuk iragarritako lez, urtarrilaren 24an izango da hori, eta bi sistemaren artean hautatu beharko dute aretxabaletarrek.

Galdera honako hau izango da: *Aretxabaletako udalerrian zein kontsideratzen dugu hondakinak gaika biltzeko erarik egokiena?* Eta aukerak bi: batetik, bosgarren edukiontzia, hau da, edukiontzien bidez gaikako bilketa egitea, organikoarena eta errefusarena txipdun edukiontzia izanik; eta bestetik, atez atekoa, hau da, orain arte legez edukiontzi indibidualen bidez gaikako bilketa egitea, organikoak, ontzi arinek, paperak eta errefusak ordutegia eta egutegia izanik.

Herritarrek aukeratzeko duten bietako edozeinekin gutxienez

%70eko gaikako bilketa lortu beharko da. Helburu hori lortzen ez bada neurri zuzentzaileak hartuko dituztela iragarri zuten, eta horiek ere zehaztuta dauzkate. %75etik beherako emaitzak lortzen badira, argibideak emango dizkiete herritarrei eta ikuskatzaileak jarriko dituzte. Eta bilketa %70etik beherakoa bada, informazioarekin batera ezohiko neurriak hartuko dituzte; ordutegia eta egutegia ezarri, esaterako.

Jasotako hondakinen kalitatea ere aztertuko dute, eta, organikoari dagokionez, inpropio kantitateak %5etik beherakoa izan beharko du.

Astebete aurrez bozkatzeko

Galdeketa bozkatu ahal izango dute Aretxabaletan erroldatuta dauden 18 urtetik gorakoek. Kampainak hamabost egun iraungo du, eta aurrez bozkatzeko aukera egongo da, urtarrilaren 14tik 21era bitartean, hain zuzen ere.

Galdeketa emaitza loteslea izango dela iragarri dute, erroldatutako herritarren %33k bozkatzen badute, gutxienez. "Erroldatutakoen heren bat da, iritsiko garelakoan nago", dio Elkoro.

Udal Gobernuak, gainera, parte-hartze eta galdeketa ordenantza bat garatzeko konpromisoa hartu du.



Udalbatzako kideak eta hainbat herritar elkarretaratzean. | M.A.

Parisko atentatuak gaitzetsi ditu Udalak

Parisen gertatutako atentatuak "erabateko irmotasunez" gaitzetsi zituen astelehenean Udalak, eta elkartasuna adierazi zieten biktimen senideei eta adiskideei elkarretaratzea eginda. "Bete-betean arbuiztzen" dutela edozein indarkeria mota gaineratu zuten udal ordezkariak.

Jose Luis Arratibel: "Parrokian ditudan ardurak urtarrilean utziko ditut guztiz"

50 urte bete ditu sakristau lanetan eta domekan omenalditxo egingo diote

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Jose Luis Arratibel (Larrea, 1945) sakristaua erretiratu egingo da. Eta parrokian kideek omenalditxo egingo diote domekan, azaroak 22, 11:30ean. Santa Zezilia eguna izanik, Aretxabaleta Abesbatzak abestuko du meza nagusian, eta ondoren, haiekin joango da bazkaltzera Arratibel.

Otoitzean latinez eta euskaraz

"Urte asko dira eta erretiratzeko ordua iritsi zait", dio, eta gaineratu du: "Poliki-poliki ardurak uzten noa, baina guztia utzi gura dut. Izan ere, oraindik beti telefonoarekin aldean ibili behar izaten dut, eta ezin naiz joan inora lasai".

Gasteizen jaio eta Larrean bizi izan zen gaztaroa. 1965ean etorri zen Aretxabaletara, eta segituan hasi parrokian lanean. Abade asko ezagutu ditu 50 urtean: "Don



Jose Luis Arratibel. | M.A.

Angelek, On Pedrok eta On Bitorianok urte asko egin zituzten. Gero, mugimendu handiagoa egon da: Antonio Astigarra, Jesus Ortiz de Urbina, Anjel Elorza...". Gogoan du lehenengo urteetan latinez egiten zuela otoitz, eta ondoren

hasi zen euskaraz: "Neu izan nintzen parrokian arrosarioa euskaraz otoitz egin zuen lehenengoa".

Atzetik datorrenik ez

Meza esateko behar diren kontu guztiak gertatzen ditu, negu partean berogailua jarri... "Hori eta beste hainbat lan daude, eta horretarako ordubete lehenago egon behar da parrokian", dio.

Ardurak uzten joan arren, urtarrilean esango du agur betiko: "Errege Eguna pasatu ostean". Sakristauaren hutsunea askok igarriko dute Aretxabaletako parrokian: "Txanda zeinek hartuko duen? Ez dakit ba... Egun bateko lanak egiteko badago jendea, baina urteko egun guztietan egon behar da hemen, egunero-egunero...". Eta jende gaztea falta dela dio: "Gregorio Gavilano erretiratu zenean hasi nintzen neu ere 20 urterekin".



Ez gara Palestinaz ari ikuskizunean kantuan. | IMANOL SORIANO

'Emakumeenganako indarkeriarik, ez!' aldarrikatze eguna

Elkarretaratzea dago eta gero 'Ez gara Palestinaz ari' ikuskizuna

M.A. | ARETXABALETA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren bueltako adierazpen instituzionala onartu zuen aho batez udalbatzak astelehenean egindako osoko bilkuran. Horrekin konpromisoa hartu zuten tratatu onen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde udal politika aktiboa eta koordinatua garatzeko. Eta herritarrek gonbidatu zituzten berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonal eta kolektiboak hartzera eta azaroaren 25aren bueltan egingo diren ekitaldietan parte hartzera.

Plazan 19:00etan

Emakumeenganako indarkeriarik, ez! leloarekin egingo dute

elkarretaratzea datorren eguaztenean, hilaren 25ean, Herriko Plazan, 19:00etan. Eta ondoren, 19:30ean, *Ez gara Palestinaz ari* ikuskizuna izango da Arkupen.

Eguenean, ostera, *La fuente de las mujeres* filma (Frantzia, 2011, 136 minutu) emango dute zineklubaren barruan, 19:30ean.

Autodefentsa ikastaroa

Bestalde, abenduaren 12an emakumeendako autodefentsa ikastaroa izango da kiroldegian (10:00-14:00 eta 15:00-19:00). Izena aurrez eman behar da, azaroaren 23tik 27ra bitartean, udaletxeko harreran, hara deituta (943 71 18 62) edo Berdintasun Sailera idatzita; hona helbidea: berdintasuna@aretxabaleta.eus.

AITOR ATXEGA | MUSIKARIA

"Gazteak gonbidatuko nituzke, baina denon babesa behar-beharrezkoa da"

Ez gara Palestinaz ari ikuskizuneko musikaria da Atxega, eta ekitaldira gonbidatu gura ditu herritarrek.

Zelako ekitaldia da?

Ikuskizun bat da; ñabarduraren bat eranstekotan, sentikari bat izan daitekeela erantsiko nuke. Hala ere, zehazten hasita, gauza askotatik pixkana bat du: musika abestua, musika instrumentala, propio emanaldirako sortutako irudi batzuk, poesia, antzerki bidez umore asko...

Eta gaia emakumeen bueltan?

Funts-funtsean Anderrek eta Unai lehenengo pertsona egiten duten konfesio bat izan daiteke. Alegia, bene-benetako eta bizitako kontuak dira kontatzen direnak. Batak zein besteak prozesu terapeutiko bat pasa dute bizitzan zama bilakatu zaien hainbat konturi buelta emateko: aita, ama, transmititu zaizkien minak, neskak inguratzeko kontuak, gizon rol edo patrioiak edukitzearen zailtasunak...

Zein gonbidatuko zenukete, bereziki, ikuskizunera?

Edonorentzat egokia delakoan nago. Aspaldion gauza latzak entzuten ari gara; jarrera anker eta bihozgabeak emakumeen aurka. Eta gogorra, gazte asko dela tarteko. Iruditzen zait sentiberatasun bat falta dela edo ergeltasun oso primarioak ugaritzen ari direla. Hauek alde batera uztea eta beste bidezidor batzuk hartzea gazteen kontua dela iruditzen zait. Beraz, gazteak, bereziki, gonbidatuko nituzke, baina denon babesa beharrezkoa da bide honetan.

Ikuskizun horren bueltan zeintzuk zaudete?

Urte eta erdiko lana hartu zigun, eta, egia esan, jende askok lagundu digu. Momentu honetan lau pertsona gabiltza, Unai eta Anderrek kantatzen eta antzeztzen dute eta Imanol eta biok musikaren arloa darabagu. Eta, batez ere, entzulea! 50 emanaldira goaz, eta bada zerbait.

Heziketa saioak hasi dituzte UDAkoek Igor Jauregirekin

Entrenatzaileekin jardun zuen astelehenean eta datorren martitzenean gurasoekin elkartuko da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Kirol psikologian aditua den Igor Jauregi futbol jokalaria ohiak gidatuta, heziketa saioak jarri ditu abian Aretxabaleta kirol elkarteak. UDAko entrenatzaile eta teknikariendako egutegia zehaztu dute eta lehen saioa astelehenean izan zen.

Hamabost entrenatzaile

Futboleko alor taktikoa eta fisikoa garrantzitsuak izanik ere, beste aspektu batzuk jorratu gura ditu Jauregik: "Entrenatzaile postuan daudenek landu behar dituzte, besteak beste, jarrerak, erlazioatzeko moduak eta taldea gestionatzeko erak". Astelehenean hamabost bat kiderekin elkartu zen eta argi utzi zuen ez datorrela ikastaro bat ematera, hartuemanetarako gune bat sortzera baizik: "Espazio bat sortuko dugu

entrenatzaileek truka ditzaten ezagutzak, kezak eta zailtasunak. Eta nik, nire esperientziatik, koordinatu egingo dut hori". Guztira, zortzi saio egingo dituzte ekainera bitartean.

Martitzenean gurasoekin

UDAren inguruan dabilzanezi, batez ere gurasoei, bideratutako saioak ere izango dira. Martitzenean da lehen, 18:30ean, Ibarra kiroldegian, eta landuko dituzte jokalarien, gurasoen eta elkarrearen arteko harremanak. "Jokalaria giza eta kirol garapenean elkarrekin lagun egitea da kontua".

UDAko ordezkariak jakinarazi dute izena ematea komeni dela. Horretarako, zuzendaritzako kideengana jo edo mezu bat bidali honako helbide honetara: udaretxabaletake@gmail.com. Azken eguna gaur da.

FRONTENIS TXAPELKETA MISTOA

Donostiarrak izan dira jaun eta jabe

Elena Artieda eta Javier Crespo izan dira lehenengo frontenis txapelketa mistoko txapeldunak. Maite Fraile eta Mikel Iturri aretxabaletarrak izan zituzten aurrez aurre finalean, baita aise garaitu ere, 22-9.

Aretxabaleta kirol elkarteak lehenengoz antolatu du txapelketa eta oso pozik daude izan duen harrerarekin: "Balarazioa oso positiboa da, bai parte-hartzaile kopuruari dagokionez, bai frontoian izandako giroagatik", jakinarazi dute, eta gaineratu: "Urtero antolatu behar den txapelketa izan behar dela esan zuen batek baino gehiagok".



Javier Crespo eta Elena Artieda txapeldunak, sariek. | UDA

Film labor onenaren saria eman diote Kepa Errastiri Madrilgo Lesgaicinemad jaialdian

M.A. | ARETXABALETA

Estatu mailako film labor onenaren saria eman diote Kepa Errastiren *Aitona mantagorria* lanari. Madrilgo Lesgaicinemad festibalean jaso du saria, hain zuzen ere, Estatuan egiten den alor horretako jaialdirik garrantzitsuenetakoan.

"Ezusteaz hartu dut berria, ez nuen inondik inora espero. Pentsatu izan dut euskaraz denez publikoarengana iristea zailagoa izango dela...", adierazi du Errastik, eta gaineratu: "Berandu jaki-

narazi ziguten eta saria jasotzera ere ez nuen joaterik izan, baina oso pozik nago".

Familia bateko kideen arteko harremanak ditu ardatz filmak, eta Errastik zuzendari eta aktore lanak egiten ditu. Aurretik ere saritua dute *Amona mantagorria*: Lekeition gidoi onenaren saria jaso zuen iaz eta Pasaian, Ikuska jaialdian, euskarazko film labor onenarena. "Gainera, hara eta hona zabaldu dute filma, Txinan eta Hego Ameriketara ere ibili da; hortaz, ezin hobeto!".

Ekuadorko proiektuaren berri emango du Hiruatxek eguenean

Txokolatearen gaineko argibideak eman eta dastaketa ere izango da

KOMUNITATEA GOIENA | HIRUATX ELKARTEA | ARETXABALETA

Hiruatz bultzatzen ari den proiektua Ekuadorko Napo probintzian dagoen eta gaur egun indarra hartzen ari den Wiñak nekazaritza-artistak elkartearen kokatzen da. Irabazi asmorik gabeko elkarre bat da, eta probintzia horretako komunitateetako 211 bazkidez osatuta dago -64 gizon eta 147 emakume-, indigena kitxua guztiak.

Ekuador, tradizioz, kakao ekoizle garrantzitsua da eta gaur egun nazioartean oso ezaguna da, kakao fin eta usaindunaren munduko ekoizpenaren %61en hornitzailea baita. Kakao ekoizten duten Ekuadorko zona horiek oso aberatsak eta oparok dira baliabide naturaletan; horri esker, produktuak zapora eta aroma ezin hobeak garatu ditu. Napoko probintzia ekoizpen ahalmen handiko lurraldea da. Bertan, 5.100 nekazarik, horietako gehienak indigenak -kitxua %68, kolonoak %32-, usain gozoko kakao finaren 6.885 hektarea inguru lantzen dute.

Wiñak elkartearen helburua honako hau da: elkarkideen ekoizpena eta emankortasuna



Emakumea kakaoarekin. | HIRUATX

(produktibitatea) hobetzea eta kalitate eta nortasunez lortutako produktu eta zerbitzuak merkaturatzea, guztientzat bidezko irabazia lortuz eta baliabide naturalak babestuz. Horretarako, giza oinarriaren beharrei erantzuten dieten hainbat estrategia garatzen ditu; besteak beste prestakuntza, ekoizpena, eraldaketa, zerbitzuak eta inbertsio kutxa herritarra.

Hiruatz proiektuaren helburu orokorra da duintasunez bizi ahal izateko ekonomia endo-

geno bat bultzatzea; horretarako, ekoizle txikiz osatutako elkarteak sortzen lagunduko dute eta beren elikagai-subirautza sustatuko duten eta gaitasun eta aukera ekonomikoak indartuko dituzten truke ekonomikoak eta iraunkortasun ekosistemikoa bultzatuko dituzte.

Wiñak, nagusiki, emakumez osatuta dagoen erakundea da. Bere giza oinarriaren %70 emakumeek osatzen dute. Proiektu horren bitartez, emakumeen ahaluntzea lantzen da, eta baita beren eskubide ekonomikoan lortze bidean aurrerapausoak ematea ere. Horretarako, lidergoa lantzen da, emakume liderrak prestatuz, eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak txikitzeko ekintzak gauzatuz.

Aurkezpena eta dastaketa

Horren guztiaren berri emango du Hiruatxek azaroaren 26an, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Irekia da hitzaldia, eta bi zati izango ditu: batetik, proiektuaren aurkezpena; eta bestetik, Oñatiko Txokolateixako Anton Azpiatzuren azalpenak kakaoaren eta txokolatearen gainean; dastaketa ere egongo da.

'Argazkizkiak' IV, Loramendiko helduen literatura lehiaketa abian

KOMUNITATEA GOIENA | LORAMENDI ELKARTEA | ARETXABALETA

Argazki bat eta testua aurkeztu behar dira eta lotura izan behar dute, biek lan bat osatu behar dute. Testua edozein generotakoa izan liteke -bertsoa, poesia, ipuina...-, A4 tamainako orri aurkeztu behar da eta argazkia, berriz, 30x40 neurrikoa. Gaia izango da: desioa.

Lanak Loramendiko bulegoan aurkeztu behar dira kartazal batean. Abenduaren 10a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Kartazalean ezizena jarri behar da eta barruan beste kartazal baten datu pertsonalak: izena, abizena, helbide elektronikoa eta telefonoa.

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 18an izango da udaletxe zaharrean, 18:30ean. Tribunal Loramendiko kultura taldeak osatuko du eta hiru sari emango dira: lehenengoari 100 euroko elkar bonua; bigarrenari 60 euroko elkar bonua; eta hirugarrenari 40 euroko elkar bonua. Gainera, Errigorako otarreak jasoko dituzte hirurek.



JOSE IGNAZIO ISASMENDI

Txapeldunei, urdaiazpikoak

Tute eta mus txapelketak jokatu zituzten Basotxoko erretiratuek joan den egubakoitzean, eta txapeldunek urdaiazpiko bana jaso zuten. Tutean izan ziren Lazaro Alvarez eta Francisco Perez; eta musean, Ladislao Gonzalez eta Juan Aldai. "Eguna amaitu genuen afari goxo batekin eta lagun giroan", jakinarazi du Isasmendi presidentek.

'Atxabaltako kuentisten' azken saioa bihar liburutegian

Nerea Egurza eta Helena Fernandez aretxabaletarrek ipuin kontaketa saioa egingo dute bihar, azaroak 21, Udal Liburutegian. 4 eta 6 urte arteko neska-mutikoendako saioa izango da eta gurasoak ere egon ahal izango dira horietan. *Atxabaltako kuentistak* ekimenaren azkeneko saioa izango da.



Egungo birziklatze tasa aldarrikatu du oposizioak

- ▶ Hondakinen gaikako bilketa jasangarriaren aldeko konpromisoa eskatu du
- ▶ Udal Gobernuak "harriduraz" hartu du oposizioaren jokabidea

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Atzo, eguena, ezohiko osoko bilkura zegoen deituta gai bakarria lantzeko: Eskoriatzako Irabazi udal taldearen, Elizateen Elkartearen eta EH Bilduren mozioa: *Demokratikoki aukeratutako hondakinen gaikako bilketa sistema jasangarri baten aldeko konpromisoa adierazteko eta hondakinen prebentziorako tokiko plan bat egitekoa.*

Gaikako bilketari esker Eskoriatzako birziklatze tasa %75 ingurukoa dela azpimarratu ondoren, oposizioa alderdiek aitortu dute "egungo birziklatze tasa murriztuko ez duena eta herriak demokratikoki aukeratutakoa" izango litzatekeela egoerarik onena. Edozein modutan, uste dute "proposamen jasangarriak bilatzeko bidea dela, hondakinen murrizketa eta berrerabilpenean oinarritutako politika aurreratuak lehenetsiko dituen". Horrekin batera prebentzio neurriak aldarrikatzen dituzte hondakinen sortzea saihesteko. Hori guztia

abiapuntu, bost puntutan zera eskatzen dute: gaur egungo birziklatze tasak mantentzea. Hori lortu ezean, gaikako hondakinen bilketa sistema berrikusi egingo litzateke eta hobetu. Hondakinen prebentziorako tokiko plana egitea. Eta elizateetan eraginik ez edukitzea galdeketa emaitzak, "kontuan izanik elizateetako egungo bilketa sistemak emaitza bikainak ematen dituela".

"Harridura eta inposizioa"

Udal Gobernuak ezohiko osoko bilkura egin aurretik mozioaren gaineko irakurketa guztiz kontrakoa egin du: "Orain arte, prozesu honetan aho batez onartu dira erabaki guztiak, eta, horregatik, harridura geratu gara". Euren esanetan, "hau da lehenengo aldia Gobernuan dagoen taldearekin ez dela kontatu ezertarako. Ulertezina da, eta salaketa serio bat egiteko modukoa da, mozio honekin kontsulta bera kuestiona daitekeelako. Izan ere, mozio hau onartzen bada, herri-

tar batzuek bozkatu ahal izango dute, eta eurentzat ez du eraginik izango, laugarren puntuari adierazten den moduan". Hala dio laugarren puntuak: *Kontuan izanik elizateetako egungo bilketa sistemak emaitza bikainak ematen dituela, eta onarpen maila altua duela, galdeketa emaitzak ez du eraginik izango elizateetan.*

Horren aurrean, irizpide bat inposatzen saiatu direla adierazi du Joserra Zubizarreta alkateak, eta hori larria dela. "Herrian daukagun zabor bilketa inposatutakoa da, eta momentu honetan herriari eman nahi zaio aukera bozkatzeko eta erabakitzeke, eta hori nolabait mugatu nahi da. Mozio honen bidez saiatzen ari direna da bi mailatako eskoriatzarrak bereizten. Bozkatu denok bozkatu ahal izango dugu, eta, berriz, eragina batzuegan bakarrik egongo da? Ez dakit herriak erabakiko duenaren beldur diren edo zer".

Zubizarretak azpimarratu du ekainetik, lehenengo bilkura egin

zenetik, "batzorde guztietan erabakitakoa berretsi" dela osoko bilkuretan, eta "bada kasualitatea justu bukaeran honekin etortzea. Hori ez da joko garbia", gaineratu du.

Horrekin batera salatu du, aurreko legealdian ezarri zen sistema "alkatearen erabakiz" egin zela, eta ez osoko bilkuran erabakita. "Hasieratik, garden-tasun osoz jokatu dugu, batzorde eta bilkuretan, eta azaroan mozioarekin datoz. Inposatu nahi badute, herriak jakingo du, eta ea zer gertatzen den bilkuran. Guk aurka botatuko dugu; izan ere, egubakoitzean, azaroaren 13an, izan genuen mozioaren berri, eta gure jarrera horren aurrean kontrakoa izango da. Gainera, bozketa ez doa alde horretatik, hondakin bilketa modua da jakin nahi duguna. Hiru galdera jarri ziren adostasuna lortzeko, atez atekoa, bosgarren edukiontzia eta mistoa. Portzentaje batzuk lortzeko ez dugu bozketa egin behar, herriak nahi duen hondakin sistemaren gainekoa egin behar dugu. Inposatutako sistema batean hain emaitza onak badaude, herriak erabakitako sistema batean ez dira emaitza onak izango?" bota du alkateak.

Ezohiko bilkuraren xehetasunak Goiena telebistaren eta *Goiena.eus* atariaren bitartez jarraitu ahal izango dira gaur, barikua. Artikulu hau idaztean osoko bilkura egin barik zegoen.

NIRE USTEZ



MARISOL ANDRADE

Hezi nazazu, baina politto

Azaroan gaude eta geure jenioak ikastetxeetan daude. Zeinendako hezten dugu? Izaten hezten dugu? Zertarako? Askatasunean hezten dugu? Amaren gisa, haurtzarora ikasteko bidea izan dadila espero dut; bai jokoen bidez, bai konfiantzaren bidez, bai errespetuaren bidez, baina bakearen bidez, gehienbat. Maria Montessorik bere liburuan argitaratu zuen bezala: *La educación de la paz*. Non irakurri zein idazteko lehenengo pausoak berezko ematen baitira, eta funtsezkoena nola komunikatzen garen baita. Landatzeko era *inkontzienteki* izan dadila, non bakoitzaren alea, barnekoa; berez elikatzen zein oxigenatzen da. Ale hori ez da zapaltzen, ez ukitzen, ez robotizatzen, ez industrializatzen, ezta manipulatzeko gizakiaren beharren arabera ere. Beldurrak paralizatzen gaitu ea gure seme-alabek lortuko duten norbait izatea. Baina erantzun paregabeena, ezta? "Izan daitezen benetan gure dutena izatea?". Umea bere maisua-andereñoa baita. Eta maisuak edo andereñoak bide-kideak izan beharko lirake; gidatzeko, laguntzeko, entzuteko... Umeak ez badu ikasi nahi, hor dago gakoa, hor arazoa. Ikastea berezkoa baita, barnealdetik kanpora doa, jaikitzen garenetik aktiboa baita. Bestela, agresiboa da, inbasiboa, ez da izan behar behartuta. Ez dugu helburu gisa eduki behar memorizatzea; azterketak, etxeko-lanak... Informazioa gordeta dago; informatizatuta, liburuetan, hainbat euskarritan. Erakutsi behar dieguna hauxe da: non dago informazioa, zereketzen ditu, zer da ezagutu gure dutena, nola azaldu barnean daukatena, bere burua prestatzen bere arazoak konpontzeko era integrean, sozializatze gaitasunekin, sormena lantzen eta sistema gogortxo batean egokitze gaitasunekin. Heziketa eskubide bat da, guraso eskubidea zein erresponzabilitatea bere umeekiko. *Beharrezko* hitza soberan dago *heziketa* hitzaren ondoan. Familiak hezitzaileekin batera lan egin behar du, nire ustez. Elkartzen zaien onurako lana egin: umea baita onura hauxe. Biodibertsitate bizitzaren iturria bada, non pertsona ezberdinek talentu ezberdinekin jenio mundu bat sortzen duten. Orduan, jenioa bera sortzen baita, bai erruengatik, eta ez soilik antzemankizunagatik. "Umearen ahotsak balore gutxi badu entzutea ahaztu dutenentzat", J. K. Rowling, *Harry Potter* sagaren idazlea.

Hainbat ardo mota dastatzeko aukera izango da bihar, zapatua

Leku askotako ardoak, odoloste pintxoak eta foie bereziak probatzeko aukera egongo da plazan

I.B | ESKORIATZA

Hamaika urte beteko ditu aurtun Atxorrotx Kultur Elkartek antolatutako ardo dastaketak. 18:30ean hasiko da, herriko plazan, eta txistulariek alaituta egongo da. Guztira, 400 pertsona ingururentzat aurreikusita dago jaia, eta bertan, hainbat ardo mota, odoloste pintxoak eta foie bereziak egongo dira salgai. Salmentaren funtziona-

mendua, berriz, urtero egin ohi den modukoa izango da.

Ardoei dagokienez, mota hauek egongo dira probatzeko: Italiako Moscato zuria, Hegoafrikako Golden beltza eta Burdeosko ondu beltza. Espainiako ardoetatik, berriz, Tierra Castilla, Toroko Picaro ardo eta Mallorcako ondua; Errioxakoetan: 1808, Fincas de Landaluze eta Circus. Eta Rioja Vega postuan: Rioja Vega



lax, hainbat herritar batu ziren ardo dastaketan. | IMANOL SORIANO

ondua, Entreflores verdejoa, Albret gorria eta Alba Vega albariño zuria. Foie berezia k eta Italiako, Hegoafrikako eta Burdeosko ardoek bi txarteleko balioa izango dute. Besteak, berriz, euro baten truke salduko dira.

Hutsa taldearen lan berria

Hutsa taldeko Eriz eta Maria bikote akustikoak laugarren diskoa argitaratu berri du, *Amnesia* izenekoa. Disko berria ezagutzeko, Inkernun kontzertua eskainiko dute gaur, 23:00etan.

'Sucedió en otoño' antzerkia domeka honetan Zaldibarren

Gasteizko antzerki eskolako taldearen lana gaztelera izango da domekan, lau eurotan, 19:00etan, Zaldibarren. Iratxe Gallardok zuzendutako lana; Piedad Larrañaga, Nati Pozuelo, Andoni Markinez, Jesus Cancelo eta Saray Lucsek antzeztuko dute. Horieta bat eskoriatzara da, gainera, Nati Pozuelo.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen 'Amalur' lana ekarriko dute Eskoriatzara

I.B | ESKORIATZA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots urteroko ekitaldia egingo dute Eskoriatzan. *Amalur* lana ekarriko dute, eta bihar izango da antzezlana, 17:30ean, kiroldegian.

Urtero, sarrerak salgai jarri bezain pronto, denak saltzen ziren; aurtun, aldiz, ia guztiak saldu arren, gutxi batzuk geratzen dira oraindik salgai sei eurotan.

Pailazoen baserrian

Pailazoen baserriera joango dira, Marimototsengana. Hura bertan da Ilargirekin ikasten, baserri-tarra izan nahi baitu. Baserriko lanetan lagunduko diote denek Ilargiri, haurdun dago eta. Laster jaioko da umetxo. Baserri-tarra lurren du ama, eta, amak bera zaintzen duen bezala, zaintzen eta maitatzen du berak ere lurren.

OHARRAK

DIRU LAGUNTZA UKATUTA

Udal Gobernuak diru laguntza ukatu dio Atxorrotx Kultur Elkarteari. Horretarako erabilitako argumentua izan da Udal Gobernuak zalantzak dituela elkarte irabazi asmorik gabeko elkarte ote den, besteak beste, bi taberna kudeatzen dituelako -Atxorrotx Kultur Elkarteari ohar osoa goiena.eus/eskoriatza webgunean ikusgai-.



Auto bat Kalebarrenetik Herriko Plazarako noranzkoan. | MAIDER ARREGI

Oinezko planak aldaketak izango ditu abenduan

Herritarrek eskatuta, aldaketak osoko bilkurara eramango ditu Udal Gobernuak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Irailaren 25a ezker abian da oinezkoen plana. Herritarrek, baina, moldaketak egiteko aukera izan dute. Orain, Udal Gobernuak proposamen horiek jaso eta hausnarketa egin du, eta egokitzapenak ere egin ditu.

Hala, moldaketa horien proposamena abenduko osoko bilkurara eramango ditu, onar daitezten, indarrean jartzeko.

Aldaketak

Hiru dira proposatutako aldaketa nagusiak: lehenengoa piboteen ordutegiari dagokio. "Ez dira 19:00etan jarriko, 20:00etan baizik. Dendarien ordutegiari ahalik eta kalte txikiena egiteko, ordutegia aldatu egingo dugu", azaldu du Antzuolako alkateak, Beñardo Kortabarriak.

Bigarren aldaketak Kalebarren piboteari eragiten dio: egunero ez ixteko erabakia proposatuko du Udal Gobernuak. "Aurrera begira, asmoa da hortik kendu eta Alzarte parean jartzea pibotea", dio alkateak.

Eta hirugarren proposamenak piboteak kontrolatzeko agintearekin duela zerikusia argitu du Kortabarriak: "Pibote automatikoak mando elektronikoen zabal-tzen dira. Orain arte, mando hori honako hauek dute, doan: ixten den gunean garajea duten bizilagunek; ixten den gunean bizi eta mugikortasun-arazoa duten hainbat pertsonak; ordutegi oso berezia duten merkatariek –okindegia, adibidez– eta larrialdi zerbitzuek. Asmoa da, abenduko osoko bilkuran aldaketen proposamena onartu eta gero, itxitako gunean

dauden etxebizitzek mando bat eduki ahal izatea", azaldu du. Baina interesa dutenek eskatu egin beharko dute, eta ordaindu. "Karga lagatzeko edo hartzeko, beste ezertarako ez da erabiliko mandoa. Bestelako erabileraren bat ikusiz gero –aparkatzeko, adibidez–, gaizki erabili duenari kendu egingo zaio mandoa eta ez zaio berririk emango. Udalaren iritziz, ez da beharrezkoa zabal-tzen diren gunea itxita dagoenean egitea –adibidez, merkataritza-gunetik erosketekin etortzea–. Eta mandoak kostu bat duenez, eskuratu nahi duenak kostu hori ordaindu egin beharko du", azpimarratu du alkateak.

Abiadurarekin eta norabidearekin lotutako aldaketak ere izango direla aurreratu du Antzuolako alkateak.

NIRE USTEZ

MARIJO DEGRACIAS



Zein ondo Bergaran!

Publikoaren aurrean ukatu egingo dut berba horiek nire ahotik atera direla, baina benetan: zein ondo pasatu genuen zapatuan —gauean tabernetan jarri ziguten musika eskasa alde batera lagata, noski!—.

Ia hiru hamarkada geroago, bazkaltzeko hitzordua egin genuen 8-A gelakook; ikastalde berezia, inor izatekotan! Izan ere, OHOn ginela, 3. mailan, plazatik Poligonora bidali gintuzten Aranzadiko ikastolakoek, eskola publiko castellanora: Antzuolakoak, Osintxukoak eta Poligonokoak —baita Ber-

gara periferiako beste hainbat ere: San Joangoak eta San Lorentzokoak—. Esango nuke era horretako zonifikazioa gaur egun ez dela legezkoa; baina, era berean, hari esker ezagutu genuen gehienok Poligonora —Antzuolako lehena ezagutu nuen—, eta halaxe lortu gela hain berezia.

Handik urte pare batera, seminarioan geratu ziren gainerakoek ere lekuz aldatu beharra izan zuten, baina ordurako geu ginen arauak genekizkienak; Ramos atezainaren txilibitu-hotsaren ostean, ilaran, eskolara sartzeko liturgia, esaterako. Horretaz ere jardun genuen zapatuan Etxagin. Ez genuen barre eta dantza gutxi egin —Izaro, sesio bikaina!—.

Zein ideia bikaina, Ainhoak eta Julenek. Eskerrik asko bioi! Zimurrak, buruko zuriueak, ile urdinak eta kiloak gorabehera, plazera izan zen atzera zuekin denekin egotea.

Musika eta jolasak Santa Zezilia eguna ospatzeko

Domeka iluntzean 2 eta 12 urte artekoendako piano kontzertua izango da Torresoroan

M.A. | ANTZUOLA

Musikarien eguna ospatuko da azaroaren 22an, domekan. Hala, Santa Zezilia egunean musika izango da protagonista nagusia. Bereziki, herriko gaztetxoendako ahalegina egin gura izan dute. Modu horretan, musika eta kantua protagonista izango dira Xabier Lizaso eskarmentudun

piano-jotzailearen eskutik. Lizasok *Izeba tekla* izeneko euskarazko ikuskizun musikatu eskainiko du Torresoroan, 18:30ean hasita.

Lizaso (Orio, 1965) autodidakta da eta bere kabuz ikasi zuen pianoa jotzen. Gerora, bere formakuntza osatu zuen Donostia, Sevilla, Londres eta Varsoviako musika kontserbatorioetan.



Xabier Lizaso. | UDALEKO KULTURA SAILA

'Izeba tekla'

Domekako ikuskizun musikatu, Lizaso piano-jotzailea ez da protagonista izango. Belarria eta arreta lantzeko bost joko proposatuko ditu eta taldeka nahiz bakarka egin beharko ditu ikusleak joko horiek. Lizasok dio familia osoarendako ikuskizuna dela eta kantuan joango direla haurrak eta gurasoak etxera.

OHARRAK

ELKARRETARATZEA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, azaroaren 25ean, eguaztena, elkarretartzea egingo dute Herriko Plazan, 19:00etan.

GAZTAINA ERRE JANA

Azaroaren 21ean Landatxoeko bazkideek gaztaina erre jana egingo dute, 18:30ean. 120 bazkidek eman dute izena.

POSTA BIDEZ BOZKATZEKO


Antzuolako EH Bilduk gogorazki gura du abenduaren 20ko hauteskundeetarako posta bidez bozkatzeko aukera dagoela. "Lan arrazoiengatik edo beste edozein arrazoiengatik egun horretan kanpoan izango direnei posta bidez bozka daitekeela esan nahi diegu". Informazioa hemen jaso dezakete: antzuola@ehbildu.eus helbidean edo 669 95 84 92 telefonoan.



ARITZ ELORTZA

Paraje paregabean mendi buelta ederra

Arrola taldeak antolatuta, domekan mendi bizikleta irteera egin zuten. Giro ezin hobean, Atxondon hasi eta Antzuolarainoko ibilbidea egin zuten. Anbotori buelta ematen hasi, eta Besaide, Udala eta Arrasate arteko ibilbidea menditik egin zuten. Bidegorritik Bergarara eta handik Antzuolara joan ziren.



Helduendako ginkanak bi galdera ditu. | ARANTZAZU EZKIBEL

Eskura daude euskal ginkanaren galderak

Euskararen Egunaren harira antolatu dute Aramaioren gaineko lehiaketa

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Euskeraz bizi gure dot ozen aldarrikatu gura dute Aramaion. Hori horrela, ekintza ugari antolatu dituzte Euskararen Egunaren

harira. Horietako bat, euskal ginkana, dagoeneko abian da. Bi talde egin dituzte: 14 urtera artekoak eta helduak. Bada, gaztetxoek galdera sorta dagoeneko kalean

da. Gaur arte izango dute erantzuteko aukera, kiroldegian eta kultura etxean. Bigarren galdera sorta azaroaren 23tik azaroaren 27ra arte izango da. Nagusiena,

aldiz, lehenengo sorta azaroaren 22ra arte izango da; eta bigarrena, azaroaren 26tik 29ra. Galderak daude: Anboton, Anusen, B. Azpilikueta, Dukienan, Ekin, Ibarra okindegian, Kintelan eta Unzueta. "Euskararen eta Aramaioren inguruko galderak dira", azaldu du Rosa Mondragonek, Euskara Jarraipen Batzordeko kidea.

Euskararen Egunean banatuko dituzte sariak, abenduaren 3an, 18:00etan, Sastiñan. Nagusien sariak: lehenengoarendako, bi pertsonarendako afari bat; beste hiru sari ere egongo dira –herriko produktuz osatutako otarreak–. Gaztetxoek sariak: bi bonu materiala erosteko.

'Amama' filma

Datorren egubakoitzean, azaroaren 27an, *Amama* filma eskainiko dute kultura etxean. Asier Altuna bergararraren lana 22:30ean eskainiko dute.

Herri lasterketa eta Aukeran

Euskararen Egunaren harira, herrikuntzetako bat herri lasterketa izango da. Kontseiluak bidalitako gonbidapena onartu, eta herri lasterketa antolatu dute azaroaren 28rako, 12:00etan. Hiru ibilbide antolatu dituzte: lehe-

nengoa 270 metrokoa izango da eta 6 urtera arteko umeei zuzendutakoa da; bigarrena, 725 metrokoa, 6-12 urte bitarteko umeei zuzendutakoa; hirugarren ibilbidea, 2,2 kilometrokoa. 12-16 urte bitartekoek itzuli bat egin behar dute eta, 16 urtetik gorakoek bi itzuli –4,4 kilometro–. Amaieran, luntxa eta *photocall*-a egongo da. Izen-ematea zabalik dago: udaletxean, kultura etxean eta euskara@aramaio.eus helbidera mezua bidalita.

Azaroaren 28an, gainera, Aukeran dantza konpainiaren ikuskitza ikusteko aukera egongo da, Txirritola euskara elkarteak antolatuta. Aramaioko kultura etxean izango da, 20:30ean. Edu Muruamendiaraz bergararrak zuzentzen du Aukeran konpainia.

Hika ikastaroa

Txirritola euskara elkarteak Aramaioko hika ikasteko saioak antolatu ditu. Azaroaren 24an eta 25ean izango dira, 18:00etatik 20:00etara, udaletxean. Txipi Ormaetxeak emango ditu eskolak, saio teoriko eta praktikokoak. Izen emateko azkeneko eguna gaur da, egubakoitza: liburutegian, udaletxean edo txirritola@gmail.com helbidera idatz daiteke.

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira kontzentrazioa

Azaroaren 25aren harira hainbat ekintza antolatu dituzte *Biolentzia matxistarik ez!* lelopean. Gaur, egubakoitza, film laburren emanaldia eta eztabaida izango dute gazte lokalean, 19:00etan. Bihar, 09:30ean hasita, herriko eragileek kupelak margotuko dituzte plazan, eta murala ere margotuko dute. 22:00etan, kultura etxean, *50 sombras de Grey* film ezaguna eskainiko dute, eta horren gaineko eztabaida izango dute ondoren. Azaroaren 25ean, eguaztena, kontzentrazioa egingo dute herriko plazan, 18:00etan.



Sastiñan dituzte bihar goizean margotuko dituzten kupelak. | A.E.

Sei Pistols eta Trabuko Bat taldeek girotuko dute Gantzagako jaietako kantu bazkaria

Domekan jaien errepikapena egingo dute Gantzagan. 14:00etan kanpai errepikak eta etxafuegoak izango dira eta 14:30ean kantu bazkaria izango dute Sei Pistols eta Trabuko Bat taldeekin. Jaietako lehenengo aste bukaera giro ezin hobean ospatu zuten, eta txapel jaurtiketa izan zen jaietako berrikuntza: denetan onena Josu Errasti izan zen.

Arte plastikoei eta artisautzari buruzko galderak egiteko aukera egongo da egunean, 19:00etan

Azaro bat somenaz jardunaldien barruan, Blanca Gomez de Segura izango da kultura etxean egunean, 19:00etan. Arte plastikoei eta artisautzari buruz jardungo du Ollerietakoak. Gorbealdeko kulturagileekin elkarrizketa publikoak izateko aukera eskaintzen du saioak; ikusleek galderak egiteko aukera izango dute.

Gorka Astondoa txapeldun

Oilogor ehiza eta arrantza elkarteak antolatutako oilogor txapelketa jokatu zuten azaroaren 7an, zapatua. Aramaioko lurretan jokatu zuten txapelketa; irabazlea Gorka Astondoa izan zen eta bigarren, Iñigo Molero. Iazko txapeldun Endika Gardokik banatu zituen sariak.



OILOGOR ELKARTEA



JUBILATUEN ELKARTEA

Erretiratuak Arrikrutzen eta Gomiztegin izan dira

Aramaioko erretiratuak Arantzazun izan ziren joan zen astean. Lehenengo, Arrikrutzeko kobetan izan ziren, eta ondoren, Gomiztegin gaztandegia bisitatu zuten. Baserriaren funtzionamendua nolako den, zelan zaintzen dituzten ardiak, gazta nola egiten duten... ezagutu zuten; horrez gain, gazta dastatu zuten. Bazkaria Sindika jatetxean egin zuten. 53 lagun elkartu ziren, eta giro ezin hobean ibili ziren. Aurrerantzean ere horrelakoak egiteko gogoz daudela esan dute.

ELGETA

Bideratzekoak izan daitezkeen ekarpen ugari jaso ditu Udalak

Datorren asteko batzarrean parte hartze ordenantza lantzeari ekingo diote

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Hamabost herritar eta sei udal ordezkari elkartu ziren eguaztenean *Danon artian danon herri-xxa* dinamikaren lehenengo herri batzarrean. Ehun bat herritarrek bete dute Udalak banatutako galdetegia. Jasotako erantzunen eta proposamenen berri eman zuten parte hartze prozesuan gidari lanak egiten diharduten Nola enpresako ordezkariak.

Herritarrek ondoen baloratu-tako esparruak ongizatea, ingurumena, kirola eta hezkuntza dira. Txarren baloratutakoak, berriz, osasun zerbitzua eta turismoa dira.

Askotariko proposamenak

Proposamen zehatzetan sartuta, etxebizitza hutsekin lotutakoak nabarmen daitezke. Jasotako erantzunetan errepikatu egiten

da etxebizitza berriak eraiki beharrean hutsik daudenak merkaturatzeko neurriak hartu behar direla. Antzokia biziberritzeko beharra ere behin baino gehiagotan agertu da. Herritarren parte hartzearekin antzokiarendako proiektu berri bat egin beharko litzatekeela, alegia.

Herritarrek adierazi dute, bestalde, berritzeko premian dagoela San Roke kaleko galtzadarrizko zola eta erdiguneak oinezkoendako beharko lukeela. Herria zeharkatzen duen errepidea kentzea proposatu dute.

Hondakinak biltzeko sistema eta autobus zerbitzua —berriak biak— orokorrean ondo baloratzen dira, baina bada zer hobetu, eta proposamen ugari jaso ditu Udalak horrekin lotuta.

Kirol eskaintzak ere balorazio ona jaso du, baina kirol instala-

zioak hobetzeko eskaera errepikatatu egin da. "Gauza asko irten dira, eta, gure ustez, arlo batzuk ez dira maila berean landu. Esaterako, jarduera ekonomikoarekin lotutakoak", adierazi du Gu Geu Elgetako ordezkari Mikel Larreak (...) Baina Elgetarendako eta elgetarrondako onuragarriak izan daitezkeen proposamenak egin dituzte herritarrek".

Iraitz Lazkano alkateak jasotako ekarpen guztiak eskertu ditu. "Interesgarria da herritarrek ere ariketa hori egitea". Eta oposizioari erantzun dio galdetegia prestatzen parte hartu duela, eta berandu datorrela ekarpena. Gainera, badela astebete enpresa guztiak proposamenak egiteko eskutitza bana jaso dutela.

Eguaztenean, hilak 25, egingo dute bigarren herri batzarra, 19:00etan. Ateak zabalik dira.

Urtariletik 1.243 lagun Intxortako bisita gidatuetan

LZ | ELGETA

Mila bisitariren muga gaindituta datu onak direla adierazi dute udal arduradunek. Azaldu dute ikastetxeek eskatutako bisitek egin dutela gora. Aurten, oraingoz, 29 ikastetxe izan dira ibilbide tematikoa egiten; gehienbat, 16-18 urte bitarteko ikasleekin. Gipuzkoatik 23 ikastetxe etorri dira, Bizkaitik bost eta Nafarroatik bat. Udaberriko bisitariak dira gehienak; izan ere, ikasturte amaiera aukeratzen dute ikastetxeek irteera egiteko.



Mintzapraktika taldeak martxan

Elgetan Berbetan ekimenaren baitan sortutako lehenengo hiru mintzapraktika taldeak martxan dira dagoeneko. Bi talde eguazten arratsaldean elkartuko dira —horietako bat argazkian—, eta hirugarrena eguaztenean. Asteon elkartu dira lehen aldiz eta taldeen funtzionamendua adostu dute. Gogoratu behar da ekimenak zabalik jarraitzen duela.

LEINTZ GATZAGA

Urtea bukatu aurretik hasiko dira obrak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Dorletako Amaren Santutegiaren teilatua urtea amaitu baino lehen hasiko dira konpontzen. Aretxabaletako Agustin Bengoa erakuntza enpresak egingo ditu obrak, 100.000 euro inguruko aurrekontuarekin. Jose Olabek, Arrasateko eta Bergarako artzapez-barrutiko kideak, esplikatu du 90.000 euro inguru kostako dela teilatuko konponketak egitea: "Baina halako kasuetan beti ateratzen dira egin beharreko ukitu gehiago, eta horrexegatik 100.000 euro bideratuko ditugu".

Dirua batzen segituko dute

Hark azpimarratu du, era berean, irailean artzapez-barrutiak abiarazitako diru bilketarekin segitu



Dorletako Ama. | UBANE MADERA

behar dutela gastu horiei aurre egin ahal izateko. "15 egun barru batzarra dugu eta orduan ikusiko dugu zehatz-mehatz zenbat diru batu den, baina bai, dirua batzen segitu beharko dugu".

Santutegian bertan dute jarritako konponketa eta diru beharra iragartzen dituen kartela. Eta bertan daude adierazita dirua sartzeko kontu korranteak: Laboral Kutxa: 3035 00 0152 0010701559 edo Kutxabank: 2095 50 3841 1061624291.

Bestalde, santutegiarekin jarraituz, gogoan izan behar da bukatu dela "udako denboraldia" mezei dagokienez; bestela esanda, maiatzera arte ez dute mezarik esango Dorletako Amaren Santutegian.

PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Iban Retolaza-Enrike Elkoro / Iñaki Ugarteburu-Koldo Goenaga 18-12

GAUR, AZAROAK 20, 19:00ETAN

Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Josu Mañarikua-Beniat Arabaolaza

Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal / Etor Garate-Eneko Maguregi

Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar

Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe

Epaileak: Asier Unzetabarrenetxe, Iker Zabaleta, Diego Cantabrana, Iban Retolaza

Euskal kantutegiko abesti ezagunekin gozatzeko aukera izango da bigarren pintxo domekan

Sei pintxo dastatzeko eta baloratzeko aukera izango dute Elgetako bezeroek domekan. Parte hartzeak, gainera, hainbat zozketatarako txartela emango du. Eta euskal kantutegiko abesti ugari ekarriko ditu Elgeta Kantuan ekimenak, 13:00etan hasita.

Autodefentsa feminista tailerra, arte instalazioa eta elkarretaratzea indarkeria matxista ikusarazteko

Hamar lagunek eman dute izena gaur eta bihar artean Elgetan egiteko den tailerrera. Azaroaren 25erako, berriz, arte instalazioa eta elkarretaratzea iragarri ditu Udalak, 18:30erako, herriko plazan. Gorritz margotutako zapata zaharrekin egingo dute instalazioa. Bihar margotuko dituzte, gaztetxean, 11:00etan. Herritar guztiak daude ekintzotan parte hartzera gonbidatuta.

Kantsatzeke mendi taldeak urteko batzar nagusia deitu du martitzenerako, hilaren 24rako, 18:30ean

Kultura etxean egingo dute batzarra eta gai zerrendan daude, besteak beste, zuzendaritza berria aukeratzea, diru kontuen berri ematea, etorkizuneko jardueren nolokotasunaz hausnarketa egitea eta 2016ko irteerak erabakitzea. Bilera irekia izango dela jakinarazi dute, baina zehaztu dute aurten bazkide izan direnek soilik izango dutela botoa emateko eskubidea.

OHARRAK

IPIIN KONTALARIA

Gaur, 17:25ean, liburutegian, 3 urtetik gorakoendako.

IKASTAROAK: KZGUNEAK

Dinamizatzailea KZgunean eguaztenean, 09:00etatik 10:30era.

GARBIGUNE IBILTARIA

Eguaztenean, Salbador kaleko plazan, 10:00etatik 21:00etara.

PLASTIKO BILKETA

Martitzenean izango da. Interesatuek deitu: 943 76 25 47.



IMANOL SORIANO

LEINTZ GATZAGA

Ikusmina eta jakin-mina azokan

Eskulangintzaren bueltan, ohiko produktuekin batera horren ohikoak ez direnak ere jarri zituzten San Milixan azokara bertaratu zirenek: artilez egindako xaboa eta gurpilen pneumatikoz egindako loreontziak, esaterako. *Sorginen* taloek ere arrakasta izan zuten eta ikusmina sortu zuen, beste bat aipatzearen, Gatzagako bertako Sualai errementaritzaren artistikoak.

KIROLA



Iazko San Silvestre Trail lasterketaren irteera puntua, Seminarioko patioan; Imanol Larrañaga eta Ainhoa Landinez izan ziren azkarrenak. | XABI URZELAI

ATLETISMOA

Neguko hotzari hortzak luze, lau lasterketa urtea amaitu aurretik

- ▶ Arrasateko Santamas lasterketak ibilbidea aldatuko du; hilaren 13an egingo dute
- ▶ Bergarako San Silvestre Trail lasterketaren bigarren edizioa iragarri dute antolatzaileek

XABIER URZELAI | ARRASATE

Udazkenean bakarrik ez, neguan sartuta ere bailaran dortsala janzteko lau lasterketa izango dira. Eta abenduaren 13an izango da lehenengoa, iaz gorakada galanta izan zuen Kuadrillen Arteko Santamas Krosaren 38. edizioarekin –Enrike Kabiketa memoriale–; izan ere, Arrasateko proba horretan duela bospasei urte 90 lagun inguru batzen ziren irteera puntuan, eta iaz, esaterako, 270 lagunek eman zuten izena –2013an baino 100 lagun gehiago–.

Hala ere, Arrasate Atletiko taldeko antolatzaileek aldaketa batzuk egin gura dituzte, Fernando Zufiriaren esanetan: "Lehengo zirkuitua korrikalariei aspergarria egiten zitzaielako, eta luzea". Hala, zirkuituan aldaketa batzuk egiteaz batera, lau itzuli beharrean atletek hiru itzuli emango dituzte, ia sei kilometroko lasterketa osatu arte (5.900 metro). Krosa 12:30ean hasiko dute, izena egunean bertan eman ahal izango da eta goizean gaztetxoendako probak izango dira.

Bergarako, baleztatuta

Iazko arrakasta ikusita, abenduaren 31n egingo dute Berga-

rako San Silvestre Trail Peugeot Etormobil Sariaren bigarren edizioa. "Iaz ez genuen horrenbeste jende espero, 200 lagunendako dortsalak jarri genituen, eta segituan amaitu ziren denak. Hala, azkenean, beste 50 lagunendako tokia egin genuen, 250 lagun batu ziren irteera puntuan, eta jendea kanpoan geratu zen", adierazi du Xabi Lijok: "Baina, lehenengo urtea izanda, kontuz ibili gura genuen, eta ez genuen jende larregi hartu gura, antolatzaileek ez genekielako zelan erantzun genuen".



Santamas krosa. | A.GORDO

Santamas krosak ibilbide berria izango du aurten

Gaur zabaltzen da Bergarako San Silvestreko izen-ematea



Oñatiko San Silvestre proba. | GOIENA

Aurten, ostera, 300 dortsal aterako dituzte Bergarako mendi lasterketarako, eta gaur bertan (hilak 20) zabalduko dute izen-ematea –www.herrikrosa.eus–. Hori bai, antolatzaileek oraindik ez dute ziurtatu ibilbidea iazko berbera izango den: "Erabakitzeke daukagun kontu bat da, iazkoaz batera baditugulako beste pare bat alternatiba eder".

Eskoriatzan eta Oñatin

Running-trail edo mendi lasterketak alde batera utzita, urteko azken egunean San Silvestre *kla-*

sikoak ere izango dira, Eskoriatzan eta Oñatin. Oñatikoak parte galanta izaten du urtero, Asier Osinagak gogorarazi duen moduan: "Azken urteotan kopuru nahiko antzerakoa izan dugu, 350 lagun inguru. Esango nuke egun horretan Oñati erdiak egiten duela korrika [Barre]".

Eta, hain zuzen, hori da San Silvestre baten helburua: "Urteren baten 400 lagun ere egon izan dira irteera puntuan, Legazpitik eta Zumarragatik ere etortzen da-eta jendea. Eta egia da azken urteotan Eskoriatzako lasterketak ere indarra hartu duela eta Arrasate eta Aretxabaleta inguruko batzuek Eskoriatzarako joera hartu dutela", adierazi du.

Eta zuzen dabil Osinaga, Eskoriatzako Silbestradiek geroago eta indar handiagoa hartu du eta. Hala, antolatzaileek proba hura ere herrikoia izan dadin egiten dute lan, eta lasterketa ia osoa elkarrekin egiten dute guztiek, neutralizatuta egongo balitz moduan. Eta ondoren, zirkuituko azken itzulian nork bere erritmoari heltzen dio; hala, aurrealdean egur polita egoten da. Bada, hor daude lau hitzordu, abenduko hotzari aurre egiteko, kirola eginda.



Eskoriatzako Silbestradie. | IURIBETXEBARRIA

KARTINGA

Maila gorena, gutxi batzuen esku dagoena

- ▶ Kartingean urte borobila egin du Xabi Fernandezek
- ▶ Bi talderen eskaintzari uko egin die lan kontuengatik

XABI URZELAI | ARRASATE

Xabi Fernandez *Purito*-k duela urte batzuk saihesteko lesio baten gatik baztertu behar izan zuen motorreko kirol modalitateari serio heldu dio aurren, kartingari. Auto-zale amorratu horrek KZ2 kategoriako kart-a erosi eta 125 zentimetro kubikoko motorra ondo estututa Villarcayoko (Burgos) txapelketa irabazi du -zortzi lasterketa ziren-: "Ez nuen uste horren azkar hartuko nionik eskua. Hasi gogorra izan zen, bizpahiru buelta egiten nituen zirkuituan topera, eta gero, atse-den hartu behar nuen, ezin nuelako jarraitu".

Poliki-poliki, baina, joan zen fisikoki ohitzen: "Kart-ek ez dituzte esekidurak, eta errepideko kolpe guztiak pilotuak jasan behar izaten ditu". Asfaltotik zentimetro gutxira eserita, 180 kilometro orduko abiadura hartzera iristen dira: "Hasieran, inpresio handia ematen du".

Hala, hainbat zirkuitutan entrenamendu saio txukunak



Podiumeko lehen postuan. | X.FERNANDEZ

egin ostean, lasterketetan hasi zen, eta Burgos aldean lehiatu da, gehienbat: "Ipar zonako txapelketan ere parte hartu gura nuen, baina ez da posible izan. Burgosen, hasierako lasterketetan, egun rallyetan dabilzan hainbat piloturen kontra neurtu zituen indarrak, eta han ikusi zuen erritmo antzerakoa zuela: "Orduan erabaki nuen txapelketa horretan apur bat serioago jardutea, eta erregularra izaten ahalegindu naiz".

Lan kontuengatik ezezkoa

Arrasatekoak zirkuituetan erakutsitako esku ona dela-eta pare bat talderen gonbita jaso du 2016ra begira: "Baina ezetz esan behar izan diet, lan arrazoien gatik, akaso, kanpora joan beharko dudalako. Proposamena zen koska bat gora egin eta Gaztela eta Leongo txapelketa jokatzeko. Guztira, zortzi lasterketa inguru dira, baina horretarako aurrekontu handiagoa beharko nuke, eta ezinbestekoa izango litzateke babesleekin konpromiso zehatz batzuk hartzea. Txapelketa nazionala kenduta, Gaztela eta Leongoa eta Valentzia aldean egiten dutena izango dira Espainian dauden txapelketarik serioenak".

Maila nazionala probatzea

Talde horiei ezezkoa emateak esan gura du Gaztela eta Leongoz gain kartingeko maila nazionalako txapelketan parte hartzeko aukera erabat baztertzeko: "Aukera izango nuke maila nazionalako probaren batean parte hartzeko. Hor ez daukat zereginik, aurrealdean ibiltzeko diru asko

jarri behar delako mahai gainean, baina esperientzia ederra izango litzateke, atzean ibilita ere halako lasterketetan beti egoten delako zer ikasi".

Dirua izatea, ezinbestekoa

Rallyetan hasi aurretik karting mundua probatu gura izan du *Purito*-k, eta ohartu da modalitate hau rallyetako bezain garestia izan daitekeela, edo garestiagoa: "Nazionalean ibiltzea ezinezkoa da. Pentsa, lasterketa bakoitzeko kart-ak alokatu egin behar dira, dagokien mekanikari taldearekin. Horrek esan gura du, gutxienez, atzealde-erdialdean dabilzanek 6.000 euro gastatzen dituztela lasterketako. Eta aurrealdean dabilzan pilotuek 20.000 euro xahutzen dituzte probako. Zorakeria hutsa da, dirudunen esku soilik dagoen kontu bat, edo aitajaun indartsuak dituztenendako".

Babesleei eskerrak

Arrasatekoak karting denboraldian ez du halako aurrekonturik izan, ezta gutxiago ere, baina izan dituen babesleak ez ditu saltzeko: "Zortea izan dut, eta Think Fast, Taupa taberna, Sumendi gozo-denda eta Epele galdaragintzako laguntza izan dut. Eskerrak eurei, eta datorren urtean babesle gehiago animatzen badira, ederto". Izan ere, kart-a alboratu -salgai dauka- eta auto bat erosita rallyak probatzen aukera aztertzen dabil: "Askatasun handiagoa ematen du, tarteka lasterketa bat egin edo zirkuituan ibiltzea izango litzateke-eta asmoa".



Xabi Fernandez, aurtengo denboraldian, kart gainean. | XABI FERNANDEZ



Kortazar, eskuman, Villa la Angosturako irteera puntuan. | K42SERIES.COM

MENDI LASTERKETA

Oihana Kortazarrek bertan behera utzi du urteko azkena

Argentinan "gorputzari kasu egin", eta erretiroa hartu zuen Salomon K42 Series lasterketan

X.U. | ARRASATE

Lasterketaz -eta garaipenez- betetako denboraldi baten ostean, Oihana Kortazarri azken ostean, Oihana Kortazarri azken proban, Argentinan, esan zion gorputzak nahikoa dela, eta, giharretako minengatik, lasterketa bertan behera uztea erabaki zuen. Elgetakoak 15 kilometro ingurura arte eutsi zion, baina orduan, min hartu aurretik, Villa la Angosturan egiten duten Salomon K42 lasterketa utzi behar izan zuen. "Gorputzari kasu egiteko eguna izan da: gelditzea. Lasterketa ugari, kilometro asko, gorputzak emandako abisuei kasu egin behar zaie. Jokoaren parte da!", adierazi zuen proba bertan behera utzi eta gutxira, sare sozialetan.


Eta kiroltasunez hartu zuen gertatutakoa: "Elisa Descoren eta Stevie Kremmerren artean

dago borroka, onenak irabaz dezala! Nik berriz Villa La Angosturara etortzearekin irabazi dut".

Hala, Elisa Desco izan zen onena, Stevie Kremer bigarren eta Judith Toribio hirugarren.

Pozik egoteko moduko urtea

Salomon Etixx taldeko atleta moralki topera abiatu zen Argentinara, Montsenyko mendi maratonia irabazi zuen duela 15 egun, eta, horrekin batera, Sky Series-ak poltsikoratu zituen. Baina denboraldia luzeegia egin zaio. Orain, lasaiago, Argentinara egindako bidaia turismo apur bat egiteko aprobetxatu gura du Elgetakoak. Dagoeneko Mendoza daude, eta Aconcagua (6.962 metro) mendia igotzea du amets. Horrekin amaituko du 2015a, datorren urtera begira jartzeko.



FUTBOLA

Etxean oso indartsu dagoen Mondrak Bergara hartuko du

Zubiaren mutilek etxeko partidu guztiak irabazi dituzte; Bergarak ez du goialdeko trena galdu gura

XABIER URZELAI | ARRASATE

Erregional Preferenteko hamargarren jardunaldiak Mondraren (19 puntu) eta Bergararen (14) arteko derbia ekarriko du, ezohiko ordutegian, gainera (domeka, 17:00, Mojategi). Zuri-moreek etxeko bolada onarekin jarraitu gura dute -lau garaipen-, eta joan den astean Ikasberriren kontra izandako porrota zuzendu (0-1). Amaikak Bat (24) taldeak izandako liga hasiera ikusgarriaren ondotik, zuri-moreek ez dute Debakoen itzala galdu gura.

Bergara ere ez dabil txarto, nahiz eta azken bi partiduetan izandako porrotengatik aurrealdeko postuak aldendu egin diren apur bat. Mahoneroek, baina, etxetik kanpora behera egin izan dute, orain arte bi puntu baino ez dituzte batu Agorrosindik urrun, eta joera hori aldatzeko asmoz joango dira domekan Mojategira.

Amaitzeko, Aretxabaletako bigarren taldeak ere etxean jokatuko du, atzealdean dabilen Urkomendiren kontra (domeka, 16:30), eta Antzuolak Usurbilera egingo du bidaiara, ligako bigarren garaipenaren bila (zapatua, 15:30, Harane).

UDaK Betoñoren kontra

Hirugarren Mailan, atzealdeko postuetatik ihes egiteko borrokan

dabiltzan Betoño eta Aretxabaleta izango dira zein baino zein gehiago (domeka, 16:30, Gasteiz).

Hori bai, gasteiztarrek Valleren mutilek baino puntu kopuru bikoitza batu dute: 18. Joan den astean Ibarren Valleren mutilek Basconiaren kontra merezi ez

Aretxabaletak Betoño izango du aurrean; atzealdetik ihes egiteko lehian dabilta biak



Mondrako Lopez, Bergararen kontrako derbian, 2012an. | GOIENA

zuten porrota jaso zuten, eta zaleek haserre amaitu zuten epaileak egindako lanarekin. Bada, kategoriara iritsi berri den talde txiki batek horrelakoei ere aurre egin beharko die.

Aloñakoak Hondarribira

Ohorezko Erregionalean, Aloña Mendik bosgarren postuan dagoen Hondarribiaren kontra jokatuko du zapatuan (15:30). Igor Serrano entrenatzaileak joan den domekako partidua amaitu berrikan adierazi zuen partidu horretarako erabat aldatu beharko duela jokatze modua. Kostaldekoek partidu bakarra galdu dute etxean, baina oñatiarrak ez dira horren txarto moldatzen kanpoan, 7 puntu batu dituzte eta.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Betoño-Aretxabaleta
Domeka, 16:30. Gasteiz.

OHOREZKO ERREGIONALA

Hondarribia-Aloña Mendi
Zapatua, 15:30. Ondartza.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Usurbil-Antzuola
Zapatua, 15:30. Harane.

Mondra-Bergara

Domeka, 17:00. Mojategi.
Aretxabaleta-Urkomendi
Domeka, 16:30. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA

Armaganak Jotake-Mondra
Zapatua, 15:30. Eibar.

Bergara-Arizmendi

Zapatua, 16:30. Ipintza.

OHOREZKO GAZTEAK

Zarautz-Aretxabaleta
Zapatua, 12:30. Zarautz.

Aloña Mendi-Ordizia

Domeka, 16:30. Azkoagain.
Bergara-Mondra
Zapatua, 15:30. Agorrosin.

EMAKUMEZKOAK ERREGIO.

Eibar-Mondra
Domeka, 15:30. Unbe.

Ilintxa-Arizmendi

Zapatua, 16:00. Bikuña.

EMAKUMEZKO GAZTEAK

Bergara-Lagun Onak
Zapatua, 12:30. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Oartzun-Aretxabaleta UDA
Zapatua, 17:30. Oartzun.
Eskoriatza-Sasikoa
Zapatua, 18:00. Manuel Muñoz.

GIPUZKOAKO LIGA

Pizza Per Tutti Mon.-Isu Leihok
Zapatua, 18:00. Musakola.

SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Idiazabal Xalao
Domeka, 12:00. Manuel Muñoz.

SASKIBALOIA

EBA

Venta de Baños-MU
Zapatuan, 20:15. Venta de Baños.

BIGARREN MAILA

Mungia-Natra Oñati
Zapatuan, 16:00. Mungia.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Mondragon Unib.-Tabirako
Zapatua, 12:00. Iturripe.

GIPUZKOAKO SENIORRAK

Soraluce BKE-DKS
Zapatua, 16:30. Labegaraieta.

MU-Cafes Aitona Askatuak
Zapatua, 18:00. Musakola.

HIRUGARREN SENIOR MAILA

Ganbara-Aloña Mendi
Zapatua, 19:15. Andoain.

EMAKUMEZKOEN SENIORRAK

Añorga-Eskoriatza
Zapatua, 16:00. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Izarraitz Aloña-Escolapios
Zapatua, 18:00. Zubikoa.
Ford Mugarri-Tolosa
Zapatua, 18:00. Iturripe.

EMAKUMEZKO EUSKADIKO.

Aloña Mendi (atsedena)

GIPUZKOAKO LURRALDEKO

Donibane-Bergara
Zapatua, 18:00. Pasai Donibane.

GIP. BIGARREN LURRALDEK.

Arrasate-Urola
Zapatua, 13:00. Iturripe.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Arratiako-Kanpanzar ART
Zapatuan. Ordua konfirmatzeke.

PILOTA

OÑATI

Gaur, 19:00etan partidu bat
Aloña Mendi 3-Añorga 3.

BERGARA

Gaur, 19:30ean hasita hiru partidu:
Bergara-Intxurre 1
Bergara-Hernani
Bergara-Lagunak

ARRASATE

Gaur, 21:00etan hasita:
Arrasate-Hernani

SASKIBALOIA

Seigarren postuak ematen duen patxadarekin abiatuko da MU Palentziara zapatuan

X.U. | ARRASATE

Jokatutako bost partiduetatik hiru irabazita abiatuko da MU Palentziara, sailkapenaren azkeneko postuan dagoen Venta de Baños taldearen kontra indarrak neurtzera. EBAn ez dago kontrario errazik, baina horiek dira etxetik kanpora irabazi beharrekoak, etxeko garaipenetan itsutu barik.

Bereiker saria, Barberok

Joan den asteko partiduak detale asko utzi zituen. Garrantzi-

tsuena, zuri-moreen garaipena (77-62, Grupo Santiago Automocion), eta beste detaile bat, iazko jokalaria onena saritu zutela, Bereiker sariarekin: Iker Barberok jaso zuen sari hori.

Natra Oñati, lider

Oñatikoak, osterara, bikain dabilta Euskadiko Txapelketako bigarren mailan, Judezen mutilak lehenengo postuan daude, jokatutako sei partiduetatik bost irabazita. Biharko kontrario Mungia bosgarren dago.

FUTBOLA

Harrobiko jokalaria Andoni Ugarte oñatiarrak kontratua berritu du Realarekin 2018ko ekainera arte

Lehenengo taldearekin sarritan entrenatzen bada ere, oraingoz Sansen dihardu Andoni Ugarte atzelari oñatiarrak. Poliki-poliki, baina, lehenengo taldera iristeko pausoak ematen dabil, eta horietako pauso bat eman berri du; izan ere, datorren urteko ekainean amaitzen zuen talde txuri-urdinarekin zuen kontratua, eta, aste barruan, kontratua luzatzeko egindako eskaintza onartu du.

PILOTA

Kadete mailako Gipuzkoako finalak jokatuko dituzte Arrasaten, eta Bergaran Muguruzak finalerdia

Debagoieneko zenbait pilotari lan txukuna egiten dabilta Gipuzkoako txapelketan. Hala, Bergaran egongo den egitarau zabalaren barruan, gaur, egubakoitza, 19:30ean hasita, Eneko Muguruzaren partidua izango da garrantzitsuena, finalerdia jokatuko du-eta Hernanikoen kontra. Arrasaten, osterara, kadete mailako finala jokatuko dute Muruak eta Eigurenek (21:00), Hernaniren kontra.

ESKUBALOIA



Izarraitz Tabernakoek Zubikoako harmailak bete gura dituzte osterara. | GOIENA

Biak aurrean, egoera erabat ezberdinetatik etorri arren

Euskadiko Txapelketara bide ezberdinetatik iritsi dira, baina aurrean dabilta Arrasate eta Aloña

X.U. | ARRASATE

Arrasateko Ford Mugarri Arrasateren eta Izarraitz Taberna Aloña Mendiren arteko derbia goiz iritsi zen, goizegi. Bosgarren jardunaldian bi taldeek sailkapenean agintzen zeudela neurtu

zituzten indarrak, baina partiduek aurrera egin ahala aurrean jarraitzen dute biek.

Hasiera batean, badirudi maila nazionaletik kategoriatik galdutako berri duen Ford Mugarri Euskadiko Txapelketan aurrean egon

Bi taldeek etxean jokatuko dute bihar; kontrarioak taularen erdian dabilta

beharko zukeela, baina taldean egon diren aldaketekin iazkoa ez zen inondik inora erreferentzia, eta lider daude 15 punturekin.

Eta zer esan Oñatikoan gainera, mailaz igo eta urte txukuna egiteaz konformatu ez, eta puntu bat gutxiagorekin (14), baina hor daude, aurrekoak huts noiz egin zain. Hala, zapatuan bi taldeek jokatuko dute etxean, biek 18:00etan, eta biek sailkapenean erdialdean dauden bi talderen kontra, Escolapios eta Tolosa.

Eta aipamena merezi dute, baita ere, Aloñako neskek, Euskal Ligara igotzeko helburuarekin dabilta eta; asteburuan, baina, atsedena izango dute.

DIN DAN DON

**ABESTU
GABON KANTA
ETA IRABAZI
SARI GALANTA**

**Sarrietan
6.000€**
baino gehiago dituzu zain

Oinarri osoak ikusteko:
centrocomercialgorbeia.com

I. Fasea:
azaroaren 20tik
abenduaren 13ra
Finala:
abenduaren 23an
Babeslea:

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN


GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com

Laguntzaileak:



Simon Arrietaren obrak baliatuz, artea ulertzeko bilduma etxean ikusgai

Gaur, egubakoitza, 19:00etan inauguratuko dute 'Simon Arrieta 1915-1969' erakusketa, Aroztegin

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Urtarrilean ekin zien Beart margolarien elkarteak, Udalaren laguntzarekin, Simon Arrieta margolariaren jaiotzaren mendurrenako ospakizunei. Harrezkero, Bergarako margolari ezagunaren izena eta izana zabalteko ekitaldi asko egin dituzte herrian, eta herritik kanpo ere bai; azkenekoa, Koldo Mitxelena Kulturunean zapatuta arte egon den erakusketa. "Sekulako arrakasta izan du, aretoko arduradunen esanetan, inoiz baino bisitari gehiago hurbildu da; askotarikoa, gainera: norbanakoak eta baita ikastetxeetako ikasleak ere. Margolari bat berraurkitu dutela esan digute Donostian", azaldu du Migel Angel Elkoroberezibarek, antolatzaile taldeko kideak.

Ekimenaren bultzatzaileen dako, baina, ezinbestekoa zen Arrietaren obrak bere jaioterrian erakustea. "Honako hau da guretako garrantzitsua. Donostia-koaren erreplika da; margolan bat izan ezik, gainontzekoak hango erakusketatik ekarritakoak dira", dio komisario lanak egin dituen Luis Laskurain margolari bergararrak. Gaur, egubakoitza, 19:00etan inauguratuko dute eta abenduaren 20ra bitartean izango da zabalik.

30 olio-pintura eta lau marrazki Erretratugilea zen, bereziki, Arrieta, natura hilak eta paisaiak ere margotu bazituen ere. 30 olio-pintura, lau marrazki eta margotzeko erabiltzen zituen tresnak -pintzelak, margo-kaxa, astoa...- eta egin zituen erakusketetako dokumentazioa batu dituzte Aroztegin.

"Bildumari izenburu bat jarzekotan, *Kuttuna* da aukeratuko nukeena. Bergaran ezagunak diren pertsonen erretratuak dira. Arrietaren gertukoak gehienak, haren lagunak eta familiako



Arrillaga, Elkoroberezibar, Laskurain eta De Pedro, erakusketa muntatzen. | M. T.

kideak: Arrietaren lagun-mina zen Alkortarena; Migel Altunarena; Jose Letona Arrasateko historialariarena... Horiez gainera, Agirre lehendakariarena ere badago, eta baita San Martin Agirrerren eta Loiolako Inazioaren irudi bana ere", dio komisarioak, eta zera gaineratu du: "Bergarako lau paisaia eta hiru natura hil ere erakutsiko ditugu".

Bisita gidatua

Aukeratutako bilduma, Arrietaren obra erakusteko helburua izateaz gainera, publikoari artea ulertzeko pautak jasotzeko tresna izatea gura izan dute, eta asmo horrekin egingo dute aza-

roaren 27an, 19:00etan, bisita gidatua. "Testuinguru historikoa azalduko dut, eta obra bakoitzaren gaineko azalpenak emango ditu gero Laskurainek", azaldu du Elkoroberezibarrek.

Bisita gidatuak kopuru mugatua izango duenez, aldeztu aurretik eman behar da izena, 943 77 91 59 telefono zenbakira deituta.

Laster, 'on line' inbentarioa

Erakusketak iraun bitartean, Aroztegi aretoan izango da *Simon Arrieta 1915-1969* liburua eskuratzeko aukera; eta urte amaierarako aurreikusten dute sarean, guztion eskuragarri Simon Arrietaren katalogoa jartzea.

ESANAK

"Margolari bat berraurkitu dutela esan digute Donostian"

M. A. ELKOROBEREZIBAR | IDAZLEA

"Arrietaren gertukoak irudiak batu ditugu; bilduma kuttuna da"

LUIS LASKURAIN | MARGOLARIA



Durangoko Azokako guneak aurkeztu dituzte. | JOSU BILBAO

Mende erdia bete duen Azokan, 250 ekitalditik gora eta 350 produktu berri

Liburu eta diskoetan gorakada izan bada ere, argitalpen elektronikoen egin dute bereziki gora

A. A. | DURANGO

Abenduaren 4tik 8ra izango da aurtengo Durangoko Azoka; San Agustin Kulturunean izango da, Szenatokia gunean, inaugurazioa, 19:00etan. "Urtemuga borobila, mugarrria eta ospakizuna izango da aurtengoa. Eta borobila izango da aurtengo egitaraua, inoiz baino kultur ekitaldi gehiago izango dira eta: kontzertuak, solasaldiak, proiektzioak, haurrentzako jarduerak, tailerrak eta bestelako ikuskizunak antolatu ditugu", azaldu dute eguaztenean Plateruena Kafe Antzokian egindako aurkezpenean.

Aurten ez da kultura gonbidaturik egongo, eta Argizaiola saria Gerediaga Elkartearen sortu zutenek jasoko dute.

Zortzi gunetan, berrikuntzak

700 metroren barruan eta bost minutuko distantzian, zortzi gunetan banatuta egongo da aurten ere Azoka.

Areto Nagusian izango da, bigarrenez, *Gogoetaren plaza*, iaz moduan, euskal kulturaren gaineko gogoeta bultzatu eta etorkizuneko estrategiak garatzen laguntzeko. Irudienean, ikus-entzunezko gunean, besteak

beste, *Amama* eta *Euskal Herriaren ABDak* filmak eta *Goenkale* telesailaren azken hiru atalak primizian eskainiko dituzte.

Itxura berrituarekin dator, arlo digitalaren plaza izango den Kabi@ gunea, kabi baten itxura hartuko du eta. Txikien eta handien plaza izaten jarraituko du aurten ere Saguganbarak. Beste urte batzuetan moduan, tailerrak eta ipuin kontaketa izango dira, baina baita hainbat ekimen berritzaile ere: irakurmena sustatzeko txakurrekin jarduerak, haurrekin erlaxazio tailerrak...

Aurten marka guztiak hautsi dituen Ahotseneak -70 zuzeneko eta 50 solasaldi izango ditu- bi tokitan egongo da banatuta: iazko toki berean izango da kontzertuetarako karpeta eta Landako barruan, berriz, solasaldien gunea. Plateruena ere izen handiko taldeen kontzertuak izango dira.

Gune horietan guztietan gertatzen denaren lekuko izango da Azoka Telebista; Azokak irauten duen bitartean, emisio jarraitua eskainiko du zuzenean. Inoiz baino hedabide gehiagoren lankidetzak izango du; Goiena ere bertan izango da.

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2015
azaroak 21

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Elegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariok konfiantza,
herbitasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



Bihar izango da zarzuelaren lehenengo saioa

Abesbatzak leku berezia izango du asteburu honetan eta hurrengoan Amaia Udal Antzokian

IDOIA DAVILA | ARRASATE

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak taularatuko duen hamaseigarren zarzuela da aurtengoa. Elkarteko zuzendariak, Tere Gonzalezek, *La alegría de la huerta* zarzuela aukeratu du eta abesbatzari leku berezia egin dio.

Amodio istorioa

Federico Chuecaren zarzuelak, gehienak bezala, amodioaren gaineko istorio bat kontatzen du. Abesbatzako kide Jasone Orbegozoren ustez, zarzuela horrek erakusten du maitasuna "zaindu beharreko" zerbaite dela.

Zarzuela desberdina

Polita izan da aurtengo prestaketa, baina baita zailagoa ere. "Aurten gehiago abesten dugu, eta gogoz, gainera", dio Orbegozok. Izan ere, zuzendariak lau

abesti gaineratu dizkio abesbatzari, moldatu egin du zarzuela.

Pieza horiek zailagoak dira, Orbegozoren esanetan, eta otsail amaiera ezker aritu dira entseguetan. Amaia antzokian egin dituzte azkenekoak: "Azkeneko saioetan dantzariak etorri dira, eta dena izugarria da, ez dauka zerikusirik hasierako entseguenkin". Debako Kulunka dantza taldeaz gain, Arrasateko Orkestra ere egongo da aurten. Gainera, abesbatza antzerki lanetan ibiliko da.

Bihar estreinaldia

Prestatutako emanaldia ikusteko aukera egongo da bihar eta domekan, baita hurrengo asteburuko egubakoitzean eta zapatuan. 18 euroren truke eros daitezke sarreak www. arrasate.eus atarian edo Amaia antzokiko leihatilan.

Antihumano: eguneroko gaien kritika eta hausnarketa, erritmo azkarrean abestuta

Bihar, zapatua, 21:00etan aurkeztuko dute lan berria, Antixena gaztetxean

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

Aurrez beste talde batzuetan jardun ondoren -CC627, Golpe de Estado, Sospechosos...-, 2014ko maiatzean sortu zuten Ander Korkostegik (gitarra-jolea), Iñaki Zubiak (bateria-jolea) eta Xabi Elortzak (baxu-jolea) Antihumano taldea. "Musika azkarra, indartsua eta letra zuzenak, hori da Antihumano", dio Elortzak, eta zera gaineratu du Korkostegik: "Orain arte egin dugun musikarekin zerikusirik ez du. Erritmo lasaigoetara jotzen dute askok; guk, berriz, alderantzizkoa egin dugu".

Zazpi kantuko bilduma

Hitzek ezer gutxi dute arlo sentimentaletik, kritika egitea dute helburu sortu dituzten euskarazko zazpi kantuek.

Errokaldeko entsegu-lokalean grabatu zituzten, bi etapatan, Iñaki Zubiarekin eta Ander Berasaluze soinu teknikariarekin; Donostiako Dr Master estudioan *masterizatu* zuen, gero, Estanis Elortzak. "Hiru



Antihumano zuzenean. | EIDER ITURRIAGA



kantu grabatu eta *Bandcamp*-en eskegi genituen. Kontzertu batzuk egin eta beste lau kantu grabatu genituen gero; horiek osatu dugu bihar aurkeztuko dugun CDa. Pako tabernan eta kontzertuetan salduko dugu, bost eurotan. Durangoko Azokan ere izango da, Musikazuzenean standean, eta, bestela, antihumanohc@gmail.com helbidera idatzi eta egin eskaera".

Argi dago Antihumano taldea emankorra dela, beste zazpi dituzte-eta laberatzeko prest!

Goseren 'disco laranja' saritu dute AEBetan

The Akademiak, Kaliforniako musika sustapen sareak, azaroko dance-electronica saria eman dio

J. B. / A. A | ARRASATE

Hilero egiten du The Akademiak 25 kategoriatan banatutako disko eta abesti nabarmenen zerrenda, musikariei sustapen eta zabal-kunderako bideak irekitzeko helburuarekin.

Ameriketako Estatu Batuetako irrati kate bateko ekoizle bat

jarri zen Arrasateko taldearekin harremanetan, *Gose IIIII* diskoa gustatu zitzaioela eta sariketara aurkezteko proposamena eginez. 2012an kaleratu zuten lanean batutako askotariko erritmo harrigarriengatik eman die musika industriako profesionalak osatzen duten epaimahaia 2015eko azaroko saria.

Ezustean harrapatu du hirukotea. "Haluzinatuta" eta pozik daude, ekar dezakeenaren esperoan.

Lan berria prestatzen

Orain ez dabilta kontzertuak egiten, baina ez daude geldirik: udaberrirako lan berria atera gura dutela aurreratu du Bengoak.

Goiena Klubeko azaroko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



40 hazbeteko telebista

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista

EROSKI
ARRASATE



Liburua
Andoni Urzelaireren azken liburua, 'Karanbola toxikoak'
Parte hartzeko sariaren izena: Liburua



Sarrerak
Arrikruz kobetarako sarrerak
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarra
Bidezko merkataritzako produktuak
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Txantxiku eta Arizmendi ikastolakoak talde argazkian. | MAIDER ARREGI

Fair Saturday eguna ekintza ugarirekin dator

Txantxiku eta Arizmendi ikastolek azaroaren 28an mundu hobe baten aldeko jaialdia egingo dute

KOMUNITATEA | EDURNE BALTZATEGI
ARIZMENDI IKASTOLA | DEBAGOIENA

Azaroaren 28rako, Txantxiku eta Arizmendi ikastolek arte eta kultur jardurekin osatuko den ekitaldia antolatuko dute, Fair Saturday egunaren bueltan. Fair Saturday eguna artearen eta kulturaren bidez mundua aldatzeko nazioarteko eguna da, eta Euskal Herrian ere badu bere isla; izan ere, iaz hasi ziren ekitaldiak eta ekintzak antolatu egun hori ospatzeko. Bilbon dago Euskal Herriko egoitza. Abiatu denetik azaroaren azken

larunbatean ospatu izan da eta ekitaldietatik ateratzen den dirua gobernuz kanpoko erakunde batentzat izan ohi da. Garapen bidean dauden herrialdeetan garapen endogenoa sustatu nahian dabil Mundukide azken hamabost urteetan, eta baita gure gizartean eraldaketa bultzatzen interkooperazio erduetan oinarrituz.

Arizmendi Ikastolak Kulturaren (Arrasaten) egingo du bere ekitaldia arratsaldean eta Txantxiku Ikastolak herriko plazan. Ikastolako abesbatzek,

FAIR SATURDAY EGITARAUA

AZAROAK 27

19:30 Arozenatarrak anaiei emanaldia da Santa Anan.

AZAROAK 28

ARRASATE

17:30 Kulturaren jaialdia. Txalapartariak, ikastolako bertsolariak, Arizmendiko musikariak, abesbatzaren emanaldia eta trikitilarien saioa.

OÑATI

12:30 Herrixa Kantuan kontzejupetik eta kaleetan zehar.

19:30 Jaialdia plazan. Bertsolariak, txistulariak, abesbatza eta Trikitonbo taldearen emanaldia.

bertsolariek, txistulariek hartuko dute parte, besteak beste, eta ateratzen den dirua Mundukide Fundazioarentzat izango da.

Azken bi urteotan bailarako ikastolek hainbat ekintza egin dituzte batera eta elkarlanean. Aurreko ikasturtean, Ziburuko ikastolari laguntzeko kros solidarioa antolatu zuten, eta aurtengoa honako hau izango da.

Kantari karaokean ia 1.000 gaztek eman dute izena

Bosgarren aldian, inoiz baino parte-hartzaile gehiago egongo dira, 950 gaztetxotik gora

I.B | DEBAGOIENA

Goienaren Kantari karaoke ikuskizuna markak hausten dabil, eta hori, hasi aurretik. Izan ere, aurtengo izen-ematea bukatuta, ia mila gaztetxo animatu dira bosgarren Kantarin parte hartzera, inoiz baino gehiago. "Oso-oso pozik gaude Kantarik aurtengo izen-ematearen harrekin, ia mila neska-mutikok eman dute izena, 950etik gora apuntatu dira, eta ikusten da gaztetxoak Kantarin parte hartzeko gogotsu daudela", dio Amaia Txintxurretak, Kantariko aurkezleak.

Urterik urte Kantarik ospea hartu du Debagoieneko umeen artean. Aurtengo izen-emate epea noiz hasiko zen. Azaro hasieran izan da hori, eta Debagoieneko ikastetxeetan egin da. Kantariko aurtengo parte-hartzaileek eta familiek laster jasoko dute berri gehiago.

Abestiak, abenduan

Parte hartuko duten gaztetxoek gurasoek posta elektronikoko bitartez jasoko dute, abenduan, euren seme-alabei zozketa bidez ego-

kitu zaien abestia. Bideo baten lotura ere jasoko dute bertan, koreografia ikasteko. Gaztetxoek bertatik ikasi beharko dituzte dantzak eta kantuen letrak.

Entsegu orokorra egingo da gero herri bakoitzean, ikuskizuna baino aste bate lehenago, gutxi gorabehera, baina egun horretarako gaztetxoek guztia ondo ikasita eraman beharko dute. Entseguaren egun eta ordua ere posta elektronikoz jakinaraziko zaie gurasoei.

Grabazioak, urtarilean hasita

Datorren urte hasieran, urtariletik martxora bitartean egingo dira grabazioak herriz herri, eta berriro ere Kantari saioaz gozatu ahal izango dute Debagoieneko familia guztiek.



Iazko Kantari. | IMANOL SORIANO

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

BERGARAKO CHEF ONENAREN BILA



GOIENA TELEBISTA | 'BERGARA CHEF'
EGUAZTENA, AZAROAK 25 | 22:00

BERGARA CHEF 2. SAIOKO PARTE-HARTZAILEAK:

- Nerea Madariaga eta Irati Alberdi
- Jose Mari Larrañaga eta Patxi Berraondo

Publikoaren saria: zein da sukaldean bikote onena?

Bidali WhatsApp-a 688 69 00 17 telefonora eta egin zure aukera:

1. aukera: *BergaraChef Nerea*
2. aukera: *BergaraChef Jose Mari*



ANTOLATZAILEAK:



*Bergara
Bizi*

LAGUNTZAILEAK:

- Kabutzia arraindegia
- Leturia harategia
- Zare fruta denda
- Oilagorra elkarte



HERRITELEBISTAGINTZAN

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. 65 metro koadroko etxebizitza salgai Arruriaga kalean. Hiru logela, sukalde, egongela eta komuna. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 943 76 93 85

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Apartamentua eman da errentan unibertsitatetik gertu. Logela, bainugela, sukalde eta egongela. Guztiz jantzia. Berokuntza eta igogailuarekin. Pertsona bakarrendako edo bikote batendako egokia. Kontratuarekin. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 656 75 00 94

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar duzu errentan. Bi edo hiru logelako. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 634 04 17 30

Arrasate. Logela bateko apartamentu baten bila nabil. Erdi-gunean. 400 euro ordaintzeko gertu. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 610 99 42 03

Baserria. Baserria errentan hartzeko asmotan dabilen bikote bat gara. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Erretiratu bikote batek etxebizitza behar du errentan, elbarriadako egokitutako bainugelarekin eta igogailuarekin. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 632 77 35 38

Etxe bila. Neska batek Oñatin, Zubillagan edo Arrasaten etxebizitza hartuko luke errentan. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 666 83 22 01

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai Bolun. 24.000 euro. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 943 76 93 85

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Gozotegirako saltzailea behar da.
679 13 70 31

Arrasate. Emakume euskalduna behar du umek zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia baloratuko da. Interesatua egonez gero deitu ezazu: 686 20 31 35

Bergara umek zaintzeko. Pertsona euskaldun eta esperientziaduna behar da goizez umek zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 610 80 43 27

402. ESKAERAK

Administraziolaguntzailea. Erdi mailako administrazioko gradua daukan neska lan bila. Gidabaimena eta autoa ditut. Interesatua egonez gero telefono zenbaki honetara deitu ezazu: 629 98 42 56

Arrasate, Bergara eta Oñati. Gizonezko erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa. 639 66 57 88 edo 943 78 62 19

Arrasate. Emakumea lan egiteko gertu: umek edo nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen. Orduka edo egun osoan zehar. 843 63 09 66

Arrasate. Mutila gertu etxean bertan bizizaten nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat eta hiruroz nagusiak zaintzen aritu izanaren egiaztagiri eta erreferentziak. Bestela, erakuntzan erelan egingo nuke. 678 25 95 46

Debagoiena. 28 urteko neska euskaldunak ondorengo lanetan jardungo luke: umek edo nagusiak zaintzen, dendari lanetan eta garbiketako lanetan. 622 37 61 41

Debagoiena. Arrasaten bizi den emakumea pertsona nagusiak edo umek zaintzeko prest. Etxeko lanak egiten ere lan egingo nuke. Ordutegi aldetik ez daukat inongo arazorik. 629 06 94 11

Debagoiena. Emakumea gertu egun osoz edo orduka garbiketako lanak egiteko: etxeak, atariak, elkartek eta abar. 645 58 71 61 (Liliana)

Debagoiena. Emakumea gertu etxean bertan bizi izaten, orduka edo egun osoz lan egiteko. 632 51 06 26 (Olga)

